

1. ANTZINEKO EKIALDE HURBILA ESPAZIO ETA DENBORAN

Edozein gertakari historikoa, garrantzitsua ala garrantzi txikikoa, erabakigarri ala baliogabea denbora-espazio koordenadetan bilakatzen da. Gizakiok eta beraiek sortzen dituzten gizarteak eta kulturak toki zehatzetan kokatzen dira, leku horiek, jakina, ingurumen-baldintza desberdinak dituzte eta beste faktore bat kontutan hartu behar dugu: ingurumen-baldintza horiek gizakiok alda erazten ditugu, gure izadiaren gaineko ekintzez. Gizatalde guztiok euren inguruneekin harreman dinamikoa ezartzen dute, ingurune elementuek talde horien bilakaera historikoan eragina dute, era desberdinetan, nolabait esanda, ingurune-ezaugarriek bilakaera historikoa baldintzatzen dute, baina, ez dute erabakitzen. Beraz, ekosistemaren ezaugarriek argi definitzen dute ezinezkoak diren fenomenoak, baina ez dute erabakitzen zer gertatu behar den. Garapen teknologiko txikia duten gizarteetan, ingurumen-baldintzak erabakigarriagoak izango dira.

Esan bezala, ingurumena giza ekintzek aldatu egiten dute, demografia, teknologi-maila eta produkzio-intentsitatearen arabera. Aldaketa horrek eragin bikoitza du, bide batez positibo eta negatiboa delako: alde positiboa zonalde horretan bizi den taldearen iraupena ziurtatzen duela da; alde negatiboa: taldearen elikadura kolokan jar daitekeela ustiatzearen ondorio txarreatatik: baliabideen agortzea, lurzoruaren gazitzea, kutsadura, etab. Elkarrekintza hori antzinako kontua da, Neolitoan beran hasi ziren.

Beraz, giza harremanak denbora eta espazio zehatzetan bilakatzen direnez, eta espazio horiek fisiko eta geografikoak direnez, geografia historiko eta kronologia edozein azterketa historiko egiteko oinarrizko tresnak dira, ezagupen historikoarentzat behar beharrezkoak.

Horiek horrela, jarraian aztertuko ditugun gizarteen geografia historikoa ezagutu behar dugu, baita euren bilakaera aldi historiko desberdinetan kokatzen jakin ere.

1.1. Antzinako Ekialde Hurbileko geografia

Ez dugu Antzinako geografiari buruzko lanik, beraz, datu geografikoak ia ia guztiak (erliebea, luraren ezaugarriak, euri-sarritasuna, ibai-bideak, etab.) gaur egunekoak dira, hala ere, G. Roux-en iritziz, antzinako Mesopotamiari ere dagozkio, aldaketa txiki batzuekin.

Antzinako Ekialde Hurbileko geografiaren ezaugarriak azaldu nahi baditugu, bi ideia nagusia aipatu behar ditugu: batasuna eta dibertsitatea edo aniztasuna. Azken ezaugarri

horren arrazoia dibertsitate ekologikoa da, hau da, hainbat faktorek sortzen dute: erliebe, klima eta ibai-sare eta lehengaien kokapena hain zuzen ere. Beraz, Ekialde Hurbilean eskualde desberdinak bereizi ditzakegu faktore topografiko, klimatiko, orografiko eta hidrografikoen arabera.

Eskualde aniztasun horrek eremu geografiko desberdinak sorrarazten ditu:

-Anatoliako penintsula, bere bi ezaugarri nagusiekin: topografia konplexua eta erdiguneko meseta.

- Iraneko goi ordokia

- Kostalde mediterranea

- Arabia eta Lut-eko basamortuak

-Mesopotamiako lautada osatzen duen ibai-arro handia, Pertsiar Golkoraino hedatzen dena. Eskualde horren identitate topografikoa Eufrates eta Tigris ibai handiek itxuratzen dute. Mesopotamia hitzak berak dioen bezala, "ibaien artean" kokatutako lurraldea da. Tigris eta Eufrates-en artean alegia.

Aztertuko dugun lurraldea hiruki bat da, hiruki horren muturrak izango dira ALEPO hiria (gaurko Sirian), URMIAH lakua (ZAGROS mendien iparraldera) eta CHAT-EL-ARAB ibaiaren bokalea, hiru puntu hauen artean jarri behar ditugu mugak.

Lurralde honetako gaur egungo muga politikoak Siria, Iran, Irak eta Turkia dira. Antolamendu politikoaren ikuspuntutik, Mesopotamia, antzinatean, ez zegoen baturik. Baina Mesopotamian sortu ziren zibilizazioak kultur batasuna zuten. Kultur horrek izen ezberdinak izan zituen aldi desberdinetan: "kaldearra", "asiriar-babiloniarra", "sumertar-akadtarra" eta "mesopotamiarra". 3000 urte baino gehiagoz iraun zuen ia aldaketarik gabe. Zibilizazioa sortu ziren guneak hiriak izan ziren: UR, URUK, KISH, NIPPUR, AKKAD, ASUR, NINIVE, BABILONIA, Eufrates eta Tigrisen ibarretan kokaturik baita Eufratesen isurkideetan ere.

Tigris eta Eufrates ibaiek iturburua Armenian dute, lehenengoak VAN lakuaren hegoaldean eta bigarrenak ARARAT mendiaren inguruan. Gaur egun ibilbide desberdinak dituzte hegoaldean elkartzera iritsiz, Pertsiko Golkotik gertu, CHAT-EL-ARAB osatuz. Antzinatean bi ibaiak bakarka, elkartu gabe, itsasoratzen ziren, Chat-el-Arab ez zegoen.

Geografia-eremu horietaz gain, trantsizio zonak aipatu behar ditugu, lehenengoan artean kokatzen direnak: mendikateak eta zona elkor eta erdi-elkorak. Mendikateekin hasiz, hurrengoak aipatu behar ditugu:

- _ Anatoliako Hego-ekialdetik Mesopotamiako Ipar-ekialderantz hedatzen diren mendikateak: Taurus mendiak, Armeniako mendiak (Kaukaso eta laku handien (Seva, Urmia, Van) eskualdetik gertu daudenak).
- _ Handik Hego-ekialderantz Zagros mendiak hedatzen dira, Kurdistan, Luristan eta Khuzistanen gainean. Zagros mendiak Mesopotamia eta iraniar meseta bereizten dituzte.
- _ Iraniar meseta horretatik ekialderantz basamortua dago, Iran eta Afganistango mendikateak eta Iran eta Indo ibaiaren ibarra bereizten dituena.
- _ Beste muturrean, beste trantsizio zona bat aipatu behar dugu: Siria, bere bi elementu bereziak: estepa eta basamortua. Trantsizio zona horrek Mesopotamiako alubioi-lautada eta Mediterraneoko kostaldea bereizten ditu. Mediterraneoko kostaldea Anatoliako hegoaldeko kostaldetik Sinaiko Penintsularaino hedatzen da. Mediterraneoko kostaldea Libano mendikateak Iparraldetik Hegoalderantz zeharkatzen du.

Beraz, orain arte deskribatu dugun ingurune anitza da: erliebe, lur mota, klima, landaretza eta bizigarritasun baldintza desberdinak dituzten eskualdeak aipatu ditugu. Baina batasuna ere aipatu dugu Antzinako Ekialde Hurbileko geografiaren ezaugarriak azaltzerakoan. Batasunaren faktoreen artean hurrengoak aipatu behar ditugu: Antzinako Ekialde Hurbileko lurraldea oso handia da baina area trinkoa da, kanpoko mugek zirkunskribatua. Muga horietako batzuk definitu eta zehatzak dira: adibidez Mediterraneo mendebaldean eta Itsaso Beltza (Ponto Euxino) ipar-mendebaldean. Beste batzuk, berriz, zehaztugabeak dira baina sakonak (trantsizio zonak): besteak beste, Kaukaso, Erdialdeko Asiako iparraldeko estepak eta Arabiako basamortua hegoaldean. Azkenik, beste muga batzuk aipatu behar ditugu, hauek irekiagoak dira, adibidez Ekialdean Irango mesetatik Pertsiar Golkoraino hedatzen diren eskualdeak.

Ekialde Hurbileko batasunaren beste faktore bat, barne faktorea da, Mesopotamiako lautada zeharkatzen duen Eufrates eta Tigrisek osatutako ibai-arro handia. Ibai-arro horrek

Mesopotamiako lautada eta bere eskualde periferikoak lotzen ditu, euren arteko komunikazioak erraztuz. Lotura paper hori faktore desberdinetan datza: lautadaren irisgarritasun topografikoa, zona horren erliebe uniformeagoa da eta ez hain malkartsua, eta, azkenik, aipatutako bi ibai handi horiek eta euren ibaiadarrak. Ibai horien ibilgua eta zeharkatzen duten lautadak, aurki, bide nagusi bihurtu ziren, nondik jendeak eta gauzak zirkulatzen baitzituzten toki batetik bestera.

1.2. Herrialdeak, eskualdeak eta klima

Aipatu dugun aniztasuna askotan zona eta eskualde geografikoetan beraietan ere errepikatzen da. Horrela, Mesopotamian bi alde desberdinak bereizi ditzakegu: Mesopotamia Beherea eta Mesopotamia Garaia (Behe-Mesopotamia, Goi-Mesopotamia):

–Mesopotamia Behera Tigris eta Eufrates ibaien bide erdikitik Pertsiar Golkoraino hedatzen da. Hegoaldean deltaren ondoko zingirak hedatzen dira. Pertsiar Golkoaren kostamarra Antzinatean gaur egun arte aldatu egin da, beraz, antzinatean itsas-portuak ziren toki batzuk gaur egun kilometro asko barnealderantz kokatzen dira.

–Mesopotamia Garaia bi ibaien bide erdikitik Siriako lur erdi-idorretara eta laku handien inguruan dauden zona menditsuak hedatzen da.

Mesopotamia Beherea eta Mesopotamia Garaia desberdintasun topografikoak eta klimatikoak adierazgarriak dira. Jalkin lautadaren hegoaldean, Mesopotamia beheran euriak eskasak eta irregularrak ziren, euriteak udazken eta neguan izaten ziren. Udaberrian, otsailan hasten zena, eta udaren hasieran, Armeniako mendietako elurra urtzen hasten zenean, Tigris eta Eufratesen uhaldiak gertatzen ziren. Uhaldi horien gogortasuna, Egipton ez bezala, ezin zuten errez aurreikusi. Udara oso lehorra zen eta azarora arte luzatzen zen.

Mesopotamia garaian baldintzak desberdinak ziren: euriteak udaberria eta udazkena ziren, negua, motza izan arren, oso gogorra zen. Udaberria goiz hasten zen, larreak lore eta belarrez estaliz. Udaran, berriz, oso beroa zenez dena lehortzen zen, hilabete beroenak uzta eta abuztua ziren.

Mesopotamia Beherean uzta apirilaren bukaeran hasten zen, iparraldean, berriz, ekainera arte atzeratzen zen. Landu daitezkeen lurren kopurua ere desberdina zen, Mesopotamia Beherean Mesopotamia Garaian baino askoz handiagoa zen.

Anatolian ere eskualde desberdinak bereizi ditzakegu:

- erdialdeko meseta altua, Halys ibaiak zeharkatua,
- hegoaldean kokatuta dagoen laku txiki batzuen eskualdea
- Mendebaldeko kostaldea, non erliebea ez da hain malkartsua, eta
- Iparraldeko mendiak.

Irango lurraldean bereizi behar ditugu: Iparraldeko meseta eta Hegoaldeko lautadak.

Aipatu behar dugun beste faktore bat aniztasun klimatikoa da, zeinek prezipitazio-errejimenean eragina zuzena du. Dibertsitate klimatikoa latitude eta altitudeak eragiten dute. Antzineko eta gaurko fauna eta landaretza konparatuz gero, azken 6.000 urteetan gertatu diren aldaketa klimatikoak hutsalak direla esan dezakegu, prezipitazioak eta batez besteko tenperaturak ez dira apenas aldatu.

Klima, neurri handian, orografiak erabakitzen du. Ekialde Hurbileko erliebeak desberdintasun nabariak ditu, kontraste handiak daude:

- _ alde batetik 3.500/4.000 metroko batez besteko altuera duten mendiak aipatu behar ditugu: Taurus eta Zagros, adib. (Armenian, Ararat mendiak 5.000 metrotik gora dauka),
- _ bestetik, zokogune sakonak, adib. Itsaso Hilaren bazterretan daudenak, 395 metro itsas-mailatik behera, eta Hegoaldeko Palestinakoak.

Beraz, klima desberdinak aurkitzen ditugu:

- _ klima mediterraneanarra, hau orokorrean epela da, maiatzetik irailararte luzatzen duen udara luze eta lehorra du, negua berriz euritsua da.
- _ Siria eta Arabiako basamortuaren klima lehorra, ia ia prezipitaziorik gabekoa, eta
- _ Mendialdeko klima alde garaietan.

1.3. Baliabide naturalak eta komunikazioak

Ekialde Hurbileko aniztasun ekologikoak baliabide naturalen kokapena erabakitzen du, haren homogeneotasunik eza hain zuzen ere. Egurra, metalak eta harria meseta eta mendietan biltzen dira, Mesopotamiaren lautadan ez dago.

Ekialde Hurbileko erdilehorreko aldeetan, hau da zonalde ugarietan, nekazaritza ureztapenari esker egon daiteke. Alde menditsu eta goi-lautadak lehorreko nekazaritzarako egokiak dira, euri-errejimenaren arabera.

Mesopotamiar lautadaren baliabiderik garrantzitsuena lurra bera da, zeren eta lurzoru hezeak daude, erdi-basamortuko klima izan arren. Mesopotamiako lautadak oso emankorrak ziren. Biztanleria ugaria erraz mantendu zezaketen, horretaz bestalde zerealen soberakina ekoizten zuten. Zereal mota asko landatzen ziren: garia, artatxikia eta, batez ere, garagarra, gaur egun bezala, zerealik garrantzitsuena Mesopotamian.

Lursailen uhaldea udazkenean suertatzen zen eta urtaro honetan ereintza egiten zen. Uzta normalean hurrengo urtearen apirilean edo maiatzean jasotzen zuten. Autore klasikoek emandako datuen arabera lurren emankortasuna izugarrikoa zen, hori esaten dute Estrabonek eta Herodotok adibidez.

Baina zerealen gaineratikoa bazegoen ere, beste lehengai batzuk falta ziren, hain zuzen ere: egurra, metalak eta harria. Produktu hauek inportatu behar ziren eta horretarako erabili zen zerealen soberakina, inportazioak ordaintzeko. Produktu hauek Egipto, Siria, Libano, Asia Txikia, Pertsia eta Elametik zetozen, produktu asko itsasoz iristen ziren Mesopotamiaraino Pertsiar Golkotik, baita ibaiez.

Merkataritza, beraz, oso zabaldua zen. Merkataritza herriartekoa zenez, derrigorrez arduratu behar zuten herriarteko harremanak ez apurtzeaz, zeren eta estatuen arteko guduengatik oso erraza zen komunikabideak ebakitzea.

Estatuen arteko gduetaz gain, aipa dezakegu herri sedentarioetarako beste mehatxu bat: barbaroek eta herri nomadek egiten zutena, noizbehinka lautadako lur aberatsen kontrako erasoaldiak egiten zituzten. Hori zela eta aurki antolamendu politiko eta militarren beharra sortu zen eta, pixkanaka, estatuak euren mugak zabaldu zituzten, euren eragina gero eta urrutiago hedatuz. Horrela herriarteko harremanak Mesopotamiatik lekora barreiatu ziren.

2. Iturriak

Ekialde Hurbileko ikerketa arkeologikoak XIX. mendean hasi ziren, Europako politika kolonialistaren ondorioz. Ikerketa horiek hasi baino lehenago, asiriar, babiloniar, hitita edo feniziarrei buruz genuen informazio bakarra Itun zaharreko liburuak ziren. Berriz, arkeologoen antzinako zibilizazio horien aztarnak berreskuratu zituzten heinean, herri horiei buruzko dokumentuen kopurua nabarki gehitu zen. Hala ere, aztarna berriek dokumentazio berreskurapen-bidean pauso txiki bat besterik ez dugula eman adierazten dute, beraz oraindik informazio asko agertu eta ikertu gabe dago.

Dokumentuak: euren azterketa eta mugak

Ekialde Hurbileko antzinako gizarteen historia eta bizimodua berreraikitze erabili ditzakegun dokumentuak bi motatakoak dira: idatziak eta materialak. Dokumentu idatziak mota desberdinetako testuak dira: kronikak, inskripzioak, erlijiozko literatura, lege-kodeak etab. Dakigunez, testu horien azterketa filologoen lana dugu. Aztarna materialak (tresnak, armak, eraikuntzak, etab.) arkeologoen aztertzen dituzte.

Esan bezala, dokumentu horiek Antzinako Ekialdeari buruzko ezagupen historikoaren iturriak dira. Informazio multzo hori, ugaria izan arren, irregularki banatuta dago, bai denboran bai espazioan, baita gizarte horiek burutu zituzten ekintzei dagokienez.

Ekialdeko hizkuntzen desziframendu prozesua luze eta kostagarria izan da. Sumeriera, akadiera, pertsiera eta abarreko hizkuntzak deszifratu ahala, espezialistek informazio gero eta gehiago lortu dute. Kasu gehienetan dokumentuak indusketa arkeologikoetan agertu dira, aztarnategietan. Dokumentazio idatzi gehiena tenplu eta jauregietan agertu da. Bi elementu horiek (tenplu eta jauregia) informazio gehiena ematea adierazgarria da, zibilizazio horien antolamendua agerian uzten duelako.

Dokumentazio idatzi horrek daukan muga garrantzitsuenetako bat bere jatorria da, hau da testu guztiak esparru soziokultural dominanteetan izan zuten sorrera, beraz talde horien ikuspuntua besterik ez digute eskaintzen. Adibidez lege-kodeak zuhurki erabili behar ditugu iturri historiko gisa, zeren eta han agertzen dena, batez ere, legegileen ikuspuntua da, benetako errealitate historikoa izkutuan gelditzen delarik.

Antzinako gizarte horien dokumentuak milaka kontserbatu dira bi faktore desberdinengatik: alde batetik idazteko erabili zuten euskarria, materiala, batez ere buztinezko taulatxoan, harrian eta brontzean idatzi ziren; bestalde, zenbait erregek izan zuten bilketa-

zaletasuna, artxibo eta biblioteka handiak egon ziren, adibidez Assurbanipal-en jauregiko liburutegia izugarri aberatsa omen zen.

Aurkikuntza horietan izaera administratiboa duen dokumentazioa nabarmentzen da, administrazio-testu horiek interes handikoak dira, batez ere antolamendu politikoa ezagutzeko. Esan bezala, testu horiek gugana iritsi dira erabili zuten materialari esker, buztinezko tabletetan idatzi baitziren. Material horrek beste batzuk baino askoz hobeto jasan ditu ehorzketa eta suteak.

Indusketak jarriki ager arazten ari dira mota honetako dokumentazioa. Gertaera positibo horrek bere alde txarra du ere: urtero aurkitzen den materialak ezartzen edo eraikitzen ari den interpretazio historikoa berrikustera behartzen gaituela, hain zuzen ere. Batzuetan finkatutako kapitulu osoak zeharo aldatu behar izan dira aurkikuntza berrien ondorioz. Dena den, informazio ugaria badugu ere, ezin dugu esan guk nahiko genuke bezain aberatsa eta osoa denik.

Esan bezala, Behe Mesopotamiako indusketetan buztinezko oholtxoak milaka agertu dira, egoera ekonomiko eta politikoa ezagutzeko oinarritzkoak, horretarako oso garrantzitsuak dira NUZI-ko, KANISH-eko (Kapadozian) eta Pertsepolis-eko artxiboen agiriak. Lege bildumak ere oso garrantzitsuak dira. Lehendabizi deszifratu zen kodea Hammurabirena izan zen, eta ondoren beste errege batzuenak: mesopotamiarrak, hititak, asiriarrak eta egiptiarrak. Gutunek ere informazio baliozkoa eskeintzen dute gizarte horiek ezagutzeko bai pertsona pribatuen arteko gutunak, bai erregeen artekoak, bai erregearen eta funtzionarioen artekoak. Aipatu ditzakegu bi gutun bilduma, Ekialde Hurbileko herrien arteko harremanei buruzko informazio ugaria eman digutenak: MARI hiriko erregeren artxiboa, K.a. XVIII. mendearen lehenengo erdikoak, eta TELL-EL-AMARNA-ko gutunak, XV. mendetik XIV. mendera bitartekoak, Amenofis III. eta Amenofis IV., faraoi egiptiarren eta printze asiarren artekoak. Dokumentazio honen ondoan beste agiri mota batzuk aipatu ditzakegu adibidez ohorezko inskripzioak, biografiak, urtekari asiriarrak eta hititak, testu erlijiozkoak, etab.

Hala ere, informaziorik aberatsena eman digun iturria arkeologia izan da. Dena den, iturri horrek ere muga larriak dituela jakinarazi behar dugu. Egia da arkeologiak askotan datu fidagarriak eta eztabadaiezinak ematen dituela, diziplina izaera enpirikoarengatik, hala ere beste arazo batzuk dauzka, adibidez aztarnategien kontserbazioa askotan oso txarra da, indusketa ere, zenbait kasutan gaizki egiten da, gogoratu behar dugu indusketaren

arduradunak batzutan ez direla arkeologo profesionalak izan, edo profesionalak izan arren prestakuntza eskasa dute, beraz, euren ikerketak balio gutxikoak dira.

Horretaz gain kontserbatu diren aztarna materialak eta arkeologoek aurkitu dituztenak ez dira era aleatorioan agertu. Aztarna horien kontserbazio-maila horien euskarri fisikoen kalitatearen arabera dago, eta, normalean, kalitate horrek zerikusi handia dauka ekoiztu zituzten gizataldearen maila sozialarekin, gizatalde maila gero eta altuagoa materialak are eta hobetoak dira. Zentzu honetan, herri nomaden bizimodua berreraikitzea arkeologiaren bidez askoz zailagoa da.

URBANIZAZIORANTZ

K.a. 4500etik 2900era dinastiaurreko aldiak iraun zuen. Garai horretan arkeologoek hiru aldi bereizi dituzte. Aldi bakoitza izendatzeko aztarnategien izenak erabiltzen dituzte: kultur elementuak lehendabizi agertu edo ongien bereizi ziren aztarnategien izenak, hain zuzen ere.

Hiru aldi horiek hurrengoak dira:

–El-Obeid-eko aldia: K.a. 4500-3700

–Uruk-eko aldia: K.a. 3700-3100

–Djemdet Nasr-eko aldia: K.a. 3100-2900

El-Obeideko Kultura (K.a. 4500-3700)

Fase honi Ur hiritik mendebaldean dagoen aztarnategi txiki batek, El Obeid-ek, eman zion izena, baina Behe Mesopotamiako beste enklabe askotan ere dokumentaturik dago, zeren eta, praktikoki, hiri handi guztien hastapenak aldi horretan aurkitzen ditugu.

Garai horretako ezaugarri adierazgarrienetariko bat Behe Mesopotamiako lehentasuna da. Aurreko faseetan ez bezala, zonalde horrek kultur ekimena hartu zuen.

El-Obeideko aldiaren aldaketa sakonak gertatu ziren, besteak beste, elikagai-produkzioaren gehitzea. Gehiagotze hainbat faktoreri esker gertatu zen:

–alde batetik, animaliek tiratutako goldearen sartzea (gur-aberezko goldea);

–bestalde, ureztaketa estentsiboa.

-gurpilaren erabilera...

Lan hidraulikoak ugaltu ziren, helburu desberdinekin:

ubide batzuk zona idorretara ura eramatekoak ziren, urik gabe lursail horiek landatu ezinak ziren;

beste lan hidrauliko batzuk drainatze beharra betetzen zuten, batez ere lur zingiratsuetan, hau da lautadaren azkeneko zatian: aintziren eta deltaren inguruan. Lur zingiratsuak drainatzen hasi zirenean erein daitekeen azalera izugarri handitu zen.

azkenik, beste ubide batzuk urtaroko ur-goraldien soberakina urtegi-tara eramane behar zuten.

Lan horiek ondorio desberdinak ekarri zituzten. Lehenengo eta behin, bizilekuen antolaketa aipatu behar dugu. Mesopotamiako lautada ubide horien inguruan antolatzen zen. Bizitokiak nekazaritza guneak ziren eta, esan bezala, ubideen inguruan agertzen ziren.

Elikagai produkzioari dagokionez, zereal bilketa masiboa egiten zuten. Ziur aski, arbolazaintza (datil-palmondoa) eta baratzezaintza ere (kipulak eta beste lekadun batzuk) agertu ziren. Abeltzaintzan, ahuntz, ardi eta bobidoak (behiaren familiakoak) hazten zituzten. Zingira eta aintziren inguruetan dieta arrainekin osatzen zuten.

Etxeko arkitektura, hasieran nahiko pobrea zen, kanabera eta buztinezko etxolak ziren. Pixkanaka gero eta konplexu eta sendoagoa egin zen.

Garai horretako beste aldaketa bat tenpluen garapena da. Lehenengo tenpluak aurreko aldian, Eridu izenekoa, K.a. 5000 urte inguruan, agertu ziren. Eraikuntza txiki horien tipologia eta kokalekuak eraikin horiek esklusiboki kulturako erabiltzen zirela adierazten dute. Lehendabizi, kultu-funtzioa familia-esparrutik irten zen, aldaketa horrek izugarriko garrantzia izan zuen bizitzaren beste alderdietan, geroxeago ikusiko dugunez.

El Obeid-eko kultura-aldian tenpluak nabarki garatu ziren, Behe Mesopotamian baita Mesopotamia Garaian ere hedatu ziren. Tenpluak herrixketako tokirik garrantzitsuenak ziren eta oso ondo bereizten ziren gainontzeko bizitokitik. Garai horretako tenpluak terraza artifizial baten gainean eraikitzen ziren, ziguraten aurrekoak ziren. Hasieran oso xumeak ziren, gela bakarrekoak, baina pixkanaka oinplanoa konplexuagoa egingo zen, gelen kopurua gehituz: erdiko gela luzanga eta bi gela ilarak alboetan.

Esan dugun bezala, komunitatean kultu-funtzioa bereizi zen gainontzeko funtzioetatik. Bereizketa horrek botere politiko eta ekonomikoaren antolaketan ondorio berehalako eta zehatza izan zuen: zentralizazioa. Zentralizazioa modu desberdinetan agerian jartzen da:

- eskaintzak, opariak agertu ziren
- kultua komunitate-jarduera bihurtu zen
- tenpluak eraikitzeke lan-eskuaren mobilizazioa
- ziur aski apezgo profesionala agertu zen.

Tenpluak funtzio berria betetzea jainkozaletasun forma berriekin erlazionatu behar dugu. Hainbat elementuk benetako jainkotiar “pertsonalitateak” agertu zirela adierazten digu, hurrengoak: opari-sistema; kultu-eraikinen komunitate-izaera eta hiri berean tenplu bat baino gehiago izatea. Oraindik ez ditugu pertsonalitate horien izenak ezagutzen, hurrengo aldiko testuek aipatuko dituzte. Giza komunitateak jainko horiengan bere itxaropen eta beldurrak zentratzen ditu, aurreko “izadiaren indarren” kultuak utziz.

Lehendabizi, herrixka horietan zentralizazioa nabaria egin zen. Fenomeno horren ondoan beste bat aipatu behar dugu: gizarte estratifikazioa hain zuzen ere.

Estratifikazio horren aztarnak begi bistakoak dira, adibidez:

- Balio handiko eskuz eginiko produktuak gero eta ugariagoak ziren. Produktu horiek lan espezializatuaren emaitzak ziren, nahiz eta espezialista horiek denbora osoko jardunaldia ez egin.
- Estratifikazio horren beste adierazgarri bat aberastasun-metaketa testuinguru berrietan zen; testuinguru horiek esanahi sinbolikoa zuten: tenpluen eskaintzez gain, hilobi-hatuak aipatu behar ditugu, non hildakoen maila ekonomikoaren desberdintasunak gero eta handiagoak ziren. Beraz, dudarik gabe, gizarte hori estratifikazio-prozesua bizitzen ari zela esan dezakegu, bai funtzio bai ekonomiaren arabera.
- Hirugarren seinalea serie-produkzioaren hasiera da, adibiderik argiena zeramika da. Serie-fabrikazio horrek artisau batzuk bete-beteko arduraldia zutela suposatzen du. Prozesua hurrengo fasean, Uruk-ekoan, gorenera iritsiko da, zeramikaren serie-fabrikazioa tornuz egiten hasi zenean.

El-Obeideko guneetan, metalurgia gaizki dokumentaturik dago, batez ere metala berriz erabiltzen zutelako. Hori gertatu arren, teknika garapen-maila altua izan zela dakigu, metalurgia apaingarri txikiak egiteaz gain, erreminta eta armak fabrikatzeko ere erabiltzen zuten.

HIRI-IRAULTZA

Uruk-eko aldia: K.a. 3700-3100

Hiri-iraultza kontzeptuaren asmatzailea, “Iraultza Neolitikoaren” kasuan bezala, Gordon Childe arkeologoa da. Iraultza hori K.a. IV. milurtekoaren erdialdean gutxi gorabehera, Mesopotamia Beherean, batez ere, Uruk hirian gertatu zen.

Dudarik gabe urrutiko premisak zituen prozesu luzea izan zen iraultza hori. Hala ere, iraultza-gertaera izan zen bi faktore kontutan hartzen baditugu: epeak eta gertatutako aldaketan gorabehera. Epeei dagokienez, aldaketetan, azelerazio azkarra gertatu zen, beste autore batzuk benetako “jauzia” gertatu zela esaten dute. Aldaketan garrantziari dagokionez, horiek zibilizazioaren alderdi guztietan eragina izan zuten, demografikoetatik ideologikotara, alderdi sozioekonomiko eta teknologikoak barne. Aldaketak erabatekoak izan ziren, zibilizazioaren egitura aldatuz.

Iraultza oso konplexua zen, faktore desberdinek hartu zuten parte. Adituak, denbora luzez, faktore horiek sailkatzen saiatu dira: faktore horien artean funtsezko eta lehen mailakoak eta deribatuak bereiziz. Lehenengo azalpen-saioek faktore horietako bat nabarmentzen zuten, erabakigarria zela esaten zuten, izan faktore teknologikoa, izan demografikoa edo antolatzailea ere.

Gaur egun, azalpen-planteamendua aldatu da. Dudarik gabe, mekanismo sistemikoaren aurrean gaude. Sistema horretan faktoreen elkarrekintza (elkarreragin, interakzio) agerikoa

da, batak bestearen gainean eragina du eta, aldi berean, interakzio horren ondorioz faktore bakoitzak indarra irabazten du.

Mekanismo sistemikoa sinplifikatzeko eta faktoreen artean lehentasuna ezartzeko ikuspuntu logikotik ez kronologikotik, nekazaritza-produkzioaren gehitzea oinarrizko premisa da; horren ondorioz, komunitateek elikagai-soberakinak lortu zituzten, horiei esker, giza taldeak denbora osoko arduraldia zuten espezialistak mantentzen zitzaizkien.

Dakigunez, Neolito eta Kalkolitoan herrixka-komunitatea finkatu zen, hau da, kokalekuak txiki, autarkiko eta bere artean oso homogeenak ziren. Asentamendu horien artean desberdintasunak egon arren, horiek oso txikiak ziren eta ezin zuten euren muina aldatu.

Komunitate horien antolamenduan izandako aldaketarik garrantzitsuenak bi izan ziren:

- Bata, elikagai-produkzioaren eta teknika espezializatuen bereizketa sistematizatu zen.
- Bestea, bereizketa hori lurraldean agerian gelditu zen, zeren eta espezialistak bizileku handietan, geroxeago hiriak izango zirenak, biltzen ziren. Elikagai-produkzioa, berriz, herrixken beharra izango zen.

Lehenengo eta behin, zeregin-banaketa drastikoa gertatu zen. Soberakinak handitu zirenez, ekonomia-jardueran dibertsifikazioa areagotu zen. Giza-talde osoak ez zuten nekazaritzan jardun behar, beraz espezialistak sortu ziren. Lehen etxe-eremuan egiten ziren zenbait lan teknikari espezializatuen eskuetara pasatu ziren. Espezialista horiek lanaldi osoko lana egiten zuten eta, normalean, gune handietan biltzen dira. Nekazaritza-populazioa, berriz, herrixketan sakabanatzen zen. Espezialista horiek nekazaritza-populazioak baino prestigio handiagoa lortu zuten menperatzen zituzten teknikak eta ezagupenak garatuagoak zirelako.

Espezialista horien kopurua geroz eta handiagoa egin zen. Horien artean artisautza-lanetan eta merkataritzan jarduten zutenak aipatu behar ditugu, baita funtzionario, apaiz eta gertuariak ere. Espezialistak talde hiritarrak ziren. Hiriko talde zuzendariaren barne hierarkia bat osatu zen, hierarkia horren erpina administrazio eta kultu-zereginak betetzen zituztenak ziren: eskribak, administratzaileak, ikuskatzaileak eta apaizak.

Landa eta hiriaren arteko lotura estua ezarri zen, lehenengoak nekazaritza-soberakinaz hornitzen zuten hiria. Soberakina horien truke hiriak produktu espezializatu eta zerbitzuak ematen zituen. Hala ere lotura hori ez zen paritarioa izan, landa eta hiria ez zeuden maila berean, hiriak nagusitasuna erdietsi zuen. Laburbilduz, hiriak herrixkaren gaineko nagusitasuna ezarri zuen, hori dela eta herrixka hiriaren zergadun bihurtu zen.

Familia eta herrixka-eremuan erabakiak familien buruek hartzen zituzten, tradizioaren arabera. Hirietan berriz, erabakiak hartzea funtziorik espezializatuena bihurtu zen. Erabaki horiek gizarte desberdintasunean oinarritzen ziren eta desberdintasun hori indartzen zuten.

Mekanismo horretan elkartasuna ez da hautazko eta metatze-elkartasuna, herrixka-komunitateetan bezala. Orduan definitzen ari zen sistema espezializatu horretan, solidaritatea organiko eta beharrezkoa zen. Familia bakoitzaren lana gainontzeko familientzat guztiz beharrezkoa zen eta erabaki estrategikoek guztiongan zituzten ondorioak, beraz guztiok onartu behar zituzten nahitaez.

Beraz, Uruk-eko aldi hiru prozesu erabakigarri burutu ziren:

- lan-espezializazioaren sistematizazioa,
- espezializazio horren kontzentrazio espaziala eta
- erabakiguneen agerpena.

Hiru prozesu horiek gauzatu zirenean, “erakunde handiak” sortu ziren, Oppenheim historialariaren hitzetan, hau da, tenplu eta jauregiak.

Bi elementu horiek izaera bikoitza zuten:

- alde batetik arkitektura-gune handiak ziren,
- bestalde gizartearen elementu antolatzaileak.

Hasieran bi elementu horiek, tenplu eta jauregia, ez ziren bereizten, gune bakarra osatzen zuten; poliki poliki elementu bakoitzak bere izaera propioa definituko zuen.

Tenplua, “jainkoaren etxea” zen, kultu-gunea, komunitatea aldizka joaten zen horra nagusi sinbolikoari gurtza ematera (jaiak). Jauregia, berriz, erregearen egoitza zen, erregea familia eta gortearekin bertan bizi zen. Bi elementu horien arteko desberdintasun nagusia hori izango zen.

Baina tenplu eta jauregiak beste alderdietan antz handia zuten. Bai tenpluan bai jauregian administrazio-ekintzak burutzen ziren, bietan soberakinak metatzen ziren eta gune birbanatzaileak ziren. Jainko edo erregearen egoitza izateaz gain, adierazpen politiko edo erlijiosoaren guneak ziren, eta bi erakunde horiek komunitatearen bizitzarako ezinbestekoak ziren beste elementu asko biltzen zituzten, besteak beste: artisau-tailer, biltegi, eskribabulego eta artxiiboak.

Esan bezala, hasieran benetako protagonista tenplua izan zen. Arkitekturari garrantzi hori agerikoa zen: tenpluak izaera monumentalak lortu zuen. Erlijiozko eraikuntzak hiriko posizio zentral eta dominatzailean aurkitzen ditugu.

Tenpluak funtzio aglutinatzailea bete zuen, komunitatearen barne kohesioa bermatuz, zeren eta

- alde batetik erreferentzia-puntua zen populazio-multzoarentzat,
- bestetik klase menderatzaileak erabiltzen zuen gainontzeko populazioarekin komunikatzeko, bere botere-egoera justifikatuz.

Tenpluaren nagusitasuna ideologia-esparruan ere ikusi dezakegu. Jainkoek alderdi horretan funtzio nabarmena bere gain hartzen zuten:

- Hasteko, hiriaren sorrera bera jainkoen lana izan zen.
- Jainkoek hiria fundatzeaz gain komunitate horren biziraupena bermatzen zuten,
- aldi berean ordenaren bermatzaileak ziren.

Tenplua buru zen taldearen erabaki-gunea zen.

Horretaz gain, garai horretako propaganda eta justifikazio politikoaren adierazpen bakarra zen.

Komunitatearen desberdintasun sozio-politikoak begi bistakoa zen. Testuinguru horretan egonkortasuna lortzeko nukleo zuzendariak hiru frontetan jardun behar zuen, funtsezkoak ziren hiru funtzio hauek betetzen zituen: ideologiko, administratibo eta militarra.

Lehenengoa, funtzio ideologikoa, apezgoaren eskuetan gelditu zen. Apezgoak jainkoekiko harremanak bermatzen zituen. Pentsamolde primitiboan komunitateak ekoizpenaren zati bat jainkoei eskaintzen zien, biziraupena bermatzen zuten izadiaren onurak lortzeko. Orduan ideia berdina mantentzen zen baina protagonistak aldatuz: kuota talde zuzendariari ematen zitzaion, zergak moduan. Emate hori tenpluan egiten zen zerbitzuen eta segurtasunaren truke. Apaiz-taldeak jarduera horren bitartez desberdintasun-harremanak justifikatzen zituen.

Funtzio administratiboa burokraziaren eraketan irudikatzen da. Burokrazia horren kideak funtzionario edo eskribak izaten ziren, hots idazkera ezagutzen zutenak. Burokrazia sektore eta kategoria hierarkizatuetan antolatzen zen. Burokraziak komunitatearen ekonomi kudeaketa bermatu behar zuen.

Azkenik, indarra ere erabili behar zuten bai defendatzeko bai barne egonkortasuna bermatzeko. Funtzio horren tresna armada zen. Armadan bi motatako lagunak bereizi behar ditugu:

- bata soldadu profesionalen nukleoa, arduraldi osoa zuena,
- kontingente hori guda garaian populazioaren erreklutamenduarekin osatzen zen, horiek dira bigarren motatako soldaduak.

Antolamendu horren buruan erregea edo komunitatearen buruzagia zegoen, aipatutako hiru funtzioen azken arduraduna. Erregeak hiria etxalde handi bat gisa administratzen zuen, menpeko langileak erabiliz. Langile horiek soldata gisa lur eta anoak jasotzen zituzten. Hala ere erregea kudeatzailea besterik ez zen, zeren eta jabe teorikoa jainkoa zen, erregeak jainkoaren izenean jarduten zuen. Kontutan hartu behar dugu oraindik ez zegoela jauregi guztiz laikoa, tenplua hiriaren gune absolutua zen, horregatik erregea apaiz gorena ere zen eta zeremonia kolektiboak protagonizatzen zituen. Azkenik, erregea armadaren burua eta hiriaren defendatzailea zen. Uruk-eko gliptikan askotan paper hori betetzen agertzen da.

Hiritar gizarte horien elementu nabaria idazkeraren sorrera da. Idazkerak ekonomi eta administrazio funtzioen beharretan izan zuen sorburua. Ikusi dugun bezala, hiri-egitura sortu berria aparatu birbanatzaile handi bihurtu zen, zeinek nekazaritza-soberakinak metatu eta produktu eta zerbitzuak banatzen zituen. Birbanatze-jarduera horretarako kontabilitate zehatza ezinbestekoa zen, beraz pisu eta neurri sistema ezarri zituzten, baita erregistroak eramateko idazkera asmatu behar izan zuten.

Idazkeraren lehenengo fasea zigilua izango zen. Lehenago erabili arren, Uruk-eko alditik aurrera zigiluek konnotazio berri eta adierazgarriak lortu zituzten, bai forma eta dekorazio bai erabilerari dagokionez. El Obeid-eko kulturen hasierako zigiluak agertu ziren. Zigilu horiek forma laukizuzen edo borobila zuten, dekorazioa geometriko edo zoomorfoa zelarik.

Hurrengo aldiko zigiluak zilindrikoak izan ziren, ira-marka biraketaz egiten zuten. Zigilu berri horien dekorazioa komunitatearen bizitzaren eszenak izaten ziren, non gizartearen ideologia agerian gelditzen baitira.

Hurrengo urratsa idazkera logografikoaren definizioa izan zen. Horrekin batera oholtxoak erabiltzen hasi ziren. Oholtxoak laukiz banatuta zegoen, hori zela eta eragiketa desberdinak eduki zitzaizkien. Zeinu piktografikoak aldatu ziren, zeren eta ez zuten gauza bat irudikatzen, kontzeptu bat baizik. Garapen horren ondorioz, kontzeptu abstraktuak adierazteko ahalmena lortu zuten. Azkenik esaldiak egiten hasi ziren. Hori zela eta idazkera administratza-eremutik irten zen, eskola-liburuak aurkitu dira, administrazio-testuen garaikideak. Oraindik ez zuten literatura-maila lortu, baina bidean zeuden.

Idazkera sistema garatu zen neurrian sistema logosilabikoa agertu zen. Sistema horrek zeinu kontzeptualak eta silabikoak erabiltzen zituen, idazkera kuneiformea agerraraziz. Idazkera kuneiformea: falka-formako karaktere edo irudiz osatutakoa, kanabera-zati batekin buztin hezean idazten zena.

V. Gordon Childek izendatu zuen “hiri-iraultza” Mesopotamia Behereko fenomeno bereizgarria da, hala ere Ekialde Hurbileko beste aldeetara ere hedatu zen. Uruk-eko garaian izandako populazio-kontzentrazioa eta zibilizazioaren garapena hain handiak izan ziren ze eragina derrigorrez ondoko eskualdetara zabaldu baitzen.

Eragin-esparruaren zabaltze horretan ezin ditugu merkataritza harremanak ahaztu. Merkataritza-ekimena tenpluak izan zuen (merkataritzan tenpluak aurrera egin zuten). Behe Mesopotamiako hirietako egitura sozio-ekonomikoak kanpotik ekarri behar zituzten zenbait produktuak ezinbestekoak zituen:

–alde batetik, eskualdeak ematen ez zituen lehengaiak: metal, egur eta harri gogorrak,

–bestalde klase zuzendariak bere nagusitasuna adierazteko erabiltzen zituen luxuzko gauzak.

Bi motatako produktu horiek urrutiko lurretatik ekarri behar zituzten, hori zela eta merkataritza-sarea eratu zuten. Merkataritza-sare horrek eskualde periferikoen antolamendugarapena ekarri zuen, bai lehengaiak ekoizten zituzten eskualdeetan bai bitarteko aldeetan.

Horrela hirigintza hedatu zen, zona zentrokideen eredua hartuz. Nukleoa Mesopotamiako hegoaldeko erdian zegoen, geroxeago Sumer eta Akkad izango zena. Hango biztanleek munduaren erdigunetzat jotzen zuten lurralde hori. Lehenengo zirkulua ondoko aldeetatik hedatzen da, hau da Khuzistan, Asiria eta erdiko Eufrates-etik. Alde horietan Uruk-eko merkataritzako “koloniak” agertu ziren besteak beste Susa, (erdiko eta hegoaldeko Irango merkataritzako zirkuituan), Ninive eta Tepe Gawra, Asirian (iparraldeko Irango trafikoa kontrolatzeko) eta Habuba Kebira eta Gebel Aruda, erdiko Eufrates-ean (Siriara zihoazen bideetan).

Bigarren zirkuluak Eufrates garaia eta mendebaldeko Iran hartzen du barne. Alde horietan Uruk-eko eraginak tokian tokiko antolamendua aldatu zuen baina ez zuen kultura materiala aldatu.

Azkeneko zirkuluak Uruk-eko kulturaren hedapen-esparrutik kanpo gelditzen da, hirigintza Siria, Anatolia eta hego-mendebaldeko Iran-en agertu zen.

Djemdet-Nasr (K.a. 3100-2900)

Aldi hori Uruk-eko kulturaren azken uneetako jarraipena da, beraz, historialari batzuen ustez azkeneko kultura horren beste fase bat besterik ez da. Bere ezaugarri nagusia idazkeraren sorrera da, horregatik protoliterario izenaz ezagutzen dugu.

AKAD (K. a. 2330-2150)

Sargon

Ummako erregea Lugalzagesi indarrez Uruk, Ur, Kish eta Sumerreko hiri guztiez jabetu zen. Lehendabizikoz mesopotamiar hiri batek Ilgora Emankorraren lurralde osoa bere kontrolpean jarri zuen, Erregeren zerrendak dionez: "Beheko Itsasotik, Tigris eta Eufrates ibaietatik, Goiko Itsasora".

Baina Lugalzagesik ezin izan zuen lurralde hori bere kontrolpean mantendu denbora luzez, Sumerreko erregeren zerrendak 25 urteko luzapena ematen dio bere erregealdiari.

Erregealdi horren ondoren Sargon garaia dugu. Sargon mesopotamiar historiaren pertsonai garrantzitsuenetariko bat izan zen. Horren nortasuna eta ekintzak aldakuntza nabariak sorrarazi zituzten, bere oroimena ondorengo garaietan zehar hedatuz.

Sargon orakulu, inskripzio eta testu literario askoren pertsonai nagusia izango zen, berari buruzko tradizio mitiko bat eratu zen, behin eta berriro errepikatuta. Tradizio hau gure informazio iturria da, baina zuhurki erabili behar dugu errealitate historikoaren berrikuntza egiterakoan.

Elezahar desberdinak sortu ziren. Batean Sargon aita, semita bat zen, Laipum izenekoa. Beste batek dio Sargon aita ezezaguna zela eta ama sazerdotesa. Eufratesen ertzeko herri txiki batean jaio zen eta amak otarre batean ibaira bota zuen. Lorazain batek, Akki, hartu, hezi eta lanbidea erakutsi zion. Ishtar jainkosaren mesedeak Kisheko erregearen gortera sartu zuen beraren kopari bihurtuz. Sargon bere jabearen kontra altxatu zen eta Agade eraiki zuen.

Elezahar honen gauzarik aipagarriena jainkoen interbentzioa da. Mesopotamian orokorki erregetzaren legitimotasuna jainkoen aukeran zetzan.

Akadeko inperioaren sorrera hedapen militarra eta lurraldekoa izan zen. Hedapen hori hasieran ulertu behar dugu Lugalzagesiren kontrako erreakzio moduan. Lugalzagesik, Kish konkistatu ondoren, Nipurretik iparraldeko lurralde guztiak zapaldu nahi zituen. Borroka horretan Sargonek garaitu zuen baina Lugalzagesiren gaineko garaipenak ez zuen Sumerreko beste hirien menpekotasuna ekarri.

Sargonek, Ur, Lagash eta Ummaren aurkako gudua jarraitu behar izan zuen. Pixkanaka hiri guztiak jarri zituen bere kontrolpean, beraien harresiak deseginez. Pertsiar Golkoraino iritsi zenean, Sumer, lurralde osoa, menperatu zuen. Kanpaina hori burutu ondoren, testuek

diotenez, "armak itsasoan garbitu zituen", azalpen hori uler daiteke jainkoen ohorean sakrifizio moduan, edo ordainezko ekintza moduan.

Kanpaina horrek hain arrakasta handia izan zuen ezen Mesopotamia Behereko mugetatik kanpoko lurraldeen aurkako erasoak hasi zirela. Arlo horretan Sargon aitzindaria izan zen, Babiloniako hurrengo erregeek Sargonon urratsei jarraitu zieten beraien hedapen kanpainetan. Eufrates ibaitik iparralderantz hedatu zuen bere eragina, Mari zakuratu zuen. Siriako iparraldea konkistatu eta Tauroa menperatu zuen. Beharbada Anatoliara heldu zen. Tigrisen haranetik iparralderantz Subaru menperatu zuen, geroago Asiria izango zena. Sargonek bere hedapena Ekialdean bete zuen, Elam konkistatuz. Lehendabizikoz Estatu batek Ekialde eta Mendebaldeko herrien arteko komunikazio zuzena ezarri zuen.

Estatuaren luze-zabala eta erregetzaren kontzepzioak, erregeren titulaturaren aldaketak sorrarazi zituzten. Sargonek, hasieran Akadeko erregearen izena hartu zuen, titulu honi Kisheko erregearena erantsi zion, eta Lugalzagesi garaitu ondoren, Sumerreko erregearena. Garaipen hori lortu zuenetik aurrera bere boterea unibertsala izango zen, mundu osoa menperatzen zuelakoan zeuden, eta pentsamendu hori tituluetan ere islatzen zen. Sargonon tituluak honako hauek ziren:

- "Herriaren erregea,
- Enlilek etsairik eman ez diona,
- Enlilek Goiko Itsasoa (Mediterraneo) eta Beheko Itsasoa (Pertsiar Golkoa) eman dizkiona",
- "lau lurraldeetan zehar ibili dena"

Hala eta guztiz ere, lurralde konkistatuen mendean hartzea oso zaila zen euren luze-zabal eta aniztasunarengatik; erreboltak Sargonon erregealdian hasi ziren bere ondorengoekin etengabe jarraituz. Sargon Akadeko harresien aurrean setiatuta egon zen, irabazle irten bazen ere, bere ondorengoekin arazoak eta erreboltak indartu ziren.

Dinastia akadiarra

Sargonon semea zen Rimush akadtar dinastiako bigarren erregea izan zen. Aitaren erregealdiaren amaierako matxinada orokorreko egoera heredatu zuen, gogortasunez aurre egin ziona, errepresio odoltsua burutu zuen. Matxinada hau, lehenik, hiri bakan batzuen manifestazioekin agertu zen, Ur, Uruk, Umma, eta Kazallu kasu; ondoren, Elameko herri konfederazio baten aurkako gatazkarekin. Uste denez, bere erregealdian, Eblak, aurretik galdutako independentzia berreskuratu zuen.

Bere ondorengoa, Manishtushu, estatuari barneko antolakuntza ematen saiatu zen, estatuari kohesioa eman nahian. Arkeologia eta antropologiaren bitartez dakigu errege horren garaian lehenengo ezarkuntza hurritak sortu zirela Mesopotamia Garaian.

Laugarren erregea Naram-Sin izan zen, Manishtusuren semea. Politika militar aktiboa aurrera eraman zuen, Naram-Sinen gobernupean, Akadatar Inperioa bere garai gailenera iritsi zen. Haren erregealdia hogeit hamar mesopotamiar errege baino gehiagoren altxamenduarekin hasi zen. Naram-Sinek gogor garaitu zuen altxamendu hori. Hortik, aurrera, mundu ezagun guztia konkistatzera abiatu zen. Inperioaren mugak Elametik Mediterraneo Itsasorarte hedatu ziren. Burututako militar kanpaina zehaztea ezinezkoa da. Erregearen inskripzioen arabera Sirian (Alepo lurraldean), Tiro inguruko mediterraneo kostaldean, Asia Txikian eta Kurdistanen konkistak eman ziren. Indo haranekin tratuak izan eta Pertsiar Golkoko lurraldearen zati handi bat kontrolatu zuen. Tell Brak eta Ninive gune administratiboak eraiki zituen.

Inperioko lurralde ezberdinen kontrol eraginkor eta oso zentralizatua mantentzeko lehenago hasitako politikari ekin zion: senideak inperioko zenbait tenplu eta hiritan kargu erritual edo erlijiosoak betetzeko izendatu zituen baita gobernari gisa ere.

Naram-Sinen dokumentazioak dionez erregetzaren kontzepzioa indartzen saiatu zen. Bere burua jainko izendatu zuen. Bere jainkotasuna aldarrikatu zuen, horren seinaleak, Naram-Sinen tituluak: "Naram-Sin, gizon indartsua, Agadeko jainkoa, lau laurdenetako erregea"

Lau lurraldeetako errege eta unibertsoaren errege tituluak sinonimoak ziren. "Lau laurdenen erregea" (Mundu zibilizatua 4 lurraldeetan banatuta zegoen, hortik kanpo kaosa zegoen: -Sumer, Behe Mesopotamian; -Akad, Behe Mesopotamian baita; -Subartu, Goi Mesopotamian, Tigris ibaiaren bide ertainean eta -Amurru, Sirian).

Iparraldeko mendietako herriak etengabeko mehatxua ziren. Herri hauek haranetako ezarkuntzen kontrako erasoak egiten zituzten. Herri hauetariko batek, gutiek, inperioaren aurkako azken kolpea emango zuten. Gutiek mendietatik jaitsi eta Pertsiar Golkotik Taurora inbasioa garatu zen.

Egoera ekonomikoa ere gero eta txarragoa zen. "Akadeko madarikazioa" izeneko lan literario batean, hiriaren gainbehera Naram-Sinari leporatzen zaio. Errege hau Nipurereko santutegiaren aurkako sakrilegioaren errudun azaltzen du lan horrek, gertakizuna oso argi ez zegoen arren. Agian, Naram-Sinek, Ekurreko zenbait jainkoren estatuak eraman zituen. Horren ondorioz, Enlilek gutiak mendietatik irtenarazi zituen izurrite bat bailitzan bezala.

Iturri horrek sakrilegioaz gain egoera ekonomikoaren ezaugarri batzuk ere azaltzen ditu: nekazaritza produktibitatea gutxitu zen; prezioen igoera, iraupenerako krisiak etab.

Naram-Sinaren semeak, Shar-Kali-Sharrik, ondoko herrien presioari aurre egin arren, zirkulua gero eta itxiago bilakatzen zen. Inperioaren lurraldea nabarki gutxitu zen: Elamek independentzia lortu zuen baita Sumerreko hiri batzuk ere. Ondoko herrien presioa jasanezina bihurtu zen: gutiak garaitu zituen eta martu edo amorreoei aurre egin zien.

Dinastia anarkian bukatu zen. Azken kolpea gutiek eman zioten. Gutiek Akad suntsitu zuten eta Mesopotamia Behera eta Elam errautsi zituzten.

INPERIO AKADTARRAREN BALORAZIOA

Aldi akadtarrean Mesopotamiaren bilakaera historikoak dinamizazio nabaria jasan zuen. Inperio akadtarrak zibilizazio sumertarra bereganatu zuen, bere ekarpenekin aberastuz.

Etnia eta hizkuntza aldetik akadtarrak semitak ziren. Protodinastikotik Behe Mesopotamiako populazio semitak handitzen jarrai zuen. Ez zen akadtar inbasiorik izan, etengabeko desplazamenduak baizik. Migrazio handiak egon ziren. Mesopotamia Beherean geldikortasun bidean zeuden zenbait talde nomada ezarritako populazioarekin nahastu ziren. Hegoaldeko herrialdeek sumertar populazio nahiko homogeneoa izan omen zuten. Iparraldean, ordea, Diyalaren haranean ez dugu sumertar izenik aurkitzen. Sumertar eta semita dentsitate handiko aldean arteko muga Kish erresuma izan zen. Pixkanaka populazio semitaren garrantzia handitu zen. Sumertar errege batek nomaden artean biltzen zituen tropak. Lagasheko azken errege independenteen menpean izen semitak hiriko artxibo ekonomikoetan sarritan agertzen ziren.

Ez zen inolako oposiziorik sumertar eta elementu semiten artean izan Akaden.

Akadeko igoera Sumerreko hirien arteko borroken testuinguruan kokatu behar dugu. Aldaketa bakarra honako hau izango da: orain hegemonia lortzen duen hiria semita dela, eta ez sumertarra. Baina kultura bera da.

Akadeko erregeak bere burua sumertar tradizioen jarraitzaile azaltzen zuen, batez ere arlo erlijiosoan –erregearen boterearen oinarria zena–. Jainkorik inportanteena Enlil zen, sumertar panteoiaren jainko nagusia, eta jainko horren santutegirik garrantzitsuena Nippur-en zegoen.

AKADIAR ESTATUAREN ANTOLAMENDUA

Akadtar estatuaren oinarria erregetza zen. Sargonon garaian aldi protodinastikoan hasitako prozesu bat jarraitu zen: boterearen kontzentrazioa erregearen esku.

Inperio akadtarra bere baitan autonomiagatik borrokatzen ohituta zeuden hiri sumertarrak eta arraza eta kultur garapen maila desberdinetako herriak biltzen saiatu zen,

guzti hori Mesopotamian, non ez zegoen batasun geografikorik ere. Estatu horrek irauteko antolamendu sendoa behar zuen.

Inperioa sortu zenetik monarkia bateratua izango zen, herrialde desberdinetan politika bera ezartzea gertaera garrantzitsuenetariko bat izan zen. Baina inperioaren herri aniztasunak administrazio arazoak ere ekarri zituen.

Lorpen politikorik inportanteena hiri estatuen antolamendua gainditzea izan zen. Estatuaren kontzepzioa unibertsala izango zen.

Populazio semita gehiengoa den lurraldeak Agadeko gobernupean jarri ziren. Beste probintziek, Sumer eta Elam, beren erakundeak mantendu zituzten, baina boteretik gabe, itxuraz betiko agintariek boterea bazuten ere, benetan antzinako ensiak (erregeak) orain gobernadoreak besterik ez ziren; sistema hau minberatasun lokalak asetzeko aurpegi hutsa zen. Antzinako noblezia desagertu zen eta bere ordeztu, funtzionarioek osatzen zuten aristokrazia sortu zen. Antzinako noblezia funtzionarioen aristokraziak ordezkatu zuen.

Hainbeste interesi kalte egin zion ezen erreakzioa nahitaezkoa baitzen. Sargon eta bere ondorengoak noblezia sumertarraren interesen kontrakoak azaldu ziren. Honen ondorioa hirien joera separatisten birsortzea izan zen, Sargoneren erregealdiaren bukaeran matxinadak hasi ziren.

GARAPEN EKONOMIKOA

Akadtar inperioaren esanahi historikoa ongien azaltzen duen ikuspuntua ekonomikoa da. Hiri-estatuen kontzepzioa abandonatuz, akadtarrek horizonte berri zabalagoetan jarri zituzten euren interesak. Horien helbururik nagusia ez zen lurraldea batzea izan, baizik eta merkataritza sareen seguritatea lortzea. Merkataritza sare horiek Mesopotamia Behereko ongitasun ekonomikoa bermatzen zuten.

Bi ibaien haranetan falta ziren lehengaien hornizioa, hain zuzen egurra, harria eta metalak, lortzen saiatu zen estatu akadtarra, bai produkzio alderdiak zuzenki kontrolatuz bai merkataritza harremanak ezarriz.

Aberastasunaren sorkuntza eta banaketaren antzinako sistemak mantentzen baziren ere, berrikuntzak ere agertu ziren: tenpluaren ondoan, ekonomiaren animatzaile berriak ditugu, eta hauen artean erregea. Erregeak gero eta ondasun gehiago bereganatu zuen, batez ere lurrak, armada eta funtzionarioak mantentzeko beharrezkoak.

Pertsona pribatuek ere produkzio eta elkartrukeetan parte hartzen zuten. Lur-jabetza pribatua hedatu zen, errege, bere familia, jauregiko funtzionario eta partikularren artean.

Antza denez, Akadeko erregeek lurak sekulartzera jo zuten. Lurjabeen gehiengoa akadtarrak ziren baita zenbait sumertar ere.

Hirien etengabeko gorakada nabaria zen. Hirietako merkataritzak eta artisautzak indarra hartu zuten.

GUTIEN INBASIOA

Shar-Kali-Sharri hil ondoren, Mesopotamiak anarkia garaia bizi zuen. Barbaroen bat bateko sartzak Akadeko erregeek zapaldu zituzten mugimendu autonomistak askatu zituen.

Gutiek bideak moztu, soroetan lapurtu eta hiriak erre egin zituzten. Erregeren zerrendaren arabera 125 urtez erreinatu zuten. Bere boterea Akadeko inperioaren jarraitzaile azalduz zurriz saiatu ziren. Dena dela, "Lau lurraldeetako errege" titulua eskatu arren, asmo hutsean geratu zen.

Gutiekin sumertar hiriekin nolabait aktibatu ziren. Uruk hiriko lugalek, Utu-Hegalek, lurraldea askatu zuen, 2120. urtearen inguruan. Urukeko erregeak buruzagi gutia Tiriqan eraso, azpiratu eta preso hartu zuen. "Lau lurraldeetako errege" titulua hartu eta gero bere lurraldeetan ordena jartzen jardun zuen. Orduan sumertar hirietan kultur eta ekonomi gorakada azkarra eman zen. Urukeko V. dinastiak, Utu-Hegalek hasitakoak, denbora gutxiz iraungo zuen, 2112. urtearen aldera, Urko gobernadoreak, Ur-Nammuk erregetza kendu zion, bere burua Sumer eta Akadeko errege aldarrikatuz.

Ur-ko III. Dinastia: birbateratze prozesua eta inperioa. (K.a. 2112-2004)

Gutien menpekotasunean hiri sumertar gehienak askeak ziren eta nolabaiteko goraldia bizi izan zuten. 2120. urte inguruan, Utu-Hegal, Uruk-eko *lugala*, gutien kontra altxatu zen. Utu-Hegalek Behe Mesopotamia osoa konkistatu eta Uruk-eko, V. dinastia ezarri zuen. Dinastia horrek denbora gutxi iraungo zuen ordea, zeren eta 2112. urte aldera Ur-Nammu-k, Ur-ko gobernadoreak, erregetza kendu zion.

2112an Ur-Nammu, Sumer eta Akadeko erregea izendatu zuten, Ur hiriko III dinastia sortuz. Dinastia horrekin Mesopotamiako garairik esanguratsuenetako bat hasi zen.

Ur-Nammuk eta bere ondorengoek Akadeko inperioaren zati bat berreraiki ez ezik, lurralde horri mende bateko bakea eman zioten, eta bakearekin, ospe eta aberastasuna, haren hizkuntzari lehentasuna emanez eta sumertar kulturaren berpiztearen aldekoak izanez.

Garai horretako erregerik garrantzitsuenak hauek izan ziren: Ur-Nammu, Shulgi eta Amar-Sin.

Ur-Nammu

Hemezortzi urtetako erregealdi baketsua izan zuen. Erregeak zenbait ekintza burutu zituen:

-Ordena berreraiki.

-Saindutegiak berriztatu.

-Tenplu ugari eraiki edo berreraiki zigurat izenekoak ezarriz (Ur, Uruk...), hau da, piramide mailakatuak, Mesopotamiako aztarnategi askotako bereizitasun nagusienetakoak.

-Hiriak harresiz inguratu.

-Laborantzaren garapena bultzatu, ikaragarritzko ubideak eraikiz eta ondorioz merkatalgoa garatuz.

-Justizia sentimenduaz iradokiz, kode bat promulgatu zuen, ekonomi eta gizarte harremanak erregula arazteko. Ekonomi arloan pisu eta bolumenaren neurriak finkatu zituen. Gizarteari dagokionez, alargun, umezurtz eta pobreak babesteko legeak ezarri zituen. Zenbait

krimen ez ziren Hammurabi-ren kodearekin bezala zigortuko, hau da, hilketa edo mutilazioaren bidez, baizik eta diru ordainketa baten bidez.

-Administrazio zentralizatuaren sistema berri eta eraginkorraren oinarriak jarri zituen. Orain hiriak probintzietako gobernadoreen autoritatearen menpean gelditzen ziren, erregeak izendatutakoak hain zuzen. Nahiz eta ensi titulua jarraitu, aurretik izan zuten autonomia galdu zuten.

-Ur-Nammu ez zen "Lau lurraldeetako erregea" tituluz jabetu, abentura militar handinahietan sartu nahi ez zuelako. Dena den kanpo merkataritza bere kontrolpean jartzea lortu zuen.

Shulgi

Shulgi (2095-2048) Ur-Nammuren semea eta ondorengoa. "Lau lurraldeetako erregea" izena hartu zuen. Bere erregealdia bi zatitan bana dezakegu:

-lehenengoaren ezaugarriak garrantzitsuena administrazioaren lana izan zen. Erresumaren antolaketa politiko, militar eta administratiboa burutuz.

-bigarren aldia bere erregealdiaren 24. urtetik aurrera koka daiteke. Aldi horretan herriarteko politikak eragin handia izan zuen. Ur-ko III. dinastiaren kontrako gatazkak sortu ziren, batez ere Elamen, eta hau izan zen arazorik larriena.

Shulgi-k harresi defendatzaile ikaragarri bat eraiki zuen ipar-mendebaldean.

Bestalde, letragizon handia izan zen. Ur eta Nippur-eko eskriba eskolak fundatu zituen eta hauei esker kontserbatu dira hainbat sumertar literatur lan.

Amar-Sin

Aurrekoaren semea, 9 urtez izan zen buru. Ur-Nammu, Shulgi eta Amar-Sinekin ezagutu zuen Sumerreko inperioak garairik oparoena.

Shu-Sin

Ezkontza komenigarrien politikari jarraitu zion, alaba herrialde bateko buruarekin ezkonduz.

Bestalde, mendebaldeko mugako harresien lanak jarraitu zituen eta berari leporatzen zitzaion amorreoak edo marduak kanporatzearen meritua.

Aipaturiko harresia edo Martu-en hormak, 275 kilometrotako luzera zeukan eta ur lubakiz inguratua zegoen, Tigris eta Eufrates lotzen zituen, gaur egungo Bagdad hiriko iparraldeko tokiren batetik.

Martu (sumeriaeraz) eta Amurru (akadieraz) sinonimoak dira, izen hauek bai aberri bai herria azaltzeko erabiltzen dira. Hauen lurraldea Erdiko Eufrates-etik mendebaldera doana izango litzateke, Mediterraneoraino.

Lurralde honetan bizi zirenak amorritak edo amorreoak deiturikoak, mendebaldeko hizkuntza semita hitz egiten zuten. Ur-ko III. dinastiaren garaian, amorriten tribuak bitan banatzen ziren: batzuk Siria erdialdean ezarri ziren, geldikor bihurtuz eta garai honetan zabaltze unea ezagutu zuten; besteak, berriz, nomadak ziren, Palmira eta Mari bitarteko basamortuan ibiltzen zirenak, Eufrates sarritan gurutzatzen zuten.

Ibbi-Sin

Shu-Sinen heriotzaren ondoren, bere semeak jarraitu zuen; orduan eman zitzaion hasiera erregealdi luze eta zoritxar bati. Errege honekin suertatuko zen dinastiaren gainbehera. Hau izan zen Sumerreko amaiera.

- Azken erregea: Ibbi-Sin, Shu-Sinen semea, berarekin dinastiaren gainbehera.
- Bere erregealdian mendebaldeko mugan amorreok bideak moztu eta uztak suntsitu zituzten → inperioaren erdiguneko hirietan gosete handia → matxinadak sortuz.
- Egoera larri horretan, Urko erregeak mugetako eskualdeak Mari-ren gobernadorea zen Ishbi-Erra-ren eskuetan utzi zituen.
- Elamiarrek erregea gainditu ondoren, Ishbi-Erra inperioaren kontra altxatu zen, Isin-en bere dinastia fundatuz.
- 2004. urte inguruan Ur hiriak berak Zagros-etako nomaden erasoaren pairatu zuen, hiri txikitu zuten tenpluak arpilatu eta etxeak suntsituz.

Inperioaren mugak: Ur-ko erregeek menperatu zuten lurraldea Akadeko inperioak zuena bezain handia izan zen. Lurralde horretan Mesopotamiaz gain, Transtigraniako herrialde guztiak Elam-eraino sartzen ziren. Mendebaldeko hiri batzuk ere onartu zuten Ur-ko

aginpidea, esate baterako Ebla, Mari eta Tuttul. Ezinezkoa da mugak zehazki ezagutzea, baina orokorki lurralde barnean hiru alde bereiz ditzakegu:

1.- periferian zeuden herriak libreak ziren baina Ur-ko erregearekin hitzarmenak sinatzen zituztenez, Ur-ko eraginaren menpean zeuden.

2.- Beste lurralde batzuk, gertuago zeudenak, gobernadore zibil edo militar baten menpean zeuden. Gobernadore hori, normalean bertan jaiotakoa zen.

3.- Inperioaren bihotzean (Sumer, Akkad eta Diyalaren haranean) aurreko lurraldeko unitateek irauten zuten, baina aurreko printzerriak probintzia bihurtu ziren. Ur-ko lugal besterik ez zegoen eta ensiak lurraldeko administrari bihurtu ziren, erregeak izendatutakoak.

Probintzia bakoitzean boterea bi pertsonen eskuetan zegoen, *ensi* eta *shagin*-en eskuetan hain zuzen ere. Lehenengoa agintari zibil inportanteena zen, bigarrena, berriz, agintari militar gorena, baina askotan elkarrekin lan egiten zuten.

Ensi-ek, izen hori izan arren, ez zuten antzinako hirietako erregeek zuten boterea. Funtzionario hutsak ziren, erregeak izendatutakoak eta, noizbait, ensi bat baino gehiago zegoen lurralde berean.

Kargu horiek errendatzen ziren. Karguak betetzen zituzten agintariak dirua berreskuratzen zuten zergak kobratzean.

Beraien eginkizunak hauek ziren:

- zergak kobratu
- errege eta jainkoentzako opariak jaso
- menpeko funtzionarioen mantenuaz arduratu
- negozioez arduratu
- auzitegien buru izan.

Botere zibil edo militarren arteko ezberdintasunak ez ziren handiak. Esan bezala askotan bi mota hauetako funtzionarioek elkarrekin lan egiten zuten.

Kargu horiek, gehienetan, aberasbideak besterik ez ziren. Hori zela eta, teorian, diruaren truke edonork lor bazitzakeen ere praktikan familia gutxi batzuen esku gelditu ziren, funtzionario-oligarkia sortuz.

Funtzionario horietaz gain menpeko funtzionario asko zeuden. Funtzionario horiei tenpluek edo jauregiak lur sailak ematen zizkieten bere mantenurako. Gauzaz ere ordaintzen zieten horien karguaren arabera.

Garai hartako administrazioaren ezaugarriak nagusiena zentralizazioa zela esan behar dugu. Urreko erregeek administrazioaren zentralizazioa indartu zuten, inperio osoa bere kontrolpean izaten saiatuz. Horretarako funtzionario berezi batzuk agertu ziren *sukkal* izenekoak. Orokorki esan dezakegu informazio eta segurtasunaren zerbitzuez arduratzen zirela. Horien burua erregearen kantzalaria zen, *sukkalmah*-a, honek administrazioaren lekurik inportanteena zuen, erregearen menpean zuzenki zegoelarik.

Urreko III. dinastiaren erakunde bereizgarrietariko bat *bala* zen, sistema honen bidez Sumer eta Akadeko ensi bakoitzak, txandaka, estatuari zerga berezi bat ordaintzen zion, normalean abereak (behiak edo ardiak) ematen zituzten. Beste probintziek ere, urrunago zeudenek, zerga beharra zuten, *gun* izeneko zerga ordainduz.

Zerga horien guztien kontabilitate zehatza egiten zuten jauregiko eskribek, hain zuzen gure informazio iturririk inportanteena agiri hauek ditugularik.

Ekonomia eta gizartea

Jainko garrantzitsuena *Enlil* zen. Bera jabetza guztien burua zen, erregeak, jainkoaren ordezkaria zenez, gauza eta lur guztien usufruktua zuelarik. Jauregiak zerga eta opari anitz jasotzen zituen, erregearen familia eta gortearen mantentzeko adina. Zerga horiek lan publikoak egiteko ere erabiltzen ziren: tenpluak, ubideak, etab., inperio osoan zehar.

Aurreko garaian bezala, zereal-lurren administrazioa tenpluek zuten eta jabetza horien antolaketa ez zen apenas aldatu, Akadeko inperioarena bezalakoa zen.

Eskulan eta lantegiei dagokionez, gauza bera esan behar dugu.

Merkataritzari dagokionez, estatuaren esku zegoela esan beharra dugu. Merkataritza jarduera nabarki garatu zen. Inportazio gehiena luxuzko gauzak ziren, jauregiak atzerrian erosten zituen, inportazioak gauzaz ordaintzen zirelarik. Jauregiak inportazioak ordaintzeko kapitala jartzen zuten. Merkatariak *damgar* izenekoak jauregiko funtzionario hutsak ziren.

Gizarte mesopotamiarraren barnean, betidanik, bi motatako pertsonak bereizi dira: libreak eta esklaboak. Hala ere, denbora pasatzen den neurrian, gizartea gero eta konplexuagoa egiten da, talde sozial berri batzuk agertuz.

Ur-ko III. dinastiaren garaian libreen artean ezberdintasunak sortu ziren, talde sozial berriak agertuz. Legezko agirietan *mashda* (hitz sumeriarra) edo *mushkenun* -ak (hitz akadtarra) aipatzen ziren. Hauek libreak ziren baina ez zituzten eskubide guztiak. Esan dezakegu herri apala zela, horien gainetik dirutsuak zeuden, azken hauek eskubide eta betebeharrak gehiago zituzten.

Bazeuden beste pertsona batzuk estatus juridikorik gabekoak, *eren* zirelakoak. Talde horretan bai libre bai esklaboak nahasten ziren. Jauregi edo tenpluetarako lan egiten zuten, lan ezberdinetan: nekazaritzan, garraioetan, gudako zerbitzuetan etab. Gizon horiek *shagin* edo *ensi* baten menpean zeuden eta ezin ziren beste leku batera joan bere baimenik gabe.

Esklabotasunari dagokionez, jatorri ezberdinak zituen:

-gaizkileei jartzen zitzaizkien zigorra.

-Dirurik eza. Askotan pertsona batek bere burua edo bere seme-alabak esklabu saltzen zituen arrazoi horrengatik. Dirudienez hauek ziren agiri idatzietan *ir* (*wardum*) edo *geme* (*amtum*) bezala agertzen zirenak. Beraien egoera ez zen batere txarra. Lursailetan edo etxean lan egiten zuten. Estatus juridikoa zuten, hau da, pertsona libreekin ezkon zitezkeen, ondasunak eduki zitzaizkien eta auzietan ager zitezkeen.

-Hirugarren iturria guda zen. Gerla atxilotuak, *namra* izenekoak, egiazko esklaboak ziren. Ez zuten estatus juridikorik eta lan gogorrenak egiten zituzten. Hauek ziren *eren* multzoak betetzen zituztenak.

P. Garelli-ren ustez, garai honetako gizartea ulertzeko irizpide ekonomikoak erabili behar ditugu eta ez legezkoak edo juridikoak, zeren eta askotan esklaboak bere egoera ekonomikoaren arabera, askeak baino hobeto bizi ziren, nahiz eta legezko eskubiderik ez izan.

Beraz piramide sozialaren osagarri elementu hauek ditugu: buruan erregea, honen menpean funtzioaren aristokrazia eta, jakina, honen barru apaizak, eta oinarrian herria edo diru gutxi zutenak, libre eta esklaboak nahasturik.

Asiriarrak Kapadozian

Urko inperioa desagertzean Mesopotamia Garaiko hiriek berriz independentzia lortu zuten. Haien artean *ASSUR* aipatu behar dugu, K.a. II. milakadaren hasieran (K.a. 1950) erreinu txiki bat osatu zuena. Assur hiria gune garrantzitsua zen, Mesopotamiako behealde eta goialdea batzen zituen bidea kontrolatzen zuena, hain zuzen. K.a. XIX. mendean Antzinako Inperioa Asiriarra bilakatu zen, Shamsi-Adad I. erregerik inportantena zelarik. Assur-en, Babilonian bezala, estatu zentralizatua aurkitzen dugu. Erreina, probintzietan banatuta zegoen, probintzi bakoitzean gobernadore bat zegoelarik.

Assur-eko Antzinako Inperioan ere beste lurraldeekiko harremanak ezinbestekoak ziren, eta konkretuki merkataritza harremanak. Kasu honetan Asiriarrak gehien interesatzen zitzaizkien lurraldea Anatolia zen, batez ere Kapadozia izeneko lurraldea, oso aberatsa, baketsu eta segurua zelako. K.a. 1910ean Kapadozian hainbat kolonia edo hiri asiriarrak ezarrita aurkitzen ditugu. Kanish Kapadoziako asiriarrak hiriburua izan zen, K.a. 1830ean etsai ezezagun batek suntsitu arte.

K.a. XIX. mendean Anatolian herri desberdinak bizi ziren: indoeuropar hititak, nesitik eta luvitak, eta bertako hurritak edo protohititak. Herri hauek printzerrietan antolatuta zeuden, zeinek Asiriarrak merkatariekiko lotura estua baitzuten. Iturriak: Kapadozian K.a. XIX. mendean jardun zuten merkatariekiko asiriarrak artxibo ekonomiko eta juridikoak dira, hots, taulatxo kuneiforme kapadoziarrak.

Erakunde asiriarrak

Merkatariak *karum* izeneko erakunde baten pean zeuden. Karum hitzaren esanahia "Portua" da, zentzu zabal batean ulertuta, hau da, merkaturia eta bere eraikin ofizialak. Bulego nagusia, *bit Karim*-a, portuko etxea dugu. Karumak era askotako funtzioak zituen:

*inportazio eta esportaziorako lekua zen, biltegi nagusiz hornitua zegoelarik.

*banketxe, merkataritza ganbara eta konpentsazio-ganbara zen.

*zerga biltze tokia, non bidesaria eta kontsignatze zergak ordaindu behar izaten zituzten.

*konpetentzia judizialak ere bazituen, bertan konpontzen baitziren merkatarien arteko auziak.

Karum garrantzitsuena Kanishekoa zen. Anatolia Erdiko hiri garrantzitsu guztietan antzeko karumak kokatzen ziren, Kanish-eko bulego nagusipean zeudenak. Garrantzi gutxiagoko lekuetan bigarren mailako agentziak zeuden, *wabaratum* izenekoak, karum lokalen menpean zeudenak. Wabaratum izeneko agentziek karumaren antzeko papera bete behar zuten.

Karumak bere estatutu, asanblada orokorra eta kontseilu murriztua zuen, horretaz gain, karum-ean bertan Assureko funtzionario bat, ahalguztiduna, bizi zen.

Kanish-eko karuma ez zen erakunde libre bat baizik eta Assur-eko agintarien menpean zegoen. Assurreko agintari hauek Bit-alim deiturikoak, hiri-etxean, zuten egoitza. Udaletxe hau batzuetan "eponimoen etxea" bezala izendatua izan ohi zen. Kanisheko karumeko nagusien izena ezagutzen ditugu eta badakigu eponimoak zirela. Horrek suposatzen du bai Asirian bai Asia Txikian arazoan gidaritza eponimoek zeramatela. Eponimoek erregearen ondoan Assur hiriko botere exekutiboa ordezkatzeko zuten. Honez gain, agureen batzarrak ziren, eskuduntza judizial eta legegintzakoak ere zituztelarik.

Aipagarria da eponimoek eduki zuten jarrera eraginkorra Kapadoziako merkataritzan. Kapitala aurreratzen zuten, prezioak erregulatzen zituzten, korrituen ehunekoak ezartzen zituzten eta esportazioak eta karabanen martxa kontrolatzen zituzten. Askotan horien jardura pribatu eta publikoak ezin dira bereizi, nahiko nahasturik zeuden eta. Finantza publiko eta pribatuen arteko muga zehaztugabe xamarra zen. Assur-eko erregeak gehiago zirudien merkataria aberatsa, erregea baino.

Merkataritzaren prozedura hiru eratako oinarritzko testuetan, beren azpimotekin, zehazten da.

1) Lehenengoak Kanish-en bizi zen merkataria eta garraiolariaren arteko kontratua ezartzen zuen. Kontratu honetan hurrengo elementuak azaltzen ziren: merkataria garraiolariari ematen zion zilar kopurua; merkataria ordezkarien izena Assuren (honen ondoan emandako kopurua agertuko zen); eta, azkenik, garraiolariaren konpromisoa jatorrizko kantitatearekin erositako ondasunekin Kanish-era itzultzeko.

Baina merkataria, batez ere goi-mailakoa baldin bazen, askotan ez zen garraiolariarekiko negoziaketaz zuzenki arduratzen, baizik eta antolakuntza osoa beti Kanish-ekoa zen espedizionario baten esku uzten zuen. Kasu honetan kontratuaren azpimotak izango ditugu:

–bata merkataria eta espedizionarioaren artekoa eta

–bestea espedizionario eta garraiolariaren artekoa, behar den moduan idatzita.

2) Bigarren testu mota merkataria Assurreko ordezkariari idatzitako gutuna da. Gutun horrek era desberdinetako funtzioak zituen:

–garraiolariaren aurkezpena ordezkarien aurrean;

–emandako kopuruaren kontrola;

–jasotako kantitatea inbertitzeko aginduak, nola gastatu behar zen (normalean erdia oihalean eta beste erdia eztainua erostean).

3) Hirugarren testua Assurreko ordezkariak Kanish-eko merkataria idatzitako gutuna da, hor merkataritza ekintzen zenbaketa agertzen da. Gutun hau merkantziarekin batera garraiolariak eramaten zuen.

Salgaiei dagokienez, asiriarrak Anatoliara ehunak eta eztainua esportatzen zituzten zilar eta urrearen truke. Eskuarki posibleak salgai berberetan inbertitzen zituzten berriro. Beraz esportazio merkataritza zen, horren helburua mozkin ateratzea zelarik.

Garai horretan zilarra ekonomi arloan erabilpen desberdinak zituen: alde batetik pilatzen zuten ondasuna zen, bestalde ordainketak zilarrez egiten ziren eta, azkenik, beste salgai batzuk balioztatzeke erabiltzen zuten erreferentzia zen. Asiriarentzat, dudarik gabe, zilarra irabazi segurua zen zeren eta horren truke edozein salgai eros zitekeen.

Bestalde, zilarra Anatoliako esportazio tipikoa da, Anatolian zilarrezko meatokiak ugari ziren. Eskualde horrek Ekialde Hurbil osoa hornitzen zuen zilarraz. Gainera metal horren balioa handitzen zen Anatoliako mugetatik kanpo.

Eztainua meseta irandarretik zetorren, Shemshara, Eshnunna eta Elametik sartuz. Assur bitartekoa baino ez zen.

Brontzea egiteko beharrezkoa zen beste osagaiak, kobreak, ez zuen ia garrantzirik merkataritza paleoasiriarran Kapadozian.

Azkenik ehunak Asirian bertan egiten zituzten edo kanpotik ekarri eta berriro esportatzen zituzten, azken kasuan Babiloniatik ekartzen zituzten. Oihal babiloniarrek asiriarrak baino kalitate hobea zuten. Dena den, merkataritza anatoliarrean erabiltzen zituzten ehun gehiena Assurren bertan egiten ziren, normalean merkataritzan jarduten zuten familiek egindakoak zirelarik. Merkatarrien emazteak ehungintzan aritzen ziren, askotan lan-esku ugari zuten tailerrak zuzentzen zituzten. Assurreko biztanle kopuru handia merkataritza eta ehungintzatik bizi zen. Azken hau merkataritzari esker garatu zen.

Merkataritza jarduerarako asto-taldeak erabiltzen zituzten. Zamaketariak beti asto kopuru txikia zeraman, baina askotan zamaketari batzuk elkarrekin bidaiatzen zuten, karabana handiagoak eratuz.

Seguru aski urtean behin bidaiatzen zuten, Tauroko mendi-portuak neguan ixten baitziren. Ibilbideak orografiak markatzen zituen (mendikateetan batez ere), baina bide alternatiboak eta saihezbideak ere zeuden. Ibilbide alternatibo horietan salgaiak saldu zitezaketen bidaiari zehar.

Salmenta eta erosketaren arteko konparaketak erakusten digu emaitza ugari jasotzen ahalegintzen zirela, % 100a, eta nolabait zergen zati bat Assur-eko altxorra osatzeko izaten zen. Horrela Kapadoziako merkataritza diru sarrera garrantzitsua bilakatuko zen herri osoarentzat.

UR-EN GAINBEHERA ETA BESTE ESTATU BATZUEN GORAKADA. HAMURABI-REN ERRESUMA

UR HIRIAREN GAINBEHERA ETA BESTE ESTATU BATZUEN GORAKADA

Urko III. Dinastiaren azken erregea IBBI-SIN izan zen, berarekin dinastia desagertu zen. K.a. 2000. urte inguruan amoritarrek, elamitarrek eta Zagrosetik etorritako herri batek, SU izenekoak, Ur-ko inperioa desegin zuten, aldi historiko berri bati hasiera emanez, Aldi Paleobabilonikoari hain zuzen ere (K.a. 2000-1595). Aldi honek lau mendez iraun zuen, Urko dinastia erori zenetik hititek edo hatiarrek Babilonia konkistatu arte (K.a.1595).

Aldi hori bi zatitan bana dezakegu:

1. Lehenengoak 100 urtez, gutxi gora behera, iraun zuen. Hasieran Mesopotamia Beherean Isin hiriak mantendu zuen hegemonia, geroago Sumer eta Akkad-en gaineko hegemonia lortzeko Larsaren kontra borrokatu zuen. Hori gertatzen zen bitartean, Printzerri amoritarrek, zenbait lekutan, indarra hartzen hasi ziren, hala nola Babilonian.

Aldi berean, Mesopotamia Garaian Mari, Eshnunna eta Asur-eko erregeak merkataritza bide nagusiak menperatzeagatik borrokatzen ari ziren.

2. Bigarren aldia Babiloniako I dinastiaren garaia izango zen, K.a. 1894 urte inguruan sortu zelarik. Erregerik inportanteena Hammurabi izan zen (K.a. 1792-1750). Bai indarra bai diplomazia erabiliz, urte gutxi barru Mesopotamia osoaz jabetu zen, bigarren inperio semita eraikiz, Hammurabiren ondorengoen erregealdietan bilakatuko zena.

BABILONIA HAMMURABIREN MENPEAN

Babilonia Ur-ko III. dinastiaren garaian probintzia bat baino ez zen. Hammurabi Babiloniako I. dinastiaren 6. erregea izan zen. Tronora iritsi zenean, Babilonia estatu txiki bat zen. Aurreko erregeak batez ere barne politikaz arduratu ziren, ez Babiloniako lurraldea handitzeaz.

Garai horretan Mesopotamia guztiz bananduta zegoen, hiru mendeetako borroka bibibizian jarraitzen zuen. Hori zela eta, Hammurabiren lorpenik garrantzitsuena Mesopotamia batzea izango zen, bere kontrolpean erresuma amorritak, akadtarrak eta sumertarrak ezarriz.

Hammurabiren erregealdi luze horretan zibilizazio sumertar-akadtarrak hedatzerik handiena lortu zuen, K.a. II. milakadan.

ADMINISTRAZIOA ETA EKONOMIA

Administrazio eta ekonomiaren antolakuntza ezagutzeko informazio iturriak Mari eta Sippar-eko artxiboak, Hammurabiren gutunak eta horren lege kodea izango dira.

ADMINISTRAZIOA

Ur-ko III. dinastiak ezarritako probintzia-sistema II. milakadaren hasieran desagertu zen. Babiloniak konkistatu arte, Mesopotamia hiri bat besterik ez zuten kontrolatzen hainbat printzerritan bananduta zegoen. Hammurabi administrazioa ezartzerakoan existitzen ziren erakundeez baliatu zen, tenplua eta hiriaz, hain zuzen ere, hala ere, hiriaren administrazioak besteak baino garrantzi handiagoa zuen.

Hiriaren administrazioaren funtzioen artean hiru hauek azpimarratu behar ditugu:

–Hiriaren segurtasuna.

–Justizia.

–Zergak kobratzea.

Administrazio horren kargu nagusiak honako hauek ziren:

-alkatea, *RABIANUH*, eta, batzuetan, bere laguntzaileak ziren beste alkate batzuk.

-agureen batzarra, *PUHRUM*, auzitegi moduan funtzionatzen zena.

-merkatari aberatsenak, 'merkatal kamara' (*KARUM*-a), osatzen zutenak.

-zenbait udal funtzionario.

Hammurabik antolakuntza hori mantendu zuen baina hainbat aldaketa egin zuen boterea bere esku zentralizatu nahian:

1) Hiri garrantzitsu bakoitzean gobernadore bat edo erregearen menpean zuzenki zeuden funtzionario talde txiki bat izendatu zuen. Funtzionario horiek erregearen jabegoak administratu behar zituzten; erregearen aginduak bete erazi zieten eta herrialdearen hornitzeaz arduratzen ziren, nekazaritza, abeltzaintza, arrantza eta ureztapena kontrolatuz.

2) Hiri bakoitzean goarnizio militar bat ezarri zuen, soldadu profesionalez eta mertzenarioz osaturikoa. Bere xedeak honako hauek ziren:

* matxinadak zapaltzea,

* erregeari guduan laguntza ematea eta

* herri lanak (lan publikoak) egiteko jendea bilatzea.

3) Hammurabik bere erregealdiaren erdi aldera zentralizazioa burutu zuen, tenpluen epaileak bere kontrolpean jarri. Handik aurrera epaile horiek ez zuten 'jainkoaren zerbitzari' izena izango, 'Hammurabiren zerbitzari' izena baizik.

4) Barneko eta kanpoko merkataritzari indarra emateko asmoz, KARUM izeneko taldeari botere zibil eta judizial handiagoa eman zizkion. Talde hori funtzionario baten bitartez kontrolatzen zuen, WAKIL TAMKARI izenekoaren bitartez hain zuzen ere. Funtzionario hori aldi berean merkatarien inspektorea eta erregearen ordezkaria zen, merkatariei zergak kobratzen zizkielarik.

Merkataritzaren elementurik inportanteenak TAMKARUM izeneko pertsonaiak ziren. Tamkarumak prestatzaileak ere ziren eta batzuetan funtzio honetan merkataritzan baino garrantzi handiagoa zuten. Kasu batzuetan merkatariek beraiek egiten zituzten bidaiak, beste batzuetan, berriz, haien ordezkariak egiten zituzten inportazioak.

EKONOMIA

Garai horretako agiriak aztertu ondoen, historialariek pentsatzen dute, ekonomiari dagokionez, garai horren ezaugarri nagusietariko bat jabetze eta merkataritza pribatuen gehitzea dela. Hammurabi-ren erregealdian aurreko aldietan baino ekonomia askoz irekiagoa zen, jabetze pribatuak askoz ugariagoak izaten ziren. Ekonomia hobetzeko asmoz, erregeak erregealdiaren hasieran justiziaren dekretu bat argitaratzen zuen zordunen egoera hobetzeko. Honen bitartez aurreko erregealdian estatuari edo pertsona pribatuei zor zieten lagunei beraien zorren zati bat barkatzen zitzairen.

Lur jabetzari dagokionez, lur jabetza errege, tenplu eta pertsona pribatuen artean banatzen zen. Azken hauek nahi zuten moduan erabil zezaketen lurra, baina ureztapena eta ubideen mantentzea estatuari zegozkion. Estatuak berak antolatzen zituen beharrezko lanak eta ureztatze sistemari kalte egiten ziotenei izugarritzko zigorrak jartzen zitzaizkien.

Batzuetan lur-jabe pribatuek lurra alokatzen zuten, 3 urtetako alokatzea zen eta hirugarren urtean ordaintzen zuten errenta. Errekurtso gutxiko lur-jabeek beraiek lantzen zuten lurra, familiaren laguntzaz, normalean. Askotan zorrak ez ordaintzeagatik jabetza galtzen zuten, lur-kontzentrazioa gero eta handiagoa egiten zelarik.

Administrazioaren artxiboen bidez eta Hammurabi eta probintzietako gobernadoreen arteko gutunen bitartez, estatuaren lurrak, erregeren lurrak hain zuzen, lau motatako pertsonak lantzen zituztela jakin dezakegu.

1. Lehenengoak errenta ordaintzen zutenak ziren. Horien lurrak ez ziren oso onak eta batzuetan ez zuten behar zuten beste ura, ureztatze sistema arazoengatik. Kasu horietan nolabaiteko segurtasuna ematen zien erregeak, lur sail hobeak emanaz edo errenta jaitsiz.

2. Bigarrenak kolonoak ziren. Erregeak lurrak lantzeko behar zituzten gauzak ematen zizkien, zerga baten truke, uztaren zati baten truke hain zuzen.

3. Hirugarren motakoek zerbitzurako gizonak zuten izena. Jauregirako egiten zituzten lanak lur sail txiki bat emanaz ordaintzen zitzaizkien. Hauek uzta osoa jasotzen zuten eta ez zuten zergarik ordaindu behar.

4. Azkenik, ilku izeneko erakundea aipatu behar dugu. Erakunde horrek garai horretako ekonomian izugarritzko garrantzia izan zuen. Ilkua, lur banaketarekin lotuta zegoen. Jauregiak zenbait lan zibil edo militar ordaintzeko lursailak estatuaren funtzionario batzuei ematen zizkien. Lur sailak bai pertsona bati bai talde bati ematen zitzaizkien, eta pertsona batek ilku bat baino gehiago izan zitezkeen. Ilkuan lur-sailak ez-ezik etxebizitza eta abereak ere sartzen ziren. Benefizio izeneko hori usufruktuan ematen zen, ilkua jasotzen zutenek ez zuten hori saltzerik, salbuespenak egon arren, baina bai seme-alabei ematen zien, hau da oinordetzakoa zen. Hammurabiren kodearen 27, 28 eta 38. artikulua:

"Si un oficial o un especialista militar ha sido hecho prisionero mientras servía las armas del rey, durante su ausencia se dará su campo y su huerto a otro que cumplirá con las obligaciones del feudo; si regresa y vuelve a su ciudad, le serán devueltos su campo y su huerto y será él quien cumpla las obligaciones del feudo.

Si un oficial o un especialista militar ha sido hecho prisionero mientras servía las armas del rey y su hijo es capaz de cumplir las obligaciones del feudo, le serán entregados el campo y el huerto y él cuidará de las obligaciones de su padre.

Si un señor ha comprado el campo, el huerto o la casa de un oficial, de un especialista militar o de un recaudador de impuestos, su contrato será roto y perderá su plata. Campo, huerto o casa volverán a su dueño."

Hammurabiren kodeak ilkua izan zezaketen kategoria sozial ezberdinak aipatzen ditu:

-Lehenengoa REDUMa zen. Hitz hau soldadu bezala itzuli dezakegu. Berez ez ziren soldadu profesionalak, nekazariak baizik, zeintzuk erregeak behar zuenean polizia funtzioak eta funtzio militarrek betetzen zituzten. Redum-ek ezin zuten ilkua saldu, baina euren semeak har zezaketen aitaren ilkua.

-TAMKARUM-ek ere jasotzen zituzten ilkua, eta kasu honetan lur sailak sal zitzaketen, ilkuaren erosleak lur-sailaren betebeharrak betetzen bazituen, hau da, erregeari zerbitzu berdinak ematen bazizkion.

HAMMURABIREN IHARDUERA ARLO JURIDIKOAN

Hammurabik. lehenagoko legeak berrikusi zituen akatsak zuzentzeko eta falta ziren artikulua sartzeko. Arlo honetan aldaketa handirik ez egin arren, izugarritzko garrantzia izan zuen bi arrazoirengatik:

–aurreko legislazioak batu zituelako

–lege-kodea inperio osoan ezarri zuelako.

Hammurabik egindako berrikusketa hain inportantea izan zen, ezen bere lege bilduma eredu bihurtu zen, eta ez jurisprudentziaren arloan bakarrik baizik eta hizkuntza eta literaturan ere.

GIZARTE ANTOLAKUNTZA

Gizarte antolakuntzan egin behar dugun lehenengo banaketa 'estatuto juridikoa' dutenen eta ez dutenen artekoa da. Lehenengo taldeari dagokionez, Babiloniako biztanleria hiru taldetan banatzen zen:

1) *AWILUM* edo *AWELUM*ak, kategoria sozialik altuena zuten, talderik pribilegiatuena zen, “lasaitasunez bizi zirenak”.

2) *MUSHKENUM*ak, herria, kategoria apalago bat osatzen zutenak.

3) *WARDUM* izeneko esklaboak

Talde bakoitzak eskubide eta betebeharrak ezberdinak zituen, eskubide banaketa proportzionalki egiten zen, hau da, hainbat eta gorago piramide sozialean gero eta eskubide eta betebeharrak gehiago.

AWELUM-ak gizaki libreak ziren, ez ziren inoren menpe bizi eta gizartean lekurik gorena betetzen zuten. Beraz, talde menderatzailea osatzen zuten. Politika, erlijio, militar eta ekonomi arloko arduradun postuak betetzen zituzten. Awelumak ere mailakaturik zeuden:

-goi mailan erregea, bere familia ugaria, gortea, funtzionario zibil, erlijioso eta militarrek zeuden.

-Haien azpitik lurjabe handi, artisau eta merkatariak koka ditzakegu.

-eta azkenik lanbide liberaldunak, hala nola sendagile, albaitari, bizargin, igeltsero etab., produktugile eta nekazari xeheekin batera ditugu.

Hammurabiren kodeak babes juridiko berezia eskaintzen zien, honen truke ordea, ardura handiagoa eskatuz. Halere, awelumek eskubide zibilen osotasuna zutela esan daiteke.

MUSHKENUM-ak awilum eta esklabuen arteko maila osatzen zuten. Halere, awelumengandik esklabuengandik baino hurbilago zeudela esan beharra dago. Gaur egun oraindik ere ezin izan da betirako mugatu zein zen horien kokapen zehatza Babiloniako gizartean. Badirudi maila hau osatzen zutenak goi mailatik jaitsarazitakoak edo esklabo ohiak zirela. Hortik omen dator askotan giza talde hau izendatzeko erabiltzen den terminoa: sasilibreak.

Jauregi edo tenpluen menpe bizi behar zuten. Nekazari, soldadu, artzain, arrantzale eta kualifikazio txikiko artisauez osatua zegoen mushkenumen maila.

Juridikoki libreen azpitik zeuden, beraz, euren isun eta indemnizazioak ere txikiagoak ziren. Nahi izanez gero, esklaboak eduki zitzaketen goi mailakoen antzera.

WARDUM-ak esklaboak ziren eta behe maila osatzen zuten. Wardumak pertsona partikular edo estamentu erlijioso edo estatalaren jabegoa izan zitezkeen. Batzuetan salduak (zorrak ordaintzeko) edo oinordetuak izan zitezkeen, esklabutza hori normalean behin behinekoa zen, hiru urte pasa ondoren askatasuna berreskuratzen zuten. Babilonian, Hammurabiren garaian, esklaboak ez ziren gauzatzat hartzen, bazuten estatuto juridikoa: ezkondu eta familia osatzeko eskubidea zuten, hainbat kasutan pertsona libreekin ezkontzera iritsi ziren (kasu hauetan seme-alabak libreak ziren), ondasunak ere eduki zitzaketen, e.a., hau da Ur-ko III. dinastiaren garaian zituzten eskubideak mantentzen ziren.

Esklabo taldea irekia zen, beti askea izateko aukera zuten, baina ezaugarri edo marka bat zeramaten, abereak izango balira bezala, era horretan jabeen eskubideak adierazten zuten. Marka horiek kentzen zituztenek zigor gogorrek jasotzen zituzten.

Dena den, gizarte babiloniarra irudi horrek islatzen duen baino askozaz konplexuagoa zen. Orain arte estatutu juridikoa zuten taldeak aipatu ditugu, baina talde hauetaz aparte estatutu juridikorik gabeko jendea zegoen, legeriatik kanpo gelditzen zena, hots *ASIRU* izeneko taldea. Talde horren kideak guda atxilotuak eta deportatuak izaten ziren. Horiek izango ziren benetako esklaboak. Horiekin batera esklabo pribatu eta estatuaren esklaboak aurki ditzakegu.

FAMILIA. Familiaren oinarriak ekonomikoak ziren batez ere, hots, familiaren helburua senarraren etxerako lan-eskua (andrea eta seme alabak) lortzea zen. Familia patriarkala zen, gizonak nagusiaren papera betetzen baitzuen. Seme-alabak aitaren menpe bizi ziren eta azken horrek zuen erabakitze ahalmena, bai pertsona baita ondasunei buruz.

Aitak ondarea bana zezakeen baina ezin zuen semerik bere parterik gabe utzi. Ondarea banatzerakoan lehentasuna semeek zuten. Alabek ez zuten herentziarik jasotzen, ezkontzean dotea ematen zitzaiolako.

Familiaren oinarria monogamia zen, nahiz eta ohaidegoa onartua izan. Ohaidegoa onartzeko kontratu bat sinatu behar zuten.

Ezkontza kontratuaren bidez burutzen zen. Senargaiaren aitak prozesu osoaren ardura bere gain hartzen zuen. Emaztegaiaren familiarekin akordioa lortu bezain laster, senargaiak andregaiaren aitari diruz edo gauzaz ‘andregaiaren prezioa’ emango dio, *TERHATUM* edo *TIRHATUM* izenekoa. Honekin batera eztei oparia (*BIBLIUM*) ematen zitzaion emaztegaiaren familiari.

Kontratu bat izenpetuz, emaztegaiaren aitak *SHERIQTUM* izeneko ezkonsaria ematen zuen, esan bezala, alabaren herentziaren aurrerapena. Ezkonsaria andrearena zen baina senarrak usufuktua zuen. Ezkontza desegingo balitz ezkonsaria emaztearen eskutara itzuliko litzateke. Emaztea hilez gero seme-alabek hartuko lukete eta seme-alabarik ez bazuen aitak berriz jasotzen zuen dotea. Azken kasu honetan aitak *Tehratum*-a itzuli behar zion senarrari.

Senarrak ere emazteari ondasunak eman ahal zizkion, *NUDUNNUM* delakoa, kasu honetan ere emazteak usufuktua baino ez zuen.

Errealitate honek emakumeak ahalmen juridikoa zuela adierazten digu, hau da,

-juridikoki bere ondasunak administra zitzakeen;

-epaiketetara joan zitekeen,

-lanbide batzuk bete zitzakeen baita hainbat kargu publiko ere.

-Bestaldetik senarra hilez gero, eta seme nagusirik izan ezean, emazteak etxearen ardura har zezakeen.

Arestian aipatutakoa bete ondoren kontratua idazten zuten, *RIKSATUM* deiturikoa, bertan emaztearen eskubide eta betebeharrak idazten zituzten, hala nola senarrak ukatzekotan ordaindu beharreko zenbatekoa, eta emazteak jasan beharreko zigorra ez-leialtasunean eroriz gero.

Hau guztia burutu ondoren eta eztei eguna iritsi arte andregaiak aitaren etxean edo aitaginarrebarenean gelditzeko aukera zuen.

Ezkontza printzipioz monogamoa zen baina senarrak ordeko emaztea edo ohaidea har zezaken legezko emaztea antzua izanez gero. Kasu horretan emazteak ezkonsaria, opariak eta ukatze kasuan erabakitako indemnitazioa harturik aitaren etxera itzultzeko erabakia har zezakeen. Bigarren emazteak ez zituen lehenengoak zeuzkan beste eskubideak, dena den, esklaboa bazen, bere seme-alabak askeak izango ziren.

Dibortzioa onartuta zegoen, baina senarrak bakarrik eskatu ahal zuen. Dibortziatzeko arrazoi bat emaztearen gaixotasun larria zen. Kasu horretan emaztea ados bazegoen ezkonsaria jasotzen zuen eta ados egon ezean senarrak betirako mantendu behar zuen aparteko etxean.

Senarrak emaztea zapuztu zezakeen hainbat arrazoiengatik: ondasunak gaizki administratzeagatik, bere kontrako irainak botatzeagatik, ezkontzako beharrak ez betetzeagatik edota frogaturiko edo sumaturiko ez-leialtasunarengatik. Azken kasu honetan "ur-ordalia" burutzera behartzen zuten eta Jainkoaren aurrean bere zintzotasuna frogatzean barka zitekeen. Senarra, ordea, ez zen inoiz zigorturik izaten arrazoi horrengatik, ez-leialtasunarengatik.

Senarra hiltzen bazen, gerratean preso hartzen bazuten edo beste toki batetara bizitzera baldin bazihoan, emazteak *NUDUNNUM* izeneko ondasunak zituen etorkizunean duintasunez bizi ahal izateko. Ondasun hauek bere semeei eman behar zien beraiek administratzeko.

Bestaldetik alargunak etxean bizi zitezkeen baina ondasunak familiarenak zirenez ezin zituzten eman edo utzi. Alargunak berrezkon zitezkeen baina lehenago senarrarekin zutenaren inbentarioa egin behar zuten berarekiko seme-alabak galtzaile suertatu ez zitezen. Senar alargunari ordea ez zioten ezer exijitzen.

Legeriak adopzioa ere kontutan izaten zuen.

HITITAK. ESTATUAREN ERAKUNTZA. TELEBINU. HATIAK INPERIOA. MONARKIA ETA ESTATU ANTOLAMENDUA.

Zibilizazio hitita gaurko Turkian garatu zen. Bere kokapen geografikoarengatik, ekialde eta mendebaldeko zibilizazioekin harreman sakonak izan zituen. Alde batetik, ekialdeko antzinako kulturaren hartzailea izan zen, bestalde kultura hau mendebaldera zabalduko zuen abiapuntua bilakatu zen.

Hititen erreinua Anatoliako penintsulako erdialdean kokatzen zen. Herrialde hau erdiguneko meseta handi batez eta inguruko mendi altuz osatua zegoen, kontraste nabarmena sortuz bien artean.

Batetik, Armeniako mendilerroko maldak eta Anatoliako mendi altuenen (Anti-Taurus eta Taurus mendikateak) malda baxuak bestetik, nekazaritzarako erabili izan ziren; mesetako lurrak berriz, abeltzaintzarako (batez ere ahuntzak eta ardiak) bideratu ziren.

Ingurua hain menditsua izanik, kontinentearekin harremanetarako Siriako, Amaneko eta Ziliziako “ateak” erabiltzen zituzten.

Lehengaiei dagokienez, ugarienak metalak ziren, hori zela eta metalgintza garatu zen. Horiekin batera, abeltzaintza eta basoak baliabide garrantzitsuenak ziren.

Estatuaren eraketan bi aldi bereiz ditzakegu: Antzinako erreinua edo Erreinu Zaharra (K.a. 1650-1430) eta Inperioa (K.a. 1430-1200).

ERREINU ZAHARRA (K.a. 1650-1430)

Erreinu Zaharra hainbat iturriren bidez ezagutzen dugu:

- Telepinu erregearen reskriptoak
- Hattusil I.aren *Res gestae* izeneko biografia
- Jainkotutako erregeei eskainitako ofrenden zerrendak

Dokumentu hauei esker, Labarna eta Hattusil I.a erreinuko sortzaileak izan zirela dakigu, baina ez dakigu zein zen beraien arteko harremana.

reinuako lehen erregeari, Labarnari, buruz, ez daukagu informazio askorik. Telepinu ondorengo erregearen reskriptoan, berari buruzko ikuspuntu idiliko bat agertzen zaigu baina ez dakigu gehiago.

Hurrengo erregeak, Hattusil I.ak erreinua zabaltzeko asmoz, hainbat kanpaina burutu zituen. *Res gestae* izeneko lanean kanpaina horien informazioa aurkitzen dugu.

Hurrengo erregeak, Mursil I.ak, konkista-izpiritu izugarria izan zuen. Alepo (Siria hegoaldea) bereganatu zuen eta Babilonia garaitu zuen, ondoren kasiten menpe utzi bazuen ere. Historialari batzuen ustez hurriten kontra joateko kasiteekiko aliantza egin zuten, ordainetan kasitak geratu zirelarik lurrarekin. Baina kanpaina haiek zirela eta, hititak euren lurretatik urrunera joaten ziren eta bitartean erreinuan, hurriten erasoak (razziak) eta barne matxinadak jasan zituzten.

Telepinuren reskriptoak Mursil I.aren ondorengoei buruzko informazioa ematen digu, haien arteko borroka dinastikoei buruz, hain zuzen ere. Borroka odoltsu horiek nabarki ahuldu zuten erreinu hitita. Barne arazo horietaz baliatuz, hurritek estatua hitita suntsitu zuten eta *gasga* izeneko iparraldeko populazio barbaroak ere erasoaldiak burutu zituen.

Telepinu edo Telebinu (K.a. 1525-1500) egoera larri hori konpontzen saiatuko zen. Errege horren garrantzia barne politikan datza. Erregetzaren ondorengotasuna zuzendu nahi izan zuen, nobleen arteko liskarrek eta borroka dinastikoei sortzen zuten barne krisiarekin bukatzeko. Horretarako idazki bat egin zuen eta gaur egun, antzinako erreinu hititaren historiaz informazio iturririk osoenarikoa dugu.

Errege horren dekretuan, Telepinuren reskripto izenekoan, erreformen oinarria *panku* edo *pankus*-a da. Pankua lehen existitzen zen, handiki hititen asanblada zen, haren atribuzioak zehaztugabe xamarrak zirelarik. Telepinuk justiziaren epaitegi gorena izendatu zuen. Epaitegi horren menpean pertsona guztiak jarri ziren, baita erregea ere. Dudarik gabe, horrek erregearen boterearen ikuskera berezia suposatzen zuen, ondoko erresumekin konparatuz. Erakunde horren sendotzeak noblezia eta erregearen arteko batasuna ekarri zuen, bai nobleek bai erregeak lege orokorrak obedituko zituzten.

Bestalde, tronurako ondorengotza sistema berria ezarri zuen, jauregiaren konplotekin bukatu nahian. Ondorengotza horrela ezarri zuen:

1. lehen ondorengoa erregearen emazte nagusiaren semea,
2. hori ez bazegoen, erregearen bigarren mailako emazte baten semea printzea izango zen,

3. aurreko bi hautagai ez izanez gero, tronua emazte nagusiaren alaba baten senarrak lortuko zuen.

Telepinu erreinu zaharreko azken erregea kontsidera daiteke, K.a. 1380an Supiluliuma tronora igo arte ez dugu informaziorik.

INPERIOA (K.A. 1430-1200)

K.a. 1440tik aurrera egiptoar eta mitanniarren arteko hurbilketa bat gertatu zen. Azken hauek kontrola ezarri zuten Sirian, hititen kontura. Beranduago, hititak, Supiluliumarekin gailenduko ziren.

Supiluliuma inperioaren sortzailea izan zen. Tronura igo zenean, egoera ezegonkor bat aurkitu zuen: erasoak, mugetako segurtasun falta... Etengabeko gudek erregearen izpiritu gerlaria areagotu zuten eta aldi berean monarkiaren joera autoritarioa jaio zen. Honi guztiari eragin egiptoar eta hurrita gehitzen baldin badizkiogu, monarkia hititaren absolutismo-joera eta era teokratikoa ulertuko ditugu. Supiluliumak estatu egitura berri hori bere menpe jarri zuen, inperio handi bat eraikiz.

ESTATUAREN ANTOLAMENDUA. ESTATUAREN KONTZEPZIOAREN ALDAKETA

K.a. XVIII. mendetik XVI. mendera bitartean, Ekialde Hurbilean botere zentralaren indarra handitu zen. Inperio hititan ere lurralde-hedapenaren ondorioz aldaketa sakonak gertatu ziren. Mugak handitzean, tribuen antolakuntzaren eredu bertan behera utzi zuten, kanpo harremanetarako egokia ez zelako. Horrela, monarkia hititak, ekialdeko potentzi handien eredu teokratikoa hartu zuen.

1. Erregea

Bi aldi bereiziko ditugu atal honetan: alde batetik Antzinako Erreina eta bestetik Inperioa.

Esan bezala, Labarna Iaren garaitik aurrera, errebolta asko egon ziren, erregearen familiak eta nobleek eragindakoak. Noble hauek antzinatik zeuden eta erregearen boterea gutxitu egiten zuten. Dirudienez, erregeak semea hautagai bezala aurkeztzen zuen nobleziaren aurrean eta nobleek hartzen zuten azken erabakia. Erregea eta nobleziaren arteko borroka horiek Antzinako Erreinan zehar emandako krisien arrazoi nagusiak izan ziren.

Egoera hori, Telepinurekin aldatu zen. Errege horrek indarrean jarritako sistemak 200 urtez iraun zuen.

Erreinu zaharraren erregeek “Labarna Errege Handia” titulua erabiltzen zuten. “Errege Handia” gainerako monarkia txikietatik bereizteko eta “Labarna”, dirudienez, lehen erregea izan zena ekarri nahi zuen gogora, horrela karisma bilatuz.

Inperio berrian, “Nire Eguzkia” erabiltzen zuten, dirudienez Egipto eta Mitanni-ren eraginez, garai horretan, ekialdeko eragina handiagoa zelako. Horrela, erregeak jainkoak emandako botere gizagaineko gero eta handiagoak izango zituen. Hala ere, ez zuten erregea bizirik jainkotzen, garaiko beste estatuetan gertatzen zen bezala, erregea hil ondoren jainkotzen zuten.

Garaiko erregeen karismaren antzekoa zuen, beraz, erregea hilkorren gaintik zegoen eta bere boterea geroz eta absolutuagoa zen. Jainkoaren ordezkaria zenez, apaiz gorena zen. Erregearen betebeharrak erlijiosoak ezinbestekoak ziren herrialdearen ongizate eta oparotasunerako. Hau dela eta, santutegiak derrigorrez bisitatu behar zituen. Kultu gaiak betetzeko, behin baino gehiagotan kanpaina militarrek alde batera utzi behar izan zituen. Hititar erliebeetan, sarri agertzen da erregea bere betebeharrak erlijiosoak betetzen.

Erregea armadaren komandante gorena eta agintari judizial gorena ere bazen. Agian, bigarren lan hori, askotan menpekoei uzten zien. Azkenik, erregea kanpoko politikaren arduradun handiena zen, bai militarra bai diplomatikoa. Erregeak berak sinatzen zituen beste estatuekin erabakitako hitzarmenak.

Monarkia hititan erreginaren papera esanguratsua izan zen. Erreginaren titulua “Tawanna” zen, Labarna erregearen lehenengo emaztearen izena. Ez zen beharrezkoa erregearen emaztea izatea; erregea hil ondoren, alarguna erregina zen, nahiz eta beste errege bat tronuan jarri. Erreginaren parte hartzea gai publikoetan dokumentatuta dago, baita eginbehar erlijiosoetan ere. Baina erregina ez zen erregearen emazte bakarra, erreginaz gain bigarren mailako emazte bat zegoen. Honen semeek tronurako aukera zezaketen (Telepinuren arauketaren arabera). Bi hauetatik aparte, maila baxuagoko emazteak zeuden, hauen semeek ez zuten errege izateko aukerarik.

2. Administrazioa

Administrazioari dagokionez, lehenengo eta behin kultu-hiri handiak aipatu behar ditugu, salbuespen bezala, hiri horietan botere erlijiosoak eta zibilak lotura estua zuten.

Hiri hauetaz gain, Gurneyk dionez, antolakuntza tradizionala "parrokiarra" zen, hau da, agurez osaturiko lekuko kontseiluek kontrolatutako komunitate txikiak ziren.

Administrazioaren bigarren maila probintziala zen. Probintzi horietan hasieratik erregeen semeak topatzen ditugu gobernadore gisa. Funtzio hori tronurako prestaketaren era zen. Batzuetan erregearen familiaren kide ziren jeneral batzuk ere betetzen zuten funtzio hori. Badirudi ez zegoela arau finkorik kargu hauetarako.

Sistema hau, aldatu egin zen hititen lurraldeko hedakuntzarekin.

Kontzepzio politikoa

Goetze-ren hitzetan, inperioaren garian kontzepzio politiko hitita hau zen: hititar erregearen menekoa ez denak ezin du bere aurrean okupatu hiru egoera hauetako bat baizik: edo bere aliatua da, edo bere basailua (bere babestua) edo bere etsaia.

Aliatuak edo kideak ziren estatuak maila berdineko adiskidetasun hitzarmen bat sinatzen zuten; horrelako hitzarmen baten eskubidea, potentzia handietako erregeek, besterik ez zuten, hau da, "Errege handia" titulua bereganatzen zutenak, adb.: Egipto eta Babiloniako erregeak; beraien arteko harreman diplomatikoen ondorioz, opariak eta enbaxadoreak elkar trukatzeko zituzten.

Menpekoek edo babestuek beste potentzia handiagoen ondoan egoteagatik beren independentzia arriskuan zuten.

Hititen etsaiak hurrengoak ziren: herria erasotzen zutenak; bere erregearekin hitzarmenak apurtzen zituztenak baita erregearekin inolako hitzarmenik sinatu ez zutenak ere.

Erregearen zeregiN nagusienetariko bat, aldameneko potentziekin, harreman onuragarri bat sortzea zen. Hititekin harremanak zituzten herriak egoera ezberdinetan zeuden.

Lurralde berrien administrazioa honela banatu behar dugu:

a) Erregearen familiaren erreinuak:

Ikuspuntu politiko zein estrategikotik garrantzitsuak ziren lurraldeak erregearen familiakoek administratzen zituzten, besteak beste Alepo, eta Karkemish. Estatu txiki horietako erregeek leialtasuna eskaintzen zuten, horren truke, Errege handiak dinastiaren jarraipena eta lurraldearen defentsa eskaintzen zien.

b) Erreinu babestuek:

Erreinu hauei Errege handiak, berriz ere, jarraipen dinastikoa zein lurraldearen defentsa eskaintzen zien. Honen truke, menpekotasuna, hititar ejertzitoan parte hartzea, hitita erbesteratuen itzultzea eta beste lurraldeekin negoziaketak ez egitea bete behar zituzten. Nahiz eta itunean eskubideen berdintasuna agertu, urtero egiten zen hitzarmenaren berrikuntzan azaltzen zen menpekotasuna.

Itun mota hauetakoak Arzawa, Mitanni eta Kitzuwatna erresumek sinatzen zuten.

d) Erreinu basailuak:

Itun hauetan Hattusas-ek gailentasuna zuen, Ugarit, Amurru eta abarreko estatuekin sinatzen zituen. Erreinu hauek lurraldeko eta militar garrantzi txikikoak ziren. Errege menpekoa bere lurraldean gobernadorea zen. Ezin zuen beste erreinuekin kontakturik izan bere kabuz. Militarki, Hattusas-i lagundu behar zioten, erbesteratuak itzuli eta zergak ordaindu. Honen truke errege hititak, linea dinastikoa, zein erreinuko lurraldeak defendatuko zituen. Menderatze zeremonia urtero egin behar zuten, zergen ordainketarekin batera.

e) Kideak

Kasu honetan hitzarmenak ez ziren menpekotasunekoak, berdintasunekoak baizik. Paktu hauek, estatu handiek bakarrik egiten zituzten, hititentzat “Errege Handiak” zirenak. Mitanni desagertu ondoren, Babilonia eta Egipto bakarrik gelditzen ziren. Itun hauetan, erregeen arteko anaitasuna azaltzen zen. Hori zela eta, ezinezkoa zen beraien arteko gudarik. Beraiekin arteko defentsa eta elkarri ez erasotzeko hitza ematen zuten bi erregeek. Basailuekin sinatzen zituzten itunetan bezala, biek printzipe oinordekoaren egoera bermatzen zuten, tronua lortuko zuela, garaiko mentalitateren arabera, hau da dinastia Estatuarekin identifikatzen zuten, biak gauza bera izango ziren. Holako hitzarmenetan ez zegoen eksklusibitate-klausularik, beste erreinuekin itunak eduki zitzaketen, elkarrekin zuten erlazioari eragiten ez bazion.

Paktuaren testigu eta defendatzaile gisa, partaideen jainkoen erreferentziak topatzen ditugu, jainkotasun kutsua eman nahian ekintzari.

Hala ere administrazio sistema honek ez zuen funtzionatu kasu askotan, horrela zonalde batean sortutako arazoak, mugimenduak sortzen zituen erreinuaren muga guztietan.

Greziaren lehenengo bilakaera historikoa. Brontze Aroa: Kreta eta Mizenas.

Kultura minoikoa

Kultura minoikoa Kretako zibilizazioa da. Kretako irlan egin diren araketa arkeologikoetan kultura aberats baten aztarnak azaldu dira, hain zuzen, K.a. 2500. urtean sortutako kultura minoikoaren aztarnak.

Gutxi gorabehera 2500. urtean Kreta Brontze Aroan sartu zen. Gordon Childe-k aro hori hiru alditan banatu zuen, eta aldi horien barruan beste hiru aldi bereizi zituen, eskema kronologikoa hau da:

Antzinako Minoikoa	2500-1900
Bitarteko Minoikoa	1900-1600
Minoiko Berria	1600-1100

Metalez eginiko aztarnak K.a. 2500 urte inguruan sortu ziren. Garai horretan populaketa nabarki gehiagotu zen. Kokaleku garrantzitsuenak irlako ekialdeko tontorrean zeuden. Kreta, Neolito aroan guztiz isolaturik zegoen, Brontze Aroan, berriz, bere isolamendutik irten zen Egeoko brontzean sartzeko, zenbait lekutatik eragina jasoz, hain zuzen ere, Grezia, Mazedonia, Ziklade uharte, Asia Txikia, Siria eta Egiptotik.

Azterna materialen bitartez jakin dezakegu Kretak ez zuela eragina horien imitazio hutsa egin, baizik eta elementu berriak bereganatu zituela, bere barneko garapenean sartuz eta pare gabeko kultura bat sortuz. Brontze Aroaren hasieran tresnarik gehiena buztinezko edo harrizkoak ziren, batez ere nekazaritzarako erabiltzen zirenak. Hilobietan aurkitutako metalezko gauzen erdia baino gehiago labanak ziren.

Minoiko zaharrean zenbait aldaketa gertatu ziren: egitura soziala bilakatzen hasi zen eta gizarte taldeen arteko desberdintasuna handitu zen; hiriak gero eta handiagoak egin ziren, teknikak ere nabarki garatu ziren.

Hurrengo aldia, Bitarteko minoikoa, 1900etik 1600era garatzen da. Kretako urrezko aldia da. Aldi horretan botere politiko, aberastasun eta artearen arloan asko aurreratu zuen Kretako zibilizazioak, hiri-iraultza burutu zelarik. Jauregiak eraiki zituzten, artea bere garapen handieneraino iritsi zen eta gizarteak psikologia eta bizimodu bereziak, guztiz desberdinak, gutxienez talde pribilegiatuetan, lortu zituen.

Bitarteko minoikoan, Finleyren ustez, kretatar gizarteak pentsaera eta erakundeen finkapena lortu zuen eta oreka hori ez zen puskatu zibilizazioa desagertu arte.

Zibilizazio horren elementu nagusiak hauek ziren:

-harresirik gabe egindako hiriak: Knosos, Festo eta Hagia Triada bezalakoak.

-Hiri hauetan jauregi ederrak aurkitu dira.

- Lurperatzeak taldeka egiten zituzten, hasiera batetan leize eta zuloetan eta ondoren turrina handietan.

- Kamareseko zeramika

- "Lineal A" izeneko idazkera.

Esan dezakegu Bitarteko Minoikotik Minoiko Berrira ia aldaketarik gabe pasatu zela. Bitarteko Minoikoan irlako zenbait lekutan suntsidurak gertatu ziren, lurrikarengatik, baina katastrofea gertatu ondoren, berehala hasi zen berreraikitzea. Berreraikitze hori ez ezik kokaleku berriak ere egin zituzten. Horretaz gain kontinenteko Greziarekiko harremanak estutu zituzten, baina ez dago aldaketa sozialen aztarnarik.

K.a. 1400. urtearen inguruan irla osoa kanpoko gerlariak menperatu zuten eta orduan hondatu zen zibilizazio hura. Horrela galdu zuen Kretak bere hegemonia politikoa.

JAUREGIAK

Kretako zibilizazioaren erdigunea jauregia zen, gizartea jauregiaren inguruan antolatzen zen. Jauregi aipagarrienak Knosos, Festo, Malia eta Zakro dira. Jauregi horien oinplanoa oso konplexua zen: patio handi baten inguruan gela ugariak banatzen zirelarik. Arkitektura-guneak ziren, erregearen egoitza izateaz gain, ekonomia birbanatzailearen guneak ziren. Apainketa aldetik jauregi-tako hormek margo ederrak zituzten, landare, abere eta eguneroko bizitza adierazten zuten irudiz estaliak azaltzen ziren.

Jauregiak botere-guneak ziren, eta bertatik kontrolatzen zituzten lurralde-estatu txikiak eta haien baliabideak. Gune ekonomikoak zirenez, bertan eskualdeko nekazaritza etekinak gordetzeko biltegiak zeuden baita artisau lantegi espezializatuak non prestigiooko ondasun garestiak (askotan kanpotik ekarritako produktuekin) eta merkataritzara zuzenduta zeuden beste motatako produktuak (besteak beste olioak eta lurrinak) egiten zituzten.

Jauregi horiek zuzentzen zituzten eliteek beren boterea kultu-jardueren kontrol eksklusiboan legitimatzen zuten, beren onurarako manipulatzeko zituztenak. Jauregi horien

barruan zeremonia erlijiosoak burutzen ziren eta santutegiak zeuden. Erdiko patioetan zezenak paper garrantzitsua betetzen zuen jaiak eta jolasak ospatzen ziren.

Jauregi horiek administrazio konplexua zuten, zeinek zigiluak eta bi motatako idazkera erabiltzen zituzten, bata hieroglifikoa eta bestea silabikoa (Lineal A). Zigiluak biltegiatutako ondasunen jabetza markatzeko erabiltzen zituzten, idazkerak berriz transakzioak erregistratzeko.

Garai hartako gizartea oso hierarkizatua eta oparoa zen Egipton eta Ekialde Hurbilean garai berean zeudenen antzekoa alderdi askotan.

Beste antolaketa-modu alternatibo batzuk egon ziren, prestigioiko beste eraikin batzuk zeuden eta. Eraikin horiek zeregin garrantzitsua izan zezaketen jarduera ekonomiko eta sozialaren kontrolean eta kudeaketan.

Atal hau osatzeko ikusi Lopez Meleroren fotokopia.

KRETA ETA KANPOKO MUNDUA

Kretak inguruko eskualdeekin merkataritza kontaktu asko izan zituen. Lehengaiak inportatu behar zituen besteak beste kobrea, estainua, zilarra, urrea, bolina edo harri landuak. Produktu horiekin Kretako artisauek produktu finduak egiten zituzten adibidez zigiluak edo zeremonia-ontziak. Kretak, berriz, produktu manufakturuak esportatzen zituen, adierazgarrienak metalezko objektuak eta bere zeramika ospetsua ziren. Kretako zeramika Mediterraneoko ekialdeko arro osoan agertu da, Egipton, Siria eta Feniziako kostaldeetan, Zipren, Egeoko irlatan eta Penintsula greziarrean.

Kanpoko merkataritza sare horretan portuek funtsezko papera bete zuten eta jauregi bakoitzak bere portu-hiria zuen. Horrela, Knosos eta Festo, nahiz eta barnealdean kokatuta egon, portu-hiriak izan zituzten, Amnisos eta Kommos, hain zuzen ere.

Agian greziar tradizio mitikoak aipatzen duen talasokrazia minoikoa ikuspuntu honetatik azaldu dezakegu, merkataritza-establezimenduen sare handi gisa. Establezimendu horien funtzioa itsas-ibilbide nagusiak kontrolatzea zen, nondik produktu manufakturuak eta lehengaien elkartrukeak egiten ziren.

Beste esplikazio batek Kretak benetako itsas inperio bat izan zuela mantentzen du, talasokrazia minoikoaren izenekoa hain zuzen ere. Teoria hau mantentzen zuten historialarien aburuz, Kretak itsasoa kontrolatzen zuen eta Mediterraneoko irlak bere kontrolpean zeuden, Kretan agertzen ziren kanpoko produktuak zergak ziren, irlek ordaindutakoak.

Talasokraziari buruzko berri bakarrak idazle greziar klasikoek egiten dituzten aipamenak dira. Lehenengoa K.a. V. mendearen bigarren erdian agertu zen, Herodoto eta Tuzididesen lanetan.

Inperioa ez zegoelako iritzia mantentzen duten historialariek hainbat arrazoi ematen dute baina garrantzitsuena iturri klasikoetan egindako aipamenaren data da. Esan dugun bezala talasokraziari buruzko lehenengo aipamena K.a. V. mendean agertu zen eta data hau kontutan edukitzeko berriegia da.

Kretako jauregien izaera ere erlazionatuta dago gai horrekin. Esan dugun bezala hiri kretatarrak irekiak ziren, ez ziren gotorlekuak, palazio mizenastarrak izan ziren bezala. Batzuetan hau talasokrazia azaltzeko erabili dute, iritzi honen aburuz Kretak ez zuen gaztelurik itsasoa menperatzen zuelako. Hala ere hau ez da funtsezko arrazoirik zeren ere itsasotik zetozen mehatxuak ez ziren izan inoiz izan gotorlekuak eraikitzearen arrazoi bakarrak ezta erabakigarriak ere.

GREZIA MIZENASTARRA

Zibilizazio mizenastarra Grezia kontinentaleko kultura izan zen, Brontze Aroaren bukaeran bilakatu zena, aurre-historialariek Heladiko Berria (K.a. 1600-1100 bitartean) izendatzen duten aldian, hain zuzen ere.

Grezia kontinentalaren periodizazioa:

Antzinako Heladikoa	2600-1900
Bitarteko Heladikoa	1900-1600
Heladiko Berria I edo Mizeniko I	1600
Heladiko Berria II edo Mizeniko II	1500
Heladiko Berria III edo Mizeniko III	1400-1100

Mundu mizenastarra aipatzen dugunean, lurralde oso zabalaz mintzatzen ari gara. Lurralde zabal horrek hiru ezaugarri komunak zituen: zeramika berdintsua, gotorlekuak eta Kretan jaiotako Lineal B idazkera sistema. Mizenasek, kultura honen eponimoa izan arren, ez zuen inoiz lehentasunik izan. Izen hori guztiz konbentzionala da, Mizenasen egindako indusketen antzinate eta garrantziarengatik erabiltzen dugu.

Esan bezala, "mizenastar" izenak ez du esan nahi zonalde horretan aginte politiko zentralizatua zegoenik. Mizenas Erdiguneko eta Hegoaldeko Greziako jauregi-bastioi (gotorleku) horietako bat besterik ez. Ez dago frogarik inperio mizenastar bateratuaren erdigunea zenik esateko. Seguru aski mundu mizenastarra osatzen zuten estatu independenteek kultura homogenea zuten. Kontinentean 400 aztarnategi inguru aurkitu dira. Aztarnategi horietan jauregiak agertu baino lehenago herri eta herrixkak zeuden.

1400-1200 bitartean, zibilizazio mizenastarrak goren aldia lortu zuen, Grezia kontinental osoan zehar hedatu zelarik, iparraldean Tesalia eta Epiroko mugetaraino iritsiz. Paisaia mizenastarren eraikuntzarik bereziena jauregi gotortuak dira. Jauregi-bastioi horiek akropolietan kokatzen ziren, harresi erraldoiez babestuta. Harresi horiek populazioari ere babesa eskaintzen zien eta hiriaren antolamendua errazten zuten euren barne.

HISTORIA MIZENASTARRAREN ETAPA NAGUSIAK

Mundu mizenastarraren historiaren etapa nagusiak gaingiroki berreraiki ditzakegu. Horretarako gure informazio iturri nagusia arkeologia da, bereziki hilobiak eta bertan aurkitutako objektuak. Etapa horien kronologia zehazteko zeramikaren azterketa eta sailkapena erabiltzen dute arkeologoek. Zeramika mizenastarra Mediterraneoko arro osoan zehar sakabanatuta dago, Ekialde Hurbiletik mendebaldeko Mediterraneoraino.

Dokumentu idatziak baditugu ere, horiek eskaintzen duten informazio historikoa murriztua da zeren eta arazo asko dituzte. Oholtxo horiek, beste iturriekin batera, gizarte hierarkizatu bati buruzko datuak ematen dizkigute. Gizarte horren elementurik berezienak erregetza eta aparatu politiko sendoa ziren.

Lehenengo oholtxo mizenastarrak Knososen agertu ziren, Lineal B idazkeraz idatzita. Geroxeago Kontinentean aztarnategietan agertu ziren, batez ere Pilosen. Lineal B idazkera silabikoa da, hizkuntza grekoa da, Ventris eta Chadwick-ek deszifratua. Bi ikerlari horien ustez, oholtxoetan agertzen diren testuak hizkuntza greko zaharrena da. Guregana iritsi diren oholtxoak ez dira asko, guztira 4000 baino gutxiago eta kasualitatez kontserbatu dira, zeren eta ez zituzten oholtxoak egosten. Normalean administraziorako agiriak izaten ziren eta mota hauetakoak zirenez, urtero desegiten ziren buztina berrerabiltzeko. Hori zela eta gelditu direnak jauregiak desagertu ziren urtekoak dira. Ezaugarri honek, urte berekoak izateak, nabarki murrizten du beraien informazioaren balioa. Horretaz gain, testuak oso laburrak ziren, esan dugun bezala bere edukia administrazioari buruzko da: batez ere jauregiaren ondasunen erregistroak, langileen zerrendak, jauregiak egindako banaketan zerrendak etab.

K.a. II. milurtekoaren erdialdera, 1600 inguruan, Peloponeson hainbat talde agintari agertu ziren, jatorri desberdineko lehengaiak eskuratu eta kontrolatzeko gai izan zirenak, Baltikoko anbaretik Ekialde Hurbileko metal, boli eta egur preziatuetaraino. Ekialdetik eta mendebaldetik zetozen lehengaien fluxu bat zegoen, Egeon elkartzen zen eta ziur aski talde horiek merkataritza horren kontrola bereganatu zuten. Talde horiek batez ere euren hilobiengatik identifikatu ditzakegu. Mizenasen bi hilobi-zirkulu handi agertu dira, non urrezko, zilarrezko, brontzezko eta harri finezko objektu ugari agertu diren. Tamaina naturaleko urrezko maskara batzuk nabarmentzen dira bereziki, hildakoaren aurpegiaren gainean kokatuta zeudenak.

Zibilizazio mizenastarraren eraketa aldia da, (K.a. 1600-1500 artean). Aldi horretan zibilizazio horren ezaugarri nagusiak argi agertzen dira, besteak beste aurreko aldiekiko jarraitutasuna eta estratifikazio handiko gizarte baten agerpena. Gizarte hori printze gerlari batzuek menderatzen zuten, eta hainbat eskulangile zituzten haien zerbitzura. Artisau horiek askotariko tekniketari adituak ziren. Hilobietan aurkitutako objektuek jatorri desberdinetako eraginaren nahasketa islatzen dute: Kretako eragina, forma lokalak eta kanpoko produktu exotikoak nahasten ziren.

K.a. 1500etik 1400era mizenikoak Egeoko potentzia nagusietako bat bihurtu ziren. Kokaleku mizenastarrak Greziako lurralde osoan zehar hedatu ziren, aztarna arkitektoniko gutxi utzi badute ere. Bere hilobi-monumentuak nabarmentzen dira batez ere, bereziki tholos izeneko hilobi zirkularrak, Esparta eta Mesian aurkitu direnak. Hilobi horietan aurkitutako objektu gehienak kretatarrak dira eta botere mizenastarra Egeoko eremu zabaletan hedatzen ari zela agerian uzten dute. Aldi horren amaieran Kretan Knososen okupazioa gertatu zen. Hori bultzada erabakigarria izan zen erreinu mizenastarren behin betiko antolakuntzarako. Erregistro idatzietan oinarritutako Kretako jauregi-sistema hartu zuten baita zibilizazio distiratsu horren ezagutza artistiko eta teknologikoa ere.

Ondorengo bi mendeek (K.a. 1400tik 1200ra) mundu mizenastarraren goraldi handia osatzen dute. Aldi horretan Schliemannek aurkitu zituen gotorleku handiak eta jauregiak eraiki ziren; kanporantzako merkataritza-hedapena gertatu zen; eta botere mizenastarra Mediterraneoko ekialdeko arroan sendotu zen, garaiko bi inperioen artean, Egipto eta Hititak.

Hala ere K.a. 1200 inguru hasi zen suntsipen masiboen uholde batek mundu mizenastarraren amaiera ekarri zuen. Uhalde horrek Egeoko arro osoan aldaketa erabakigarri batzuk egin zituen. Garai distiratsuak atzean geratu ziren eta segurtasunik gabeko aldi luze bat ireki zen. Aldi berri horretan aldaketa garrantzitsuak gertatu ziren, aro arkaikoaren hasieran (K.a. IX-VIII mende inguruan) bukatuko zirenak.

GERRAKO JAUNAK

Erreinu mizenastarrak lurralde-estatu txikiak ziren. Estatu horiek jauregi-multzo baten inguruan antolatzen ziren, zeinek bizitza politiko, sozial eta ekonomikoa kontrolatzen zuen. Arlo ekonomikoan, lehen mailako produktuen banaketa guneak ziren, lan-prestazioen truke. Eremu geografiko nodaletan zeuden, Mediterraneoan zeharkatzen zuten ibilbideen barruan. Jauregi-sistemaren oinarriak prestigiooko ondasunak eskuratzea eta euren banaketaren monopolioa ziren. Jauregiko zuzendariek baliabide ekonomikoen kontrola anoen birbanaketaren, jaien eta oturuntzen bidez egiten zuten. Agintari mizenastarren maila eta prestigioaren oinarriak eskuratutako aberastasunaren erakustea eta gurtza jardueraren monopolio eta kontrola ziren. Jauregi mizenastarrek Kretako jauregiek bezala oinplano oso konplexua zuten, erregearen gelaz gain, lantegiak, biltegiak eta gurtzarako eraikinak ere zituzten. Euren hormak eta zoruak igeltsuz estalita zeuden eta gela nagusietan horma-irudi fresko handiak zeuden. Dena den, jauregi minoikoak baina txikiago, xumeago eta trinkoagoak ziren. Ongien kontserbatu den jauregia Pilosekoa da, bitxia bada ere, harresirik ez zuen bakarra.

Jauregi gehienak gotorlekuak ziren, hots izugarritzko harresiez inguratuta zeuden. Fenomeno horren arrazoia erreinuen arteko lehia zen, gero eta handiagoa egiten ari zena. Lehia horren arrazoiak askotarikoak ziren baina nagusienak honako hauek ziren: lurralde mugakideen domeinua; aberastasun-iturrien kontrola; edota arpilaketa eta harrapeketa, aberasteko jardueretako bat zirenak.

Oso gizarte militarista zen, eta bere jarduera nagusietako bat gerra zela uste zuen. Ideologia militarista hori hainbat elementutan agerian gelditzen da, besteak beste gotorlekuak, hilobietan aurkitutako arma ugariak eta adierazpen artistikoen izaera belikosoak (gai nagusiak guduak edo ehiza ziren). Buruzagi mizenastarrek bere hilobietan metatu zituzten aberastasunen zati handi bat arpilaketa eta pirateriaz lortu zuten. Ohiko armamentu mizenastarraren elementuak lantza luzea, tamaina handiko ezkutua, batzuetan zortzi formakoa, brontzezko armadura indartsua eta basurde hortzez egindako kaskoa ziren.

ERREINU MIZENASTARREN EGITURA POLITIKO-ADMINISTRATIBOA

Erreinu mizenastarren egitura politiko-administratiboa ezagutzeko iturriak buztinezko oholtxoak dira, hau da jauregietako administrazioaren dokumentuak.

Esan bezala, arkeologia mizenastarraren elementurik berezienak jauregiak, eta errege hilobiak dira, biak sendoki gotortuak. Bi elementu horiek lurraldearen gaineko kontrol

zentralizatua adierazten dute. Zentzu honetan, jauregi mizenastarrak unitate politikoak dira, aristokraziaren testuinguruan erregea aginte gorena zelarik.

Jauregien eraikuntza bera maila guztietan zegoen botere hertsatzailearen sinboloa da. Zentralizazio horrek administrazio sendo bat behar zuen, agiri idatziek agerian jartzen dutena. Agiri idatzi horiek jauregiko administrazioaren elementurik garrantzitsuenetako bat ziren.

Erregeren administrazioak aipatzen dituen talde sozialak hauek dira: alde batetik noblezia eta lurjabeak eta bestetik euren menpeko eta esklaboak. Bi talde hauen artean populazio langile gehiena zegoen.

Gizarte mizenastarraren burua erregea zen, *wa-na-ka* edo *wa-nax* izenekoa. Erregeak funtzio ekonomiko, erlijioso eta administratiboak zituen: jauregi eta gurtzarako ondasunak administratzea, kultuaz arduratzea, funtzionarioak izendatzea eta administraritza kontrolatzea. Funtzio militarrek ere izan zitzakeen baina historiagileak ez daude puntu horretan ados, iritzi desberdinak mantenduz.

Oholtxoetan aipatzen den bigarren pertsonarik nagusia *la-wa-ge-ta* edo *ra-wa-ge-ta* da. Denbora luzez, kargu horri ezaugarri militarrek eman zaizkion, agintari militar gorena bezala interpretatuz. Baina ez dago argi funtzio militarrek zituen. Pertsonaia horren menpean artisauak eta kultuaz arduratzen ziren funtzionarioak zeuden.

Wundsam-ek pentsatzen du *ra-wa-ge-ta* aristokrazia militarren ordezkaria zela, bere interesak erregearen aurrean defendatzen zituelarik.

Aristokrazian kokatu behar dugun lehenengo pertsonaia, beraz, *ra-wa-ge-ta* da, ikusi duguna. Beste batzuk ere aipatu behar ditugu:

- *mo-ro-qa* deiturikoak, Wundsam-en hitzetan lur pribatuen jabeak ("los poseedores de la tierra privada"). Pertsonaia horiek jauregiak emandako lurra zuten. Jauregiari zerga txiki bat ordaindu behar zioten. Beraien lurak nekazari libreek edo esklaboek lantzen zituzten. Funtzio militarrek ere zituzten.

- *mo-ro-qa*-ren azpian *e-ge-ta*-k zeuden. Funtzio militarrek eta erlijiosoak zituzten, jauregiko ekonomiarekin erlazionatuta zeuden.

- *te-re-ta* edo *te-les-tai* izenekoek ere zituzten jauregiak emaniko lurak. Jauregiko artisautza kontrolatzen zuten.

Erregearen menpean funtzionario asko zeuden, jauregiko funtzionamendurako behar beharrezkoak. Jauregi mizenastarrak funtzio ekonomikoak betetzen zituen: nekazal

produkzioa zentralizatzen eta banatzen. Goi funtzionarioek lursailak eta eskribak kontrolatzen zituzten.

Lurraldeko administrazioari buruz dugun informazio bakarra Pilos erreinuko da. Piloseko lurraldea bi probintzietan banaturik zegoen. Probintzietan barrutiak zeuden: 9 batean eta 7 bestean. Barrutiek ez zuten hiriburu finkorik. Barrutien helburu nagusienetariko bat zerga bilketa antolatzea zen, bai nekazal zergak bai eskulangintzako lanak, zerga moduan jauregirako egin behar zirenak.

Administrazioa denboran zehar aldatu arren, labur daiteke esanez hiri edo barrutien bakoitzean gobernadore bat eta botere zentralaren ordezkari bat zeudela. Bi funtzionario hauen ondoan beste batzuk aipatu behar ditugu, esparru probintzialeko aginpidea zutenak: botere zentralaren ordezkaria; funtzionario erlijiosoa eta funtzio ekonomikoak zituen beste bat.

Gizarte mizenastarraren beste elementu bat *da-mos* edo *da-mo* -a da. Hau ez da talde soziala, erakunde juridikoa baizik. Erakunde juridiko izategatik lurrak zituen. Lur horiek errentan jartzen ziren; damosaren partzelak esklaboek lantzen zituzten, damosaren esklaboak hain zuzen.

Damosak bere barne nekazari libreak, artzainak eta artisauak biltzen zituen. Benetako indar politiko bat zen, zenbait erabaki hartu zitzakeen, jainkoekiko harremanetan inizatiba hartzen zuen eta seguru aski berarekin zer ikusia zuten neurri politiko-administratiboei buruzko iritzia eman zezakeen beraien alde edo aurka zegoen azalduz.

Talde sozialik baxuena esklaboek osatzen zuten. Hauek ondasunen produkzioan garrantzi handia zuten baina ez ziren lan-indar nagusia, jabeek eta esklaboek elkarrekin lan egiten baitzuten. Bi esklabo mota aipatu behar ditugu: 1. jainko eta jainkosaren esklaboak eta 2. pertsona fisiko eta pertsona juridikoen esklaboak.

1. Hauei buruzko informazio gutxi dugu, ez dakigu tenpluko zerbitzariak ziren edo jainkoen lurrak (temenos) lantzen zituzten. Behar bada bere egoera ekonomikoa beste esklaboena baino hobea zen.

2. Hauek produkzio-prozesuan parte hartzen zuten. Ez dakigu zenbait eskubide zituzten, dena den beren egoera ez zen oso txarra, aro klasikoan izango zutena baino askoz hobea zen. Talde honetan beste bi mota bereiz ditzakegu: esklabo publikoak eta esklabo pribatuak.

Esklaboen jatorria ere nahiko ezezaguna da. Dirudenez gehiengoa gerrako gatibuak ziren, baina zenbait historiagileren ustez, bazegoen esklaboen merkataritza, Asia Txikiko gunee mizenastarren eta metropoli kontinentalaren artean.

Kultura mizenastarraren desagertzea

Zibilizazio mizenastarra Heladiko Berrian III, 1200. urtearen inguruan, desagertu zen. Bat-batean ezarkuntza asko hutsik gelditu ziren eta besteak suntsiturik. Esplikazio desberdinak bilatu izan dira hain erorpen azkarra azaltzeko:

- Inbasioak: Zenbait teoriak desagertzearen arrazoi gisa herri mugimenduak aipatzen dituzte. Historialari horien ustez, mundu mizenastarretik kanpoko inbaditzaileak izango ziren, lurraldea armaz menperatu ondoren, bertan ezarriko zirelarik. Baina ez dugu hori mantentzeko froga arkeologikorik. Arkeologiak ezin du herri horien identifikatu, ezta euren jatorria finkatu ere.

- Beste esplikazio batek faktore klimatikoari ematen die garrantzia. Denbora luzeko agorraldia gertatu zen, horren ondorioz uztak txarrak izan ziren. Elikadura ezak populaketa dispersioan eragina zuen.

- Faktore hauei beste bat gehitu behar diegu: estatu mizenastarren barruko arazoak. Populaketa gehiegi gehitu zen eta jauregiak ezin zion aurre eman hazkunde demografikoari. Jauregiak ekonomia oso murriztua zen, espezializatuegia, eta ezin izan zuen erreakzionatu baldintza berrien aurrean.

Faktore hauek guztiak konbinatu ziren lurraldeen arteko eta gizartearen talde nagusien arteko borroka ager eraziz, zibilizazioa desagertu eraziz. Mundu mizenastarraren desagertzea atzerapen handia izan zen Greziako historian, zibilizazio horrek lortu zituen aurrerapenak berarekin galdu ziren: idazkera, artea, sistema politiko-administratiboa eta gizarte hierarkizatua.

Kultura mizenastarra desagertu erazi zuen suntsidura fenomenoak Egeon ez ezik beste leku batzuetan ere gertatu zen. XIII. mendean Mediterraneoan zenbait herrien mugimenduak sortu ziren, egiptoar iturriek "itsas herriak" aipatzen dituzte, eta horiek ziren Niloko delta erosotu zutenak, bigarren tarte-aldia irekiz, eta Inperio hitita suntsitu zutenak. Inperio hitita eta jauregi mizenastarrak aldi berean desagertu ziren. Fenomeno horren ondorioz, K.a. XIII. mendean zehar Ekialdeko Mediterraneoan lortutako oreka politiko eta ekonomi egonkortasuna desagertu ziren. Handik aurrera ez da Mediterraneo menperatzen duen Estatu boteretsurik izango.

PERTSIAR INPERIOA

INPERIO PERTSIARRAREN SORRERA

Pertsiaren sorrera Elam-eko lurraldearen historiari lotuta egon da. Pertsiarrek, Elam-eko erreinuaren menpean zegoen Anshan lurraldean ezarri ziren hasiera batean. K.a. 692. urtean Kuter-Nahhunte hil zen, Elam-en jatorria zeukan Anshan-go azken erregea. Hortik aurrera pertsiarren boterea nagusitu egin zen Anshan-en eta lurraldearen izena denborarekin aldatuz joan zen, Parsuash izena hartuz. Pertsiarrek bere boterea K.a. 648. urtean finkatu egin zuten, beraz prozesu luzea eta konplikatu dela esan dezakegu.

Parsuash-en Akemenes-en (Hakhamanish) dinastia ezarri zen. Akemenes pertsiarren buruzagi tribala dela esan daiteke. Pertsiarren ustez Akemenes pertsiarrek Anshan-eko lurraldera eraman zituen K.a.700. urte inguruan. Hala ere Pertiaren benetako lehenengo buruzagia bere semea Teispes zela esan ohi da. Teispesen garaian Pertiako estatua behin behineko sortuta zegoela esan daiteke, nahiz eta garai horretan oraindik garrantzi gutxiko lurraldea izan. Teispesen semeak, Kanbises, lurraldea zabaldu egin zuen eta Elam-ko lurraldearen zati garrantzitsu bat lortu zuen eta Anshango errege titulua eskuratu zuen Elam-eko errege baten alabarekin izandako ezkontza bati esker.

ZIRO II “HANDIA” : K.a. 560- 530

Inperio akemenestarraren fundatzailea. Boterera iritsi zenean, K.a. 560 urtean hain zuzen ere, bere lehen ekintza bere aitonaren lurralde inbaditzea izan zen, zeina Ashnan-eko erregea zen.

Inguruko lurraldeetako erregeek, Zirok hain erraz lortu zuela bere aitonaren lurraldea ikusita, bere indarrak ohartu ziren, eta paktu bat egitea erabaki zuten Babilonia, Lidia eta Egiptoko lurraldeetako buruzagiek. Zirok, batasun hau hausteko, Lidia inbaditu eta konkistatzen du, eta baita Asia Txikiko Greziar hiri batzuk ere, bere jeneral baten bidez. Horrek Mediterraneoko merkatura ireki zion bidea.

Bestalde, Greziar hiriak Pertsiar inperioaren barruan egoteak zekarzkion onura ekonomikoekin konturatu eta ez zuten erresistentzia handirik jarri. Babilonia ere konkistatu zuen.

Asiako ekialdetik zetozen tribuen etorrerari aurre egiteko bere inperiotik ekialdera zeuden lurraldeak ere konkistatzea erabaki zuen, baina tribu haietako baten aurka borrokan ari zela hil zuten K.a. 530 urtean.

Bere helburuak lurralde bat konkistatutakoan bi ziren: Batetik, Mediterraneoko eta Asia erdialdeko merkaturak kontrolatu nahi zituen, eta bestetik, bere Inperioaren mugak inbasioetatik babestu nahi zituen, eta horretarako arazoak eman zitzaizketen inguruko herrialde guztiak kontrolatu nahi zituen.

Lurralde hauei gero autonomia handia uzten zien, baina beti ere zerga bat ordainduz berari, eta herrialde haien boterean berari fidelak ziren buruzagiak ezarriz.

Bere ohituretako bat zen konkistatutako lurraldeetatik zenbait ohitura eta sistema hartzea bere lurraldeko zenbait gauza hobetzeko. Horrela, Babiloniatik adibidez sistema burokratikoa kopiatu zuen, eta Lidiatik berriz sistema administratiboa.

KANBISES: K.a 530- 522

Kanbises Zioren semea zen, eta hura hildakoan K.a. 530 urtean ezarri zen boterean.

Bere lehen ekimena tronuan jarritakoan Egipto konkistatzea izan zen. Erraz konkistatu bazuen ere, (K.a. 525 urterako Kanbisesena zen lurraldea), matxinada ugari eman ziren ondoren oso denbora gutxian, pertsiarrek bertako boterea mantentzea zail eginez.

Hori zela eta, Kanbisesen kanpaina asko luzatu zen, bere jatorrizko herrialdetik kanpora denbora asko eginez Kanbisesek, eta honek arazo ugari ekarriz. Izan ere, Kanbises bere aita baino askoz gogorragoa zen zerga kontuetan, horrek baino zerga altuagoak eta oso zorrozki kobratuak ezarriz. Honek bere gobernuaren aurkako talde ugari sortu zituen, eta matxinada ugari eman ziren bere inperio guztian zehar denbora gutxian.

Matxinada horietako baten ondorioz, ez dakigu ziur ea matxinada horren garaipena ikusita bere burua hilda, edo matxinadaren aurka borrokan ari zen bitartean hilda, baina hil egin zen K.a. 522 urtean. Matxinada hau, Kanbisesen ondoren Gaumata ezarri zen.

GAUMATA: 7 hilabete

Esan bezala, Gaumata boterera iritsi zen Kanbisesen aurka egindako matxinada baten ondorioz. Boterera iritsitakoan, Bardiya, Egiptora joan aurretik matxinada baten beldur Kanbisesek hil zuen anaia zela esan zuen, Bardiya izenarekin egonik boterean. (Herodotok “Smerdis” deitzen badio ere).

Gaumatak oso politika ekonomiko desberdina egin zuen, konkistatutako lurraldeei zerga barkatu zien hiru urtetan zehar, eta baita behartutako erreklutamendua ere lurralde hauetan.

Politika ekonomiko hau pertsiar nobleziaren aurka zihoan, eta hori zela eta hil egin zuten bakarrik 7 hilabete zeramatzanean boterean. Esan beharra dago politika erlijiosoa ere ezohikoa zuela, izan ere, bera berez apaiz medotar bat zen, eta hori zela eta, beste erlijio batzuetako tenpluak puskatzea agindu zuen bere agintaldian.

INPERIO AKEMENIDARRA: EGONKORTASUN GARAIA, DARIO ETA JERJES

Gaumataren aurkako errebolta, zeinak bere hilketara eraman zuen, Dariok burutu zuen, noble pertsiarra delakoa familia Akemenestarraren parte zelaren uste baitzen. Honen ondorioz inperioa krisian sartu zen gortean konspirazioak, buruzagi lokalen altxamenduak eta errebolta nazionalak emanda. Honetaz profitatuz, Dariok erakutsi zuen egoera kontrolatzeko trebezia handia zeukala eta K.a 520. urtetik aurrera berak inperioaren gidaritzapean hartu zuen.

Hartutako neurririk garrantzitsuena aparatua administratibo eraginkorra osatzea izan zen non inperioa satrapietan banatu zuen (autonomia handiko zonaldeak, zerga eta aportapen militarren bidez inperioa sostengatzen zutenak) eta merkataritza sarea zabaldu zuen.

Militar arloan hainbat konkista burutu zituen esaterako Trazia eta Mazedonia eta Indo mendebaldea, Asia Zentraleko hainbat lurralde eta mendebaldeko dominioei kohesioa eman zien. Konkistak egiterako orduan erabiltzen zuen estrategia, zera zen lurralde haietan liskarrak sortzea eta gero bera epaile moduan agertzea arazoa konponduz eta herriaren faboreak lortuz. Politika honekin batez ere greziar lurraldeak ahuldu nahi zituen bere inperio barnean txertatzeko.

Greziarrek iparraldetik jasotzen zuten pertsiar presioa jasanezina bihurtu zenean, oposizio handia sortu zen bertan “Errebolta Joniarra” delakoa sortuz, batetik inperioan txertatu ziren hainbat hirik ez zutelako espero zituzten mozkinak lortu baizik eta presio fiskal handia ezarri zitzaien.

Hori horrela izanik pertsiar sistema despotikoaren aurka beren askatasunagatik borrokatu ziren greziarrak eta horrek hain ezagunak diren Lehen Guda Medotarren hasierara eraman zituen bi herrialdeak. Dariok gudak galdu zituen K.a 492an baina 2 urte geroago greziarrak zigortzen saiatu zen berriz ere baina Maraton-eko bataila famatuan galtzaile atera zen. Greziarrek lortu zuten arrisku pertsiarra momentuz etetea.

Beste fronte batetik, nazionalismo egiptiarrak indarra hartu zuen eta K.a 486/7 urtean Deltaren errebolta ematen da eta beraz Dariok bere esfortzu militar osoa bertan kontzentratu behar du horretan K.a 486an Egiptoren aurkako kanpaina hasiz baina urte horretan hiltzen da eta beraz bere seme Jerjes I.ak boterea hartzen du (K.a 486-465).

Jerjesek K.a 484an Egipto garaitzen du eta bere seme Akemenesi honen gobernuaren ematen dio Babiloniaren aurkako errepresioa emanez. Hortik aurrera bere aitaren antzera, Greziarren aurkako kanpainetan ibiltzen da eta bere boterea hain handia da non greziar hiri askok bere subiranotasuna onartzen duten batzuk izan ezik eta horrela Bigarren Guda Medotarrei hasiera ematen zaie.

Halere bere aitaren zorte antzekoa dauka Jerjesek eta greziarrek irabazten dute 3 garaipen famatu emanda, Salamina 480an, Platea 479an eta Eurimedonte 468an. Horrela

479tik aurrera Jerjesek greziar enpresan interesa galtzen du eta barne arazoak konpontzen ibiliko da bere hilketararte 465ean.

INPERIOAREN DEKADENTZIA

Beraz aipatu bezala, Jerjes I k.a 465ean hil zen. Orduan, bere seme Dario jarri zen tronuan, baina handik hilabete eta erdira hil egin zuten eta ondorioz, Jerjesen beste semea zen Artajerjes I izango zen errege. Azken honek, beste anai batekin borrokatu behar izan zuen. Hau garaitu ondoren, altxamendu bat egon zen Egipton. Bertan erreboltaiek, Inaros izeneko gizon bat faraoi izendatu zuten. Inaros honek, Atenasko laguntza izan zuen eta pertsiarren ejertzittoa eta flota suntsitua geratu zen k.a 460an. Lau urte tardatu zituen Artajerjesek armada berreratzen eta 454an lortu zuen Egipto kontrolatzea eta 449an Inaros exekutatu zuen. Honekin batera, Pertsia eta Atenasek Caliaseko bakea sinatu zuten.

Beste alde batetik, probintzietako konfliktoek, politika berri bat hartzera behartu zuten Artajerjes. Sazerdote eta aristokrata autoktonoen eskuetan jartzen zituen bertako kontuak. Hauek, emandako boterea mantentzeko, politika filo-pertsia bat izaten zuten. Horrek, administrazioen berrantolaketa bat ekarri zuen, honela, satrapiak gutxitu egin ziren. Izan ere, botere zentralaren ahulkeria, satrapien autonomian islatzen da.

Artajerjes I 425ean hil zen 18 seme utziz. Lehenengo, Jerjes II jarri zen, baina hilabete eta erdira pozoinduta hil zuen bere anai Sogdianosek. Sogdianos sei hilabete egon ondoren bere anai Dario II aren azpikoengatik hil zen. Azken hau tronuan geratu zen bere anai guztiak garbitu ondoren.

Iturri grekoen ustez, Dario IIak aktibitate politikoa bere emaztea zen Parisatidaren esku utzi zuen. Erregealdi horretan, pertsiarrak, Espartaren alde jarri ziren Peloponesoko gerran. Espartarrei eskainitako laguntza oso garrantzitsua izan zen atenastarrei irabazteko, eta horren truke, Akemenestar inperioak, interbentzionismo handiagoa izango du greziar kontuetan.

Data berdinetan, hau da 405ean, beste altxamendu bat egon zen Egipton. Amirteo izeneko gizon bat jarri zen faraoi bezala eta kasu honetan, Egiptok bere independentzia 343 arte mantendu zuen. Honek, inperio akemenestarraren ahulkeria bistan utzi zuen eta batzuen ustez iragar zitekeen, beraien amaiera gertu zegoela. Baina ez bakarrik Egipton, 405ean, Dariok Mediaren kontra bidali zituen tropak, bertan errebolta bat hasi zelako. Handik urte batera oso gaixo zegoela Dario II.a hil zen eta bere seme Artajerjes II.a izan zen errege berria.

Agindura igo eta segituan gerra zibil bat eduki zuen bere anai Zioren aurka. Hala ere, Ziro gerra horretan hil egin zen eta honek bidea guztiz irekita utzi zion Artajerjesi. Hemen ez ziren amaitu bere arazoak, izan ere, bere aginte osoa arazoz beteta egongo da. 400. urtean, Asia txikiko hiriak altxatu egin ziren Espartaren laguntzarekin. Orduan,

Egiptok, momentuko ahulkeriaz baliatuz, bere autoritatea ezartzen du Palestinan eta horretaz gain, Espartarekin aliantza bat osatzen du. Gainera, Egipto Txiprerren laguna egiten da, zeinak, aldi berean, aliantza bat duen Atenasekin, Pertsiarren aurka joateko.

Egoera honetan, Pertsiak, Antalcidas-eko bakea sinatu zuen, non Asia txikiko eta Txipreko kontrola mantentzen zuen, baino ez Egipton.

Horretaz gain, satrapietan errebolta handiak egoten ari ziren. Honela, 358an hil zen Artajerjes II. Honen seme Artajerjes III. 15 urte behar izan zituen bere lurraldeetan egonkortasuna lortzeko. Satrapak kontrolpean jarri zituen eta Egipto gaineko kontrola berriro lortu zuen, ejertzito izugarri bat osatu ondoren.

Behin inperioan egonkortasuna lortu ondoren, Mazedoniako Filipok lortzen ari zen indarraren beldur zen. Ondorioz, bere berme guztia talde antimazedonikoen alde jarriko du. Baina 338an, Bagoas eunukoak, Artajerses pozoindu zuen.

Hemendik aurrera, Bagoas magnizidak kontrolatuko du botereko inguru osoa eta garrantzi gutxiko pertsona bat, Oarses, jarri zuen estatuaren buru. Bi urte geroago, Bagoasek, Oarses baztertu behar dela erabakitzen du eta beste agintari maneiagarri bat jartzea pentsatzen du. Hau, Dario III izango zen.

Hala ere, Bagoas azkar nekatu zen errege berriaz eta erditik kentzen saiatu arren, Dario aurreratutako egin zitzaion eta ezin izan zuen tronutik kendu. Ez dago argi zer gertatu zitzaion Bagoasi. Batzuen ustez hil egin zen, besteen ustez Alejandro Magnoren eunuko izatera iritsi zen.

Darioren agintaldia nahiko motza izan zen, 336tik 330ra. Bere agintaldiko gauzarik garrantzitsuenak, Alejandroren inbasioa da dudarik gabe eta honen ondorioz Pertsiar inperioaren desagertzea. Denbora gutxian, gauzak guztiz aldatu ziren, inbasioa zena, orain bere presen biktima bihurtu zen. Izan ere, denbora tarte horretan, inguru helenikoan aldaketa handiak egon ziren, zeinak, egoera hau posible egin zuten. Hau da, polis-en sistema zaharra, organizazio mota berri batek ordezkatu zuen. Mazedonioek inposatutako elkartasunak, pertsen kontra joateko aukera eman zien. Baina Alejandroren arrakasta, ez da bakarrik beraien nagusitasun militarrik, honetaz gain, inperio pertsiarren barne egoera ere garrantzitsua izan zen. Krisi politiko bat zuten. Altxamenduak eta egoera ekonomiko txarra. Inperioak, satrapietako zergak gastatzen zituen. Gainera, gastu publiko handiak, zerga-inposizio gero eta handiagoa eskatzen zuten, txirotasuna handituz. Gizartearen haserre orokorra. Ondorioz, inperio handi bat agintzeko behar den guztia faltza zitzaien. Hau mantendu egin zen, ez zegoelako potentzia antagonistarik. Agertu zen momentuan, denbora kontua besterik ez zen izan.

EGITURA EKONOMIKOA

Inperio akemenastarraren baliabide naturalak esplotatzen zituzten manufakturak osatuz, lurra ekonomiaren klabea izanda. Teorikoki lurra erregearenak ziren baina praktikan jaunerri eta lur errealetan zeuden banatuak gobernadore lokalek kontrolatzen zituztelarik erregearen boterea nominala izanik.

Jaunerriak zergen bidez administratzen ziren eta tenpluak ziren zerga haietaz arduratzen ziren erakundeak. Latifundismoa zen nagusi eta lurra nekazari libre eta morroien bidez lantzen ziren administratzaileak produkzioa kontrolatzen zuen bitartean.

Jarduera nagusiak abeltzaintza, arrantza, ehiza, animalien heziketa (bai zama lanak bai militar arlorako) eta baso eta harrobien ustiaketa ziren.

Kapital pribatuaz gain, mailegu publikoak emateko erakundeak ere bazeuden, tenpluak eta altxortegi publikoak alegia. Zergen kontuan komunitateen artean desberdintasunak zeuden Babilonia eta Asiria zerga gehien ordaintzen zituztenak ziren eta Mediak gutxien.

Azkenik, esan beharra dago moneta bazeukatela baina ordainketak egiteko espezieak erabiltzen zituzten.

EGITURA SOZIALA

Mundu pertsiarrak ez du beste antzinako gizarte desberdintasun handirik. Sozietate oso hierarkizatu bat osatzen zuten. Banaketa nagusia, menperatzaile eta menpekoen artekoa zen. Menperatzaile gehienak indo-iraniarrak ziren, baina ez dira ahaztu behar, lurralde berrietako aristokrazia ere boterean sartzen zela. Honetaz gain, inbasoreen eta lurralde berrien arteko jendearen nahasketak ere bazeuden. Beraz ezin da esan guztiz etnikoa zenik banaketa.

Menperatuen aldetik, konkistatutako lurraldeetako jendea zen gehienbat. Beraien funtzioa produktiboa zen bakarrik eta ezin zuten bizitza kolektiboko erabakietan parte hartzerik.

Bi talde hauek ez ziren guztiz homogeenak. Egoera juridikoaren aldetik, gizon libreak eta esklaboak bereizten ziren. Gainera, bitarteko leku batean dagoen jendea ere bazegoen. Indibiduo bakoitzaren egoera, bere aktibitate laboralari dago lotua.

Beraz, lehen esan bezala oso gizarte hierarkizatu da. Gutxiengo pribilegiatu bat eta talde handi bat egoera juridiko ezberdinekin: jabe libretik, esklabora, aske dependienteak eta bitarteko jendeak kontuan hartuz. Hauek denek, sistema produktiboaren oinarria osatzen zuten.

ESTATUAREN ANTOLAKUNTZA

Inperioaren antolakuntza oso dinamikoa izan da, garaiaren arabera aldaketa asko izan ditu. Hala ere Inperio pertsiarraren historian zehar mantendu egin den ezaugarrietako bat lurralde administrazioa eta administrazioa zentralaren arteko oreka izan da.

Erregea zen inperioaren autoritate gorena. Boterea jainkoei esker eskuratu zuela kontsideratzen zen. Hau aldaketa garrantzitsua suposatu zuen, izan ziren garai aurretik agintariak aukeratu egiten ziren. Ezaugarri honek Inperio Pertiarraren monarkia monarkia-sakrala bihurtzen du. Monarkia pertsiarraren beste ezaugarri bat tolerantzia izan da. Honek iraneko kleroarekin liskarrak sorrarazi zituen.

Administrazio zentrala aristokraziaren esku zegoen, burokrata gehienak jatorri irandarra zeukaten baina denborarekin jatorri ezberdineko burokratak egoten hasi zen: Babilonia, judutarrak, egiptiarrak, grekoak... Inperio pertsiarraren hiriburua ibiltaria zen, izan ere inperioaren lurraldea oso zabala zen eta hiriburu ibiltaria edukita kontrolatzeko errazagoa suertatzen zen. Hiriburu titulua konpartitzen zituzten lurraldeak hauek ziren: Babilonia Susa, Ecbatana, Pasargada eta Persepolis. Hiriburu bat baino gehiago izateak monarkiaren ezaugarriekin bat egiten zuen: tolerantzia eta unibertsaltasuna.

Lurralde gobernua, medotarren ezaugarrietan oinarrituta zegoela esan daiteke. Hala ere inperio pertsiarrak gehitu zuen ezaugarri garrantzitsuena lurralde gobernuen eta gobernu zentralaren arteko oreka izan zen. Lurraldeak satrapietan antolatuta zegoen. Satrapiak autonomia handiko lurraldeak ziren, unitate kultural eta ekonomiko indartsuak. Honek zerga-bilketa asko errazten zuen. Satrapien buruzagia Satrapak ziren. Satrapa justizia administratzen zuen, botere politiko osoa zeukan eta bere lurraldearen buruzagi militarra zen. Pertiako erregearekin zeukan konpromisoa hau zen: batetik bere administrazioaren berri eman behar zion eta bestetik zerga bilketaren zati bat gobernu zentralari eman behar zion. Normalean satrapak familia inperialaren kideak ziren. Hasiera batean bere agintaldia biziarteko edo behin behinekoa izaten zen, baina denborarekin kargua heredatzen hasi zen. Honek nolabait erregearen boterea mugatu egiten zuen eta hainbat gatazka sorrarazi zituen.

Inperioaren defentsarako ejertzitza zeukaten. Jatorrian armada pertsiarrez osatuta zegoen bakarrik, denborarekin lurraldearen zabalkuntza zein zen kontuan hartuta jatorri anitzeko tropak gehitu ziren. Satrapia bakoitzak bere armada propioa zeukan. Izan ere Pertiaren defentsa sistema armada lokaletan oinarritzen zen. Armada lokalez gain eliteko armada zegoen. Eliteko armada hau inperioaren hainbat puntu estrategikoetan kokatzen zen. Inperioaren "bihotza" armada berezi batek defendatzen zuen: Inmortales izena zeukan armada. Erregearen armada pertsonala zen eta 10.000 soldaduz osatuta zegoen.

Inperio zabal honen sistema legegilea eraginkortasun handia zeukan. Sorreran sistema legegilea oso heterogeneoa zen baina, denborarekin sinplifikatuz joan zen. Ez dakigu kodigo zehatzik existitu egin zen inperio osorentzat baina ezaguna da zigorrak oso gogorrak zirela. Zigor handienak normalean estatua edo monarkiaren kontra egiten ziren erasoak eta ustelkeri judiziala ziren. Erregeak egindako legeez gain, satrapia asko

beraien lege propioak izaten jarraitu zuten. Lege multzo hauek batez ere eguneroko bizitzara zuzenduta zeuden.

ERLIJIOA

Erljioa politikari oso lotuta zegoen, horrela, momentu bakoitzean garaiko politika babesteko edo behar berrietara egokitzeko moldatzen zuten erlijioa. Horrela, 3 etapa izan zituen pertsiarren erlijioak:

Politeista: Herri nomada bat zirenean, jatorri indo-europarrekoa. Oso herri gerlaria ziren, batez ere abeltzaintzatik bizi zirenak, eta erlijioa horri egokituta dago, gerra eta animaliekin zerikusia zuten erritu askorekin.

Dualista/ Monoteista: Sedentario bihurtu zirenean, eta beraien ekonomia latifundismoan eta merkataritzan oinarritzen hasi zirenean, erlijioa errealitate berrira egokitzeko beharra ikusi zuten. Egokitzapen hau Zoroastro (edo Zarathustra) izeneko mago batek egin zuen, zeina ez dakigun oso ondo zein zen, bertsio oso desberdin eta kontraesankorrak baitaude berari buruz, mago bat zela esatean egonez denak ados bakarrik, eta Dario Laren garaian eman zela erreforma esatean. Erljioaren moldaera berri honetan monoteista bihurtu ziren pertsiarrek, eta dualistak, hau da, gaur egun manikeismoak egiten duen bezala, bi gauza mota bakarrik egon daitezkeela uste zuten, ona edo txarra, zuria edo beltza, gaiztoa edo zintzoa....

Sinkretismoa izan zen hirugarren etapako ezaugarri nagusia, hau da, Inperioa handitzen eta zabaltzen zihoan heinean, eta inperioko herriak integratzeko beharra izaten joan ziren garaian, horrela matxinadak eragozteko, eta batasuna handiagoa egiteko, besteen jainkoak eta ohiturak erlijio propioan integratzean datzan taktika hau hartu zuten. Horrela, berriro politeismora itzuli ziren, baina monoteismoaren garaiko jainkoa ezarri zutelarik jainko guztien buru.

Esan beharra dago pertsiarrek oso toleranteak zirela normalean konkistatutako herrien erlijioarekin, eta noizean behin beraien indarra erakusteko besteen tenpluak eta apurtzen bazituzten ere, orokorrean erlijioari dagokionez (hirugarren etapara arte behintzat, noiz integratzen saiatu ziren beste herrialdeen erlijioak).

Herodotok ematen digu erlijioari buruz dugun informazioaren zatirik handiena, batez ere errituei buruzkoa.

6. GREZIAKO MENDE ILUNAK: ARO ILUNA ETA GIZARTE HOMERIKOA

MENDE ILUNAK (K.a. 1100-800)

Mizenastar zibilizazioaren desagertzearekin batera beste aldi bat hasi zen, Greziako historian, 1100.etik 800.era bilakatu zena, aro horri izen desberdinak eman zaizkio:

- **Homerikoa**: aro honi buruzko iturri literariorik nagusia poema homerikoak direla eta.

-**Geometrikoa**: aro honen zeramikaren izena erabiliz.

-**Erdi Aro greziarra**: Europako Erdi Aroarekin duen antzarengatik.

-**Aro Iluna**, historiagile britainiarrek ezarri zuten izena, aro honi buruzko informazioa urri eta dudagarria delako. A. Lozano-ren ustez hau da izenik egokiena, aro honetako ezaugarriak ongien biltzen dituena.

1.- ITURRIAK.

1. **Literarioak**: askoz geroagokoak eta erabilgarritasun gutxiak, euren edukiaren fidagarritasun ezagatik. Horien artean: Homero, Hesiodo, Herodoto eta Tuzidides.

Epika homerikoari dagokionez, zenbait ideia azaldu behar:

-K.a. VIII. mendean arkeologia osatuko zuten lehenengo testimonio literarioak.

-*Iliada* nahiz *Odisea* Jonian idatziak, *Iliada* K.a. VIII. mendearen erdialdean eta *Odisea* beranduxeago.

-Bi poema hauek denbora luzeko ahozko poesiaren esperientzia burutu zuten, greziar munduan zehar trobalari profesionalek egindakoa. Belaunaldiz belaunaldi trobalari horiek gertaera eta tradizio asko bildu, zenbait gai heroiko eraikiz.

- Poema homerikoak iturri historiko gisa erabiltzea oso problematikoa. Zenbait aspektutan, gizarte homerikoa asmakizun literarioa, besterik ez da. Pertsonaien portaera eta gizarte maila handitzen ditu. Orokorrean, goi-mailako gizarte taldekoak islatzen ditu, aberastasun handikoak, aparteko balentriak egiten dituzte, etab. Gizarte horren desberdintasun sozialei buruzko aipamenik ez. Beste gertaera inportante batzuk ere, ez dira aipatzen olerki homerikoetan, esate baterako doriarren etorrera, lehenengo kolonizazio greziarra, etab.

-Olerki hauen tradizioa ez da mizenastarra, aro ilunekoa baizik. Bertan deskribatzen diren palazioak ez dira mizenastarrak, ez egiturarengatik ez ezaugarriengatik. Gizarte antolamenduak ez du zerikusirik oholtxo mizenastarrek aipatzen dutenarekin. Administrazio eta gizarte egituraren hiztegia ere, guztiz aldatu da. Poema homerikoetan, olerkariak beren garaiko ohiturak eta erakundeak (aro ilunekoak) iraganean proiektatzen dituzte. Olerki homerikoek zenbait elementu mizenastar aipatzen dituzte -gotorlekuen kokapena, armak, gurdiak, etab.- baina ez dute mizenastar kultura eta erakundeei buruzko informaziorik eskaintzen. Haiengandik aro iluneko gizarteari buruzko informazioa atera dezakegu.

2. **Arkeologikoak:** ezinbestekoak, batez ere iturri literarioen ezagatik.

3. **Linguistikoak:** toponimoak, dialektoak, etab., zenbait gertaeraren berri ematen digutenak, besteak beste migrazioez, kolonizazioaz, etab.

Mizenastar kulturaren erorpenarekin batera aldaketa batzuk gertatu ziren:

-zibilizazio mizenastarraren elementurik berezienak desagertu ziren : gotorlekuak, hilobiak (tholos izenekoak), idazkera...

-Metal berri bat erabiltzen hasi zen: burdina. Burdinaren erabilpenaren hedatzeak zenbait aldaketa ekarri zituen gizarte eta ekonomiaren antolakuntzan. Gizartea demokratizatu zen. Brontzearen ustiakuntza burdinarena baino askoz murriztuagoa zenez, aberastasun handiagoa behar zen brontzezko gauzak lortzeko, batez armak eta luxuzko gauzak ziren. Brontzea gizarte aristokratikoaren ezaugarri berezia zen. Burdina askoz gehiago zabaldu zen, errazago lortzen zelako eta bere metalurgia sinpleagoa zelako. Bai armak bai nekazaritza tresnak. Populazio portzentaje handiagoak lor zezakeen.

-Zeramika berri bat, protogeometrikoa, geometrikoa.

-Lur emate mota ere aldatu ez: ehorzketaren ordeztasuna.

Aldi postmizenastarraren ezaugarriek nolabaiteko jaitzapena azaltzen dute:

-populaketaren murrizketa, baldintza ekonomiko txarrentatik. Populaketaren suspertzea X. mendean hasi zen VIII. mendean bere bilakaera gorenera iristeko.

-material arkeologikoen kalitatearen gutxipena.

-artearen gainbehera edo desagertapena, adib. idazkera.

-bizitza maila eta aberastasunaren gainbehera.

-nazioarteko harremanen, merkataritza nahiz beste motatakoak, murrizpena.

BALDINTZA EKONOMIKOAK

Hurrengo ezaugarriak aipatuko ditugu:

1.-Pobretze orokorra. Ekonomiaren oinarria: nekazaritza, bere garrantzia indartu zen beste ekintza ekonomikoen ahultasunarengatik. Despopulaketak laboreen kopurua murriztu zuen.

2.-Abeltzaintza oso garrantzitsua izan zen, ustiakuntza elikadurarako nahiz ehungintzarako planifikaturik zegoen. Laboreen murrizpenak zelaietarako lur gehiago utzi zuen, abeltzaintzari garrantzia handiagoa emanaz.

3.-Nazio arteko harremanen murrizpena edo desagerpena. Honen ondorioz, merkataritzaren ahulezia.

4.-Eskulangintzak ere gainbehera nabaria jasan zuen, garai mizenastarrean lortutako perfekzio maila galduz. Zeramikan estilo protogeometriko eta geometrikoa bilakatu ziren.

Mundu homerikoan funtsezko elementua **OIKOS ARISTOKRATIKOA** zen, funtsezko zelula sozioekonomikoa, aristokrata batek zuzendua. Oikosaren kontzeptuaren barne gizakiak (talde familiar bat, kopuru desberdinetakoa, eta langileak) eta gauza materialak (lurrak, eraikinak, abereak, etab.) daude. Aro ilunean gizartearen gehiengoa oikosaren inguruan antolatzen zen. Elementu horrek ekonomi garapenaren funtziorik garrantzitsuena bete zuen.

Giza elementuari dagokionez, oikosak ahaidetasun edo lan harremanengatik oikosaren buruaren menpe zeuden pertsona guztiak, bai libreak bai esklaboak, biltzen zituen.

Gauzei dagokienez, ondasun higikorrek zein higiezinak sartzen ziren, aipatutako giza talde horretatik separaezinak zirenak. Lurrak, abereak, eraikinak, edozein aberastasun materiala, oikosaren osagaiak ziren, oikosaren jabeak edo nagusiak administratuak zirelarik.

Ekonomikoki oikosaren ideiala autarkia, autosubsistentzia zen (oikosa buruaskia izan behar zen, autosufizientea), hau da, bere iraupenerako behar zuen guztia bere barne ekoiztu behar zuen. Baina zenbait produktu (bai lehengaiak bai manufakturak) faltatzen ziren, derrigorrez kanpotik ekarri behar zituztelarik: metalak eta luxuzko gauzak hain zuzen ere.

Oikosaren ekonomiaren oinarriak nekazaritza eta abeltzaintza ziren.

1. Nekazaritza

Aro iluneko nobleak, *aristoi* izenekoak, gerlariak zein lurjabe handiak ziren. Batez ere garagarra eta garia landatzen zituzten, baita liho eta barazkiak ere, eta neurri txikiagoan, mahatsondoa, olibondoa eta fruta-arbolak.

2. Abeltzaintza

Olerki homerikoek askotan aipatzen dute euren heroiak saldo handien jabeak zirela. Abeltzaintzaren garrantzia hain handia zen ze larreak labore lurak baino askoz ugariagoak ziren. Betabere, artabere eta txerriak hazten zituzten, okiosaren esklaboen ardura zelarik.

3. Eskurapen bideak

Oikosaren ideiala autarkia bazen ere, metalen premia eta esklabo eta aberastasunak lortzeko antsiak lorpen bide desberdinak bilatzera behartu zieten:

a) *Gerla eta piratakeria*

Herói homerikoak euren piratakeria eta arpilatze-ekintzez prezatzen ziren. Ekintza beliko askoren helburua: arpilatzea eta aberastasun eta esklaboak lortzea ziren. Harrapakina parte-hartzaileen artean banatzen zuten, horren zatirik onena nagusiari zegokiolarik. Piratakeria egiteko itsasontzi azkarrez baliatzen ziren arraunlariak beriek arpilatzaileak zirelarik.

b) *Oparia*

Metalak eta luxuzko gauzak eskuratzeko beste era bat oparien elkartrukea zen. Ohitura hori etika aristokratikoaren ezaugarria zen zeren eta nobleentzat arrotzari hospitalitatea (*xenia*) zein oparia eskaintzea ohore-beharra zen. Beraz, oikosaren jabea arrotzari harrera egin, aterpe eta jana eman eta oparia ematera behartuta zegoen. Oparia arrotzaren kategoria sozialaren arabera zen: metalak, zilargintzako gauzak, armak etab. Horrela, ohorezko zerbitzua betetzeaz gain, elkarrekiko korrespondentzia, gauzaz zein opariez, lortzen zuten, arrotzari opariak egiteko ohiturak elkarrekikotasuna inplikatzeko zuelako.

TALDE SOZIALAK

Banaketa soziala honako hau dugu:

1.goa: ARISTOI izenekoak, aberastasun handiko nobleak ziren (aberez eta lurrez neurtzen ziren aberastasun hori). Homerok gainontzeko talde sozialetatik gailentzen ditu. Aristoi hauek "familia zabal" edo *gene* izeneko unitatetan biltzen ziren, unitate horien buruak *basileis* izenekoak izaten zirelarik.

Basileis horiek:

*Komuniate baten zuzendaritza eta agintea zuten

*familia edo *genos* baten buruak ziren.

*Oikos baten jabeak ziren.

*Lurdun handiak ziren.

Familia horiek jainko edo heroi baten ondorengotzat jotzen zuten beren burua, horregatik goi mailako kategoria zuten. Euren bertute eta balore moralak: edertasun fisiko eta morala, balentria eta izpiritua noblezia. Hori zela eta, beren izaerarekin bat etortzen ziren lanak, besterik ezin zuten bete. Hau da haien betebeharrak guda (piratakeria barne), ehiza eta komunitatearen ordenu eta justiziaren administrazioa izaten ziren. Parekoen taldea osatzen zuten. Basileisek nagusitasun ekonomikoa izateagatik armadan abantailazko egoera eta erlijioaren kontrola lortu zituzten familia aberatsenen kideak ziren. Horrela aristokrazia talde itxi bat bihurtu zen, zeinek aurreko erregearen botere eta pribilegioak zituen. Buruzagitza politikoa zuen eta, gobernu-erakunde aristokratikoak sortu zituen talde menperatzaileak.

Familia edo *gene* horiek ezkontza lokarrien bitartez (endogamia) batzen ziren, ezkontzak familien buruek erabakitzen zituzten. Emaztegaiari senargaiaren familiak zenbait opari eman behar zion (*Hedna*). Horien truke andregaiaren familiak dotea ematen zuen eta emaztea senarraren *genosaren* barne gelditzen zen.

Basileisak aristokrata aberatsenak eta familia garrantzitsuenen buruak ziren. Baina horiez gain beste noble batzuk zeuden, beste aristoi batzuk. Aristokrazia hori heredagarria zen. Aitak jaraunspena semeen artean, batzuetan seme ez-legitimoak barne, banatu behar zuen. Hori zela eta, familiaren ondasuna eta estatusa txikiagotu egiten ziren, *genosaren* inguruan biltzen zen bigarren mailako noblezia agertuz. Bigarren mailako noble horiek *genosaren* laguntza eta babesa behar zuten.

Laguntza behar horregatik arpilatze eta harrapaketa ekintzak burutzen zituzten. Horretaz gain, Homero eta Hesiodoren testuetan jaiak eta oturuntzak askotan aipatzen dira. Oturuntz horietan *genosaren* buruak gainontzeko kideei (*hetairoi* izenekoei) haren eskuzabaltasun eta laguntza erakusten zien, gonbidapenaren eta oparien bidez (*Xenia*).

2.a: DEMOSA, "herria", nekazari libreak, jabe txikiak ziren, lurrak, abereak eta esklaboak izan zitzaizketen.

3.a: THES (THETES) izenekoak, ezer ez zuten gizonezko libreak, bizitzeko beren lan indarra saltzera behartuak, normalean basileisen menpean gelditzen zirelarik.

4.a: DEMIURGOAK, talde horretako kideak langile libreak ziren, inolako komunitatetan integraturik ez zeudenak, ez ziren inolako taldetako kideak. Demiurgoen egoera sozial eta juridikoa definitzea oso zaila da, alde batetik, oikosetik kanpo gelditzen zirelako, bestalde, talde horretako kideak oso heterogeneoak zirelako.

Demiurgoek normalean lan ibiltaria egiten zuten, oikosez oikos lan egiten zuten aristoientzat. Hori zela eta nolabait aristokrata horren hospitalidadeaz gozaten zuten, batez ere haien ezagupen edo abilitadeengatik onespren sozial handia lortu zutelako.

Demiurgoak hurrengo profesionalak izaten ziren:

*Artisauak, besteak beste, eltzegile, buztinlari, zurgin, errementari, forjariak, etab., tokiz toki lanean jarduten zutenak.

*Apaizak eta aztiak, hauetako mota desberdinak zeuden. Ez zegoen apezgo kasta berezirik, herriak aukeratzen zituen baizik.

*Heraldoak, hainbat gizarte eginkizun betetzen zituztenak.

*Aedoak edo rapsodak, musen babespean zeudenak, hortik etortzen zitzairen aristoiek zein herriak izandako begirunea.

5.a: ESKLABOAK, gizartean paper garrantzitsua jokatu zuten, baina ez erabakigarria. Esklabotasunaren iturriak piratakaria, bahiketa, merkataritza, eta, batez ere, guda izaten ziren. Esklaboak lan-esku bezala agertzen dira jarduera ekonomiko guztietan, lan desberdinak egiten zituzten, uztaren bilketa, etxeko lanak, etab. Egoera desberdinetakoak aipatzen dira iturrietan.

ANTOLAKUNTZA POLITIKO-ADMINISTRATIBOA

Aro homerikoan *genetako* kideek bakarrik zituzten eskubide politikoak. Antolakuntza politikoaren elementuak honoko hauek izango ziren:

- erregea (*basileus*)
- agureen kontseilua (*gerontes* izenekoak)
- herri biltzarrea, honen osagaiak gizon askeak, genos-a osatzen zutenak, dira, hots, demosa.

Erregea

Oraindik ez da sortu Estatua. Erregea heredagarria zen, ez zen inoiz hautagarria. Bere boterea nobleziak murrizten zuen, botere militarra izan ezik. A buru moduan, botere mugagabea zeukan, baina beste funtzioetan bere eskubideak tribuen buruek zituztenak bezalakoak ziren.

Erregea eta nobleak bereizten zituen ondarea zen, ondare familiarraz gain, erregeak errege ondarea zuen (*temenos* zeritzona, hau da, herriak ematen zizkion lurak, nobleek ere zenbait opari egiten zizkieten, gauzaz, horretaz gain, gerlaren harrapakina banatzean zati handiago bat jasotzen zuen erregeak).

Bake garaian erregearen funtzio nagusia judizioetan parte hartzea zen.

Agureen kontseilua

Aro homerikoan nahiz eta izen hau eduki, agureak ez zirenak ere sartzen ziren kontseilu horretan. Kontseilu horren kideak familia aberatsen ordezkariak eta nobleak ziren. Partaideek *gerontes* izena hartzen zuten. Erregearen kontsulta-organo bat zen. Erregea laguntzen zuten biltzarra presiditzera, non txandaka hitz hartzen baitzuten.

Herri biltzarra

Hiritarrek osatzen zuten. Erregeak deia egiten zion, agureen kontseiluak hartutako erabakiak ezagutarazteko, edo nobleen arteko eztabaidak ikusteko. Bere iritzia eman zezaken baina ezin zuen erabakirik hartu.

Azken erabakia erregeak hartzen bazuen ere, herri biltzarrari iritzia eskatzeak esan nahi du herriak ez zuela bere indar osorik galdu.

LEHENENGO KOLONIZAZIOA

Lehenengo kolonizazio izenarekin Aro Ilunean gertatutako kolonizazio prozesua ezagutzen dugu. Greziarrek, migrazio prozesu horretan, Asia Txikiko kostaldera eta Ekialdeko Egeoko irletara jo zuten, lur berrien bila, establezimendu berri asko eraikiz, XI. mendetik IX. mendera bitartean. Hiru mendeetako prozesu batean Asia Txikia eta Ekialdeko Egeoa greziartu ziren.

Izen hau normalean erabiltzen bada ere, zenbait historialarien ustez, ez da egokia, kolonizazio honen eta aro arkaikoan burutu zen beste migrazio prozesuaren artean izugarritzko desberdintasunak daudelako. Aro iluneko kolonizazioak ez dira metropoliek antolatutako enpresak, emigratzaile talde independenteak baizik. Emigrante horiek euren asentamenduak uztean horiekiko harremanak erabat galtzen zituzten.

Migrazio prozesu horren kausak zehaztea zaila egiten da oraindik. Seguru aski, faktore klimatiko txarrak eta herri indartsuago batzuen presioak izan ziren zergati inportanteenak.

Lehenengo kolonizazio horrek ondorengoarekiko beste desberdintasun bat izan zuen: kasu honetan migratzaileek ez zuten euren aberriaren eredu kulturala errepikatu asentamendu berrietan. Dударik gabe, bere tradizioak, oroipenak eta ohiturak eraman zituzten, baina erreinu

mizenastarrak desagertu zirenean, kultur maila oso baxua zen, gainbehera nabaria jasan zuen gizarte postmizenastarrek, beraz, emigrante horiek gauza asko berriro asmatu behar izan zuten: hiri-zibilizazio, erakunde eta pentsamendu era berriak hain zuzen ere.

Aro iluneko migrazio horiek garai horretako aspektu ezezagunetako bat dira, alde batetik iturri idatzi garaikiderik ez dugulako, bestalde iturri arkeologikoak urriak eta problematikoak direlako. Ez dugu ezagutzen nola erabaki zuten migrazioa, ezta nola burutu zuten prozesu hori eta nolakoa zen asentamendu berrien antolamendu sozio-politikoa.

Asia Txikiko kostaldea eta ondoko irlak multzotzat hartuz, alde kolonizatua hiru eskualdetan banatzen da, iparraldetik hegoalderantz: Eolida, Jonia eta Doride. Dena den, alde horri buruzko informazioa askoz ondorengoa denez, jatorrizko egoera berreraikitzea oso zaila da.

Antzinako tradizioak migrazio mugimendu honen barruan hiru etapa bereizten ditu:

1.an Tesalia eta Beozia-ko biztanleak Asia Txikian, Iparraldeko kostaldean, Eolidan hain zuzen, ezarri ziren. Eskualde horretan, ongien ezagutzen dugun asentamendu greziarra Esmirna da. Orokorrean kostaldeko hiri eoliar horiek ez zuten garapen adierazgarririk izan, ez ekonomi mailan ezta kultur mailan ere. Hiria penintsula txikitan edo itsasbazterretik gertu zeuden mendixketan ezarri zuten, nekazaritza eta abeltzaintzako bizibidea izaten zutelarik.

2.an Atika-ko Joniarrek bi norabide hartu zituzten: Asia Txikiko mendebaldeko kostaldea (Mileto, Efeso, Kolofon, Klazomenes, Fozea, Samos eta Kios) eta Egeoko irlak (Keos, Paros, Naxos eta Delos). Jonia Asia Txikiko eskualde nabarmena zen. Eskualde horretako kolonizazioan Erdiguneko Greziako eta Peloponesoko herri batzuek hartu zuten parte.

3.an Asia Txikiko hegoaldeko eskualdea kolonizatu zuten, hau da Doride. Doriarrek bi hiri kontinentar zituzten: Knido eta Halikarnaso. Legendak Peloponesoko doriarrek kolonizatu zutela dio. Eskualde horretaz gain beste establezimendu berriak egingo zituzten: Egeon: Melos, Tera, Kreta eta Rodas, hain zuzen ere.

Aro arkaikoa (K.a. VIII-VI) greziar historiaren aldirik garrantzitsuenak da mende hauetan zehar aldakuntza sakonak gertatu zirelako arlo guztietan. Greziar mundu osoa ez zen aldi berean eboluzionatu, hala ere Greziako lurralde ezberdinek bildumatzat aztertzeke beste ezaugarri antzekoak zituzten.

Polisaren jatorria eta bilakaera

Aldaketarik garrantzitsuenetariko bat polisaren agerpena da, tribuak lurraldeka antolatu zirenean. Alde batetik polisa egitura politikoa dugu, bestalde, fenomeno sozial eta ekonomiko bezala defini dezakegu.

Ez dakigu ziur noiz sortu zen polisa, ez olerki homerikoetan ezta Hesiodoren lanean ere ez da polisaren aipamenik egiten, gutxienez aro arkaikoan izango zituen ezaugarriekin. Dena den badirudi prozesu historiko hori K.a. IX. mende inguruan hasi zela. Lehenengo poleisak mizenastar gotorlekuak zeuden tokietan agertu ziren.

Polisaren agerpena azaltzeko hipotesi desberdinak erabili ohi dira, kausa edo faktore desberdinak aipatu dira fenomeno historiko hori azaltzeko.

-Burdin Aroan zehar pixkanaka merkataritza eta artisautza suspertu ziren. Horrekin batera demografi baldintzak ere aldatu ziren, populaketa pixkanaka gehituz joan zen. Testuinguru horretan kokatu behar dugu polisaren agerpena.

-Faktore horiez gain defentsa beharra ere aipatu beharko genuke, polis hitzaren lehendabiziko esanahia defentsa izen zen.

-Polisaren bilakaeran kultur eta merkataritza-garapenak zerikusi handia izan zuen, zeinek beste herri batzuekiko harremanak erraztu baitzituen. Herri horien artean feniziarrek nabarmendu beharko genituzke. Garai hartan feniziarren antolamendu politikoa jainko, gobernu eta lurralde propioa zituzten hiri independenteak ziren, zeintzuk nolabait greziar poleisen eredu bihurtu ziren.

-Historiagile batzuen ustez, polisaren agerpenaren beste kausa bat Greziako orografia zen. Estatu desberdinen arteko harremanak, baldintza geografikoengatik, ez ziren batere errazak, nolabait hiri-estatu independenteak ezartzeko joera indartuz. Hala ere, azalpen geografiko horrek balio erlatiboa dauka, zeren eta askotan poleisen kokapena eta greziar lurraldearen zatiketa ez dira bat etortzen.

-Autarkiaren desagertzea, ziur aski behar berrien agerpenaren ondorioz.

-Nekazaritza jardueran ahaleginak bateratzeko beharra.

-Defentsa komun eraginkorragoaren beharra.

Elkartze behar hori familia edota komunitateen arteko paktuen bidez lortu zuten, sinezismo prozesuak burutu ziren.

Polisaren osagaiak

Polisa hirigune (*Asty* izenekoa) eta inguruko lurraldearen (*Chora* izenekoa) multzoa da. *Asty*a gune politiko eta hiritarra zen. *Astyak* hiri bizitza garatzeko beharrezko elementu guztiak biltzen zituen:

*hiria inguratzen zuen harresi defentsiboak.

*akropolia, hiriko tokirik altuena, biztanleen defentsarako erabiltzen zena. Akropolia hiriko gune erlijioso bihurtu zen, beraren inguruan hirigunea zabaldu zelarik.

*tenpluak

*agora, espazio publikoa, plaza modukoa, bizitza hiritarraren erdigunea zena.

Chora polisaren landa eremua zen, lautada batek edo batzuk osatua. Lurralde hori indibiduo pribatuen jabegoa zen. Lursailez gain larreak eta basoak ere *choraren* elementuak ditugu.

Askotan hiri asentamendua itsasotik gertu zegoen, beraz, hiriak itsas portua izan zezaken. Hala ere itsas portua ez zegoen hirian bertan, baizik eta hiritik pixka bat urrundua, eta ez zen hiriko elementua, habitat berezia baizik.

Landa eta hiriaren artean ez zen inoiz lehiakidetasunik izan, aitzitik, bi elementu horiek guztiz bateragarriak ziren. Hiritar askok nekazaritza lanetan jarduten zuten, edo nekazaritza errentaz bizi ziren (batez ere aristokratak). Kontrako fenomeno ere gertatzen zen, hau da, zenbait nekazarik hirian lan desberdinetan jarduten zuten.

Polisa ez zen bakarrik gune geografiko eta hiritarra, batez ere hiritar komunitatea zen. Komunitate horren antolamenduaren oinarriak herria (demos) eta hiritar erakundeak ziren.

Polisaren antolamendua hiritarra zen, inguruko lurrak hiriko jendetza elikatzeko lantzen zirelarik. Hori zela eta labore lurrak murriztuz gero gatazkak sortzen ziren.

Polis bakoitza bere bizi-espazioa zabaltzen saiatu zen. Hirien arteko borroak etengabeak izan ziren, Greziako historian. Baina kanpoko borrokez gain, barne arazoak ere egon ziren. Aro horren hasieratik poliseko krisia nabaria egin zen hainbat aspektutan: egitura sozio-ekonomikoak eta polisaren edukia eta antolakuntza aldatzen hasi ziren. Baina krisia ez

zen hasierako fenomeno, aro osoan zehar manifestatu zen. Demokraziarako bidea oso gatazkatsua izan zen, batez ere talde pribilegiaduna estatusa mantentzen saiatu zelako.

Aro arkaikoaren hasierako krisia ezagutzeko gure iturri nagusia Hesiodoren *Lanak eta egunak* dira, egilearen garaiko egoera islatzen duena. Garai hartan populazioa nabarki handitu zen eta nekazaritza produkzioa ez zen hainbeste populaketa mantentzeko gai. Produktibitatea handitzeko nekazaritza teknika berririk sortu ez zutenek produkzio iturri berriak bilatu behar izan zituzten.

Arazo honen ondoan beste bat aipatu behar dugu: lur-banaketa. Aita hiltzen zenean lurra semeen artean banatzen ziren jabetzak gero eta txikiagoak sortuz, familia mantentzeko beste lurra ez izateraino iritsiz. Lurra galtzen zutenek merkataritza eta artisautzari ekingo zieten. Merkataritzaren garapena nabigazio tekniken aurrerapenei esker eman zen: itsasontziak gero eta seguruagoak egin ziren, merkataritza seguruago eta errentagarri bihurtuz.

Ekonomiaren aldaketa hauek gizartearen antolakuntzaren desorekak sor araziko zituzten. Gizartearen elementu marjinalak, nekazari txikiak, pobreak, lanbide berriak aurkitu zituzten merkataritzan eta artisautzan. Jarduera berri hauek kontrolatzen zituztenak ondasun higigarriez aberastu ziren. Baina ezin dugu pentsatu merkataritza eta artisautzaren garapena oso handia izan zenik, lurra aberastasunaren indar nagusia izaten jarraitzen zuen eta jabe handienak nobleak izaten ziren.

VII. mendearan hasieran erregetza desagertu zen greziar munduan, salbuespen batzuk izan ezik. Erregearen ordean urtero hautatzen ziren magistratu batzuek hartu zuten estatuaren botere gorena. Hiri bakoitzean izen desberdinak hartu zituzten magistratu horiek, baina guztietan magistraturak nobleen eskuetan gelditu ziren. Botere politikoa nobleen esku zegoenez garai horretako erregimen politikoari oligarkia deritzogu. Halaber, botere judizialaren monopolioa nobleen esku gelditu zen.

Gainontzeko erakunde politikoak, kontseilua eta biltzarra, mantendu ziren. Nobleek beren botere politikoa kontseiluan senti arazten zuten. Biltzarrak ez zuen erabakitzeke boteririk.

Barne gatazkak gaizkoatu zituzten beste bi faktore aipatu behar ditugu: hoplitek (infanteria) hartutako indarra eta idazkeraren orokorpena.

Aro homerikoan armadaren atalik inportanteena zalditeria zen, neurri handi batetan ekipo militarra oso garestia zelako. Aro arkaikoan berriz, metalgintzaren teknikak aurreratu ziren neurrian burdina gero eta errazago lortzen hasi zen, bere prezioa jaitsiz. Armak ordaintzeko adina diru zuten herritarrak hoplita gisa sartu ziren armadan. Pixkanaka infanteria

armadaren elementurik garrantzitsuen bihurtu zen. VIII. mendean taktika militarra eta berari lotuta zegoen ideologia aldatu ziren, hopliten armada agertuz. Hoplitak elkarrekin borrokatzen zuten hiritarrak ziren. Beraien ezkutuz elkar defendatzen zuten. Borroka kolektiboa zen, ez indibiduala. Ekipo militarra arinagoa egin zen, aurrekoa baino, eta hopliten armak erasotzekoak ziren. Nekazari libre eta hiritarrek osatutako armada hau aurrekoa baino handiagoa zen. Hiriaren defentsan defentsa erasotzekoa nahiz defendatzekoa izatera iritsi zen eta, honen ondorioz, politikan parte hartze handiagoa eskatu zieten oligarkei. Herriak poliseko defentsan parte hartzeak berehalako ondorio politikoa ekarri zuen, nobleek zuten botere politikoa zalantzan jartzea hain zuzen ere. Nobleziaren botere absolutua ez zen argi justifikatzen.

Beste alde batetik idazkeraren garrantzia aipatu dugu. Idazkeraren orokorpena garai horretako bilakaera historikorako faktore erabakigarria izan zen, batez ere legegintzari zegokionean. Aro arkaikora arte legeak ez ziren idazten, ohiturazko zuzenbidea zen, idatzi gabekoa, eta nobleek interpretatzen zuten beren interesen arabera. Horrek abusu asko zekartzan herriaren eskubideen kontra, horregatik herriaren eskaerarik garrantzitsuenetariko bat legislazioa idatzia izatea izango zen. Lege idatzien agerpena aro arkaikoaren aurrerapen handienetariko bat izan zen. VII. mendetik aurrera, legeak brontzezko xafletan idatzi ziren, herri osoak ezagut zitzan. Horrela nobleen interpretazio ahalmena murriztuago gelditu zen. Horrek guztiak noble eta herriaren arteko gatazka handiak sor erazi zituen. Gatazka horiek borroka politikoak izan ziren.

Garai horretako iturrien ustez, borroka politikoaren buruak nobleak izaten ziren, bi aldeetan. Espelikazio desberdinak emanak izan dira, baina oinarrian bi taldeen interes desberdinak zeuden. Noblezia tradizionalaren aurka ondasun higagarriez aberastu zen talde berria zegoen. Azken honen programa politikoa aberastasun higigarria zutenek noblezia tradizionalaren eskubide politiko berberak lortzea zen. Dena den, eskaerarik garrantzitsuenak herriak polisaren bizitza politikoan parte-hartze are eta handiagoa lortzea eta, aldi berean, eskubide gehiago eskuratzea izan ziren. Eskaera horiek burutu zirenean demokrazia sortu zen, baina eboluzioa geldia izan zen eta polis bakoitzean erritmo desberdinean gertatu zen.

Dudarik gabe, prozesu horren funtsezko arrazoiak ekonomikoak izan ziren, baina ezin da ukatu ekonomiaren politikaren eragina jaso zuela; bilakaera sozial eta kulturalaren mailak politikaren eboluzioa markatu zuen eta erlijioak ere bere funtzioa bete zuen, orakuluen bidez.

Hasierako krisiaren irtenbidea kolonizazioa izan zen. Kolonizazio handiak zenbait arazo ekonomiko eta demografikoak konpondu zituen baina, aldi berean, egitura berriak sortu ziren,

aurreko antolaketa politikoan lekurik ez zutenak. Legegileen eta tiranoen agerpena beharrezkoa izan zen molde zaharrak puskatzeko eta demokraziari pausoa emateko.

Greziar kolonizazio handia

Aro arkaikoaren gertaera historikoen artean mugimendu kolonizatzailea nabarmendu behar dugu, bere esangura historikoarengatik. Greziar kolonizazioa aurreko aldietan hasia zegoen, baina VIII. mendetik aurrera prozesua indartu zen, Mediterraneo osora zabalduz, lurralde bakoitzean intentsitate desberdina izan bazuen ere.

Kausak

Kolonizazioaren kausak mota desberdinetakoak izan ziren: politikoak, ekonomikoak, etab. Kausa hauek ez zuten elkar baztertzen, baina intentsitate desberdinez agertu ziren prozesu kolonizatzailean zehar.

Kolonizazioa eragin zuten kausa politikoak ezagutzeko koloniakuntzaren aurreko uneetan polisaren dinamika politikoa aztertu beharra dugu. Lehenengo uneetako arazoak benetako krisi sozial bihurtu ziren. Krisi horren kausa sistema politiko bera izan zen, hau da, *poleis* greziarren erregimen aristokratikoaren izaera eta ezaugarriak. Aberastasun iturririk nagusia lurra zen. Lur gehiena aristokraten esku zegoen, nekazari gehienak, berriz, lursail txikiak zituelarik. Beraz, aberastasunaren banaketa ez zen batere orekatua, injustua baizik. Injustizia honi beste faktore batzuk gehitu behar dizkiogu:

1. Aro Ilunean hasitako hazkunde demografikoa, mundu greziar osoan nabaria egin zena.
2. Stenochoria zelakoa, hau da, lur urritasuna, greziar orografian zergatia zuena.
3. Klan primitiboaren antzinako lagunkidetasunaren desagertzea, herri-lurraren banaketak bukatu zirenean.

Guzti honen ondorioz, egoera sozial larria aurkitzen dugu aro arkaikoaren hasieran: populazioa gehitzen ari zen, baina lur gutxi zuen eta, gainera, lur hori ez zen emankorra. Lurrik aberatsenak botere politiko eta erlijiosoa zituztenen esku zeuden. Lur-jabego txikiak zituzten nekazariarentzako irtenbide bakarra zorpetzea zen. Maileguak ordaintzen ez bazituzten prestatzaile menpean esklabo gelditzen ziren. Aro arkaikoaren hasieran sortutako prozesu hau pixkanaka gaizkoatu zen, sistema politikoan aldaketak sorraraziz.

Errealitate ekonomikoak egoera politikoarekiko lotura estu estua zuen, arazorik larriena *stenochoria* zelarik. Poleis greziarren barruan konponbiderik ez aurkitzeak (batzuetan oligarkei interesatzen ez zitzaielako, beste batzuetan kausa geografikoengatik) beste irtenbide bat bilatzera behar zituen greziarrak: kolonizazioa hain zuzen ere. Lur urritasunak sortutako

arazoak eta desoreka politiko-soziala konpondu nahian Grezietatik kanpora joko zuten hiritarrek. Kolonizazioaren kausarik nagusiena nekazaritza arazoa izan zen, hedapen-lurraldeak eta kokalekuek adierazten dutenez.

Mugimendu kolonizatzaileraren lehenengo aldietan merkatalgoa ez zen erabakigarria izan. Idazle greziarrek ez dute gai honetaz ezer aipatzen; honetaz gain jarduera ekonomiko hau oso ahula zen polisaren maila ekonomikoarengatik. Aro arkaikoaren hasieran elkartrukeak oso urriak ziren, aborokinak apenas ez zeuden eta. Hala ere, egoera hau pixkanaka aldatuz joan zen, fenomeno orokorra ez izan arren, zenbait polisetan, esate baterako Korinto eta Atenas, artisautzaren teknikak nabarki garatu ziren, aborokin merkaturagarriak ekoizteraino iritsiz, produktu hauek eta nekazal aborokinek merkataritza eragin zuten.

Prozesu honi beste elementu bat gehitu behar diogu: txanponaren agerpena, K.a. VII. mendearen bukaeran edo VI. mendearen hasieran. Pentsa dezakegu, beraz, greziar establezimendu berriek perspektiba berriak (merkatu berriak) ireki zituztela. Nekazaritza produkzio handia zuten koloniek euren aborokinak kontinenteko greziarrek elkartrukatzen hasi ziren, batez ere artisautzaren produktuen truke, euren ekoizpena eraginez. Hau gertatzen zen bitartean, kolonia berriak ezarri beharra sortu zen. Azken kokagune hauetan elementurik garrantzitsuena ez da lurra lortzea izango, beren kokapen estrategikoa baizik, gehien erabiltzen ziren lehengaiak errez eskuratzeko.

Ezin dugu ahaztu alor teknikoan egindako aurrerapenak. Itsas nabigazio teknikak nabarmen hobeto ziren bidaia luzeak itsasotik egiteko erraztuz.

Azkenik, kolonizazioaren beste kausa batzuk aipatu beharko genituzke, garrantzi askoz gutxiagokoak, baina iturrietan aipatzen direnak, esate baterako, abentura nahia (Arkiloko-ren poema agertzen dena); zenbait erregimen aristokratikoen eginiko zapalkuntzak populazioaren zati bat kolonizazioaren prozesuan parte hartzera behartu zuen; kanpoko presio militarra (adibidez, persiarrek Fozean gainean egiten zuten presioak Korsirako migrazioa esplikatzen du; etab.)

Espedizioaren antolaketa

Komunitateak kolonia bat fundatzea erabaki ondoren, fundatzailea –oikistes-a- aukeratu behar zuten, zein handik aurrera espedizioaren lider bihurtzen zen botere guztiekin. Orokorrean oikistesa prestigiodun noblea zen, espedizioa arrakastaz burutzeko nolabaiteko garantia ematen zuena.

Delfoseko orakulari kontsulta egiteak legitimotasun erlijiosoa ematen zion kokaleku berriari eta lurrez jabetzea justifikatzen zuen, halaber jainkoaren onespenez espedizionarioei konfiantza ematen zien.

Espedizionarioen hautaketa zozketaz edo derrigorrezko errekrutatzeaz egiten zen. Orokorrean espedizionarioen kopurua nahiko txikia zen, ez zen inoiz 1000 gizon baino gehiago izan. Kolonia berria fundatu ondoren metropolitik errefortzuak etorriko ziren polis berriaren populazioa osatzeko.

Azkenik bi erritual betetzen ziren bata augurio onak izateko sakrifizioa eta bestea metropoliko sutondo sakratutik sua hartzea koloniara eramateko.

Bidaia tamaina txiki samarra zuten guda-itsasontzietan egiten zuten, non pertsonak eta gauzak pilatzen ziren.

Kolonia motak

Apoikia: kolonia gehiena mota honetakoak ziren. Eraiki zirenetik hiri independenteak izaten ziren. Metropoliarekin harreman sentimentalak eta erlijiosoak izaten zituzten. Ekonomia eta politika mailan guztiz askeak izaten ziren. Apoikiek merkataritza koloniek baino lurralde handiagoa kontrolatzen zuten. Apoikien barruan hurrengo bereizketa egin behar dugu:

- izaera autarkikoa zutenak: lur ustiakuntzarako lan-eskua kolonoak ziren bakarrik.

- bertako lan-eskua osoki edo partzialki erabiltzen zutenak, besteak beste Sirakusa, Bizantzio, etab. Badirudi Itsaso Beltzaren inguruko kolonietan sistema hau orokortua zegoela.

Enporiona, merkataritza kolonia, lurralde txikiagoa zutelarik, aurrekoek baino.

Klerukia, kolonia atenastar mota berezi bat. Atenas kolonia hauen bitartez bere politika eta ekonomiaren eragin-barrutia zabaltzen saiatu zen. Lurrak konkistaren bidez lortzen zituen. Koloniaren biztanleek metropoli fundatzailearen hiritarrak izaten jarraitzen zuten, betebeharrak eta eskubide berdinak zituztelarik. Adibiderik ezagunena Salaminarena da. Salaminako biztanleak atenastar hiritarrak ziren, beraz, zergak ordaindu behar zituzten; atenastar armadan zerbitzu prestatu behar zuten; irlan bizi behar baziren ere, ezartzean jasotako lur-sailak ezin zituzten alogorean eman; etab. Salamina Atenasetik etorritako arkonte batek gobernatua eta administratua zegoen.

Kronologia

Kolonizazioaren kronologiari dagokionez, aro arkaikoan, bi fase bereiz ditzakegu:

1.a K.a. VIII. mendearen erditik K.a. VII. mendearen erdira. Fase honen kolonizazioaren helburua populazioaren aborokinentzako lurak lortzea izan zen. Geografikoki kokaleluak Sizilian eta Italiako Hegoaldean egin zituzten eta metropoli nagusienak alde batetik Eubeako Kalzis eta Eretria, eta bestetik Korinto eta Megara izan ziren.

2.a K.a. VII. mendearen erditik K.a. VI. mendearen erdira. Fase honen ezaugarriak nagusienak hauek izan ziren: 1. mugimendu kolonizatzaileen zabaltze geografikoa, Mendebaldeko Mediterraneoaren muturreraino iritsiz. 2. kolonizazioan parte hartu zuten poleisen kopurua gehitzea. Greziar koloniak Mediterraneo arro osoan eta Ponto Euxinon (Itsasartean aldea-Itsas Beltza) ezarri ziren. Aurreko aldian parte hartu zuten hiriez gain, bigarren faseko metropoliak Asia Txikiko eta irlako hiri greziarrak ere izan ziren. Lehenengo koloniek ere beste batzuk eraiki zituzten. Bigarren fase horretan merkataritzak garrantzi handiagoa izan zuen aurreko aldian baino.

Norabideak

1. Ekialde Hurbila: inperio asiriarrak greziar hedakuntza eragotzi zuen kostalde horietatik. Sirian kolonizazioaren aztarna urriak aurkituak izan dira.
2. Mendebaldeko Mediterraneo: kolonizaziorako baldintza ezin hobekak zituen. Gehien nabarmendu ziren lurraldeak Hegoaldeko Italia eta Sizilia izan ziren (SIRAKUSA, metrop. Korinto; MEGARA HIBLEA, Megara; NAXOS, HIMERA, Kalzis; GELA, Rodas; KUMAS, Eubea; TARENTO, Esparta). Kolonizaturik zegoen Hegoaldeko Italiako lurraldeari Magna Grezia deritzogu. Mendebalderantz monopolioa fozearrek zuten: MASSALIA, Marseilla, MAINAKE, Malaga, etab.
3. Afrikako Iparraldea: NAUKRATIS (kolonia honetan greziar estatu asko ezarri ziren); ZIRENE, Tera.
4. Itsasartean aldea eta Itsaso Beltza: hiri protagonistak Mileto eta Megara izan ziren. Lehenengoak ZIZIKO, APOLONIA, ODESOS, ISTRO, TIRA, OLBIA, etab. eraiki zituen; bigarrenak MESEMBRIA, BIZANTZIO, etab.
5. Itsas Adriatikoren aldea: lurralde honetako kolonizazioaren helburua Magna Greziarako bideak babestea izan zen.

Ondorioak

1. Kolonizazioak aparteko esanahia izan zuen Greziaren geroako bilakaera historikorako. Prozesu kolonizatzaileak, estatuaren (polis) erakuntzari lotuta egon zenak, artisautzaren eta inportazio-espertazio merkataritzaren garapenerako baldintza ezin hobekak sortu zituen.

Horretaz gain, presio demografikoa eta stenechoriari ere nolabait konponbidea eman zien kolonizazioak. Azken buruan, kolonizazioak gizarte greziarraren indar produktiboen garapena nabarki eragin zuen.

2. Greziar eta feniziarrek garai berean ekin zioten kolonizazioari, bien helburuak ere berdintsuak ziren. Hori zela eta euren arteko gatazka ugari sortu ziren, zeinetan gerorago Kartagok ere parte hartuko baitzuen.

3. Erdialdeko eta Mendebaldeko Mediterraneoan batez ere, bertako populazioaren eta greziar eta feniziar kolonizatzaileen arteko harremanak bertako gizartean aldaketa ugari ekarri zituzten. Greziarrek burdin metalurgia Brontze Aroan zeuden bertako zibilizazioetara eraman zuten. Honetaz gain beste aurrerapen garrantzitsu batzuk ere eraman zituzten besteak beste txanponak, idazkera, etab.

Legegileak

Hesiodok justiziaren gaia planteatzen zuenean bere lanean, *Lanak eta egunak* izenekoan, bi justizia mota bereizten zituen:

- nobleek administratzen zutena. Basileisek legeak interpretatzen zituzten gehien ordaintzen zutenen alde, normalean.
- Beste bat, Zeusengandik etorria. Azken hau benetako justizia zen, nobleen abusuak murriztu behar zituena.

Herriarengandik justizia sortua izateko hiru baldintzak bete behar ziren: ekonomia aldatzea; kezka orokorra sortzea eta eskaerak arlo politikora eramatea.

K.a. VII. mendearen erdialdean zenbait hirik hiru baldintza horiek bete zituzten, ohiturazko legislazioak ekartzen zituen arazoei aurre egiten hasi zirelarik.

Alde batetik ohiturazko legeak idatzi gabekoak ziren eta nobleek beren interesen arabera interpretatzen zituzten. Bestalde, gizartea K.a. VIII. mendetik K.a. VII. mendera bitartean nabarki aldatu zen eta arau berriak behar ziren gatazka berriak zuzentzeko, hain zuzen ere artisau, merkatari eta atzerritarren eta poliseko hiritarren arteko sortutako liskarrak.

Legegileen agerpena desberdina izan zen hiri bakoitzean, gai honi buruzko informazio eskasak esaten digunez. Hainbat kasutan legegilea borrokan zeuden taldeek aukeratutako “gizon on bat” zen, arartekoa izan zedin, herritarra zein atzerritarra; beste batzuetan bitartekari-funtzio hori komisió batek bete zuen, adib. thesmothetes izeneko pertsonaiak, Atenaseko lehenengo legegileak izan zirenak.

Legegilea magistratu berezi gisa onartzen zen, botere gorena bereganatzen zuen, botere exekutibo eta legegilea bere eskuetan gelditzen zirelarik. Hala ere botere hori behin behinekoa zen, legislazio berria egin eta martxan jarri arte.

Lehenengo legegileak mendebaldeko kolonietan agertu ziren. Fenomeno horren esplikazioa zenbait arrazoitan datza: alde batetik populazioaren konposaketa, etorkinek ohiturazko legeen eragin askoz txikiagoa jasaten zuten, metropolietan baino; bestalde lur banaketa berdintsuagoa zenez, nobleziak ezin zien aurre egin are eta indar handiagoa hartzen ari ziren taldeei (merkatariak, artisauei...). Metropolietan berriz legegintza prozesua askoz konplexuagoa izan zen: lege berriak legegile bati leporatu arren, lege kodeak pixkanaka egin ziren, hamarkada batzuetan zehar, behar berriei erantzuna emateko lege berriak sortu zirelarik. Prozesu geldiagoa izan zen metropolietako noblezia indartsuagoa zelako, hori zela eta oso zaila zen beste indar sozialentzat nobleen pribilegioen kontra joatea.

Lege idatziek herriaren boterea indartu zuten, nobleen interesen aurkakoak zirelako. Justiziaren administrazioa hiriko tribunaletan gelditzen zen eta legeak edonork ikusi zitzakeen tokian ipintzen ziren. Hala ere, nobleek ongien prestatuak zeudenak izaten zirenez, politika eta administraritzan funtzio garrantzitsuena izaten jarraitu zuten.

Genosaren legeak desagertu ziren hiriaren legeei bidea emanez, adib. mendeku pribatua desagertu zen, bere ordean hiriak kobratzen zituen isunak agertu zirelarik. Legegileek hartutako neurriek nobleziaren botere ekonomikoa ahuldu zuten, esate baterako:

- lur zatiak inorenganatzeari debekatzea (Zaleuko Lokrikoa).
- Kredituak ezabatzea, zeren eta kredituak ordain ez zitzaketenean lurra galtzen zuten (Karondas Kataniakoa).
- Zordunen egoera hobetzea, zorrak barkatuz (Solon).
- Beste legegile batzuk jardura ekonomikoko berriei (merkataritzak eta artisautzak) finkatzen lagundu zieten: adib. Pittakos Mytilenekoak arautu zituen merkataritzak kontratuak.

Legegileek nobleen boterea ez deuseztatu arren, gutxienez ahuldu egin zuten eta horretaz gain bere lorpenik nagusia herriari botere politiko eta judiziala are eta handiagoa ematea izan zen.

Tiranoak

Tirania antzinako iturrietan erregimen politikorik txarrena, ez-zilegiarena bezala agertzen da. Tiranoa herriaren etsaitzat jotzen dute, iturriek diote tiranoek botere politikoa beren onurarako erabili zutela, eskubide indibidualak eta kolektiboak zapalduz. Hau aristokraziaren

ikuspuntua da, baina kontutan hartu behar dugu tiranoen politikak aristokraziaren kontra jo zuela, beraz errealitatea guztiz ezberdina izan zen.

Tirano guztien politikaren ardatza nobleen aurkako ekintzak ditugu. Lehenengo tiranoa Zipselo izan zen, tirania Korinton K.a. 657. urtean ezarri zuela, eta azkena K.a. VI. mendearen bukaeran aurkitzen dugu.

Zergatik agertu ziren tiranoak? Lege-kodifikazioak ez zuen kontutan hartzen merkataritzan eragiten ari zen eboluzio azkarra: errealitateak berehala gaintzen zuen lege-kodea. Kolonizazioak merkataritzaren garapena ekarri zuen: Greziak batez ere artisau produktuak, ardoa eta olioak esportatzen zituen, zerealen truke, kolonietatik ekarriak. Artisau eta merkatarien kopuruaren gehitzeak indar handiagoa eman zien egitura sozialean. Merkataritzaren garapenak nekazari txikiak zorpetu zituen: lur jabe handiek bereganatu zuten lurra, ardo eta olioaren ekoizpenerako utziz. Nekazari zorpetuek hirira jotzen zuten lanbide bila, baina bertan esklaboek konpetentzia izaten zuten, zeren eta gero eta ugariagoak ziren esklaboek artisautzan eta merkataritzan jarduten zuten.

Bestalde, nahiz eta legegileek politika mailan zenbait gauza aldatu, poliseko magistraturen gehiengoa nobleen esku zegoen.

Beraz, tiranoen sorrera prestatu zuten gatazkak ekonomiko, sozial eta politikoak izan ziren.

Normalean tiranoak nobleak izaten ziren, baina beraien interesek ez zuten zer ikusirik aristokrazia lurjabearen interesekin. Nobleak izategatik magistraturetan jardungo zuten, eta magistraturarekin ospea lortzen zuten herriaren aurrean, militar arloan nabarmenduz edo nobleziaren aurkako interesen ordezkaria izanez.

Hiriko lehenengo tiranoaren boterea zuritzea erraza zen: urtero magistratura gorenaren buru izendatzen zuten. Ez zuten konstituzioa aldatu behar, tiranoaren ospeak bere jarraipena justifikatzen zuen. Ondorengoek askoz zailago izan zuten boterean jarraitzea, politika berdina eramaten zuten baina gizartearen baldintzak ezberdinak ziren eta horretaz gain haiek ez zituzten lehenengo tiranoak zituen ezaugarri karismatikoak, horrexegatik bigarren edo hirugarren tiranoak askoz gogorragoak izan ziren, askotan bortizkeria erabili behar izaten zuten boterean mantentzeko.

Tiranoen politikaren helburua antolamendu estatala sendotzea izan zen, hau lortzeko bi elementu erabili zuten: txanpongintza eta zerga-sistema. Txanpongintza zenbait hiri-estatutan lehendabizikoz tiranoekin sortu zen. Zerga-sistema definitu zutenean estatuaren irabaziak eta

gastuak hobeto bereizi zituzten eta honen ondorioz arlo publikoa eta pribatua argi bereizi ziren. Honen guztiaren ondorioz estatuaren mantenuan nobleei garrantzia kendu zieten.

Nobleziaren indarra beste neurri batzuekin ere ahuldu zuten: noble atzerriratuen lurrak konfiskatu zituzten eta nekazari behartsuen artean banandu zituzten; nekazari txikiei kreditu merkeak eman zizkieten lanabesak eta aleak erosteko; artisautza eta merkataritzaren garapenaz ere arduratu ziren, bi jarduera hauei laguntzeko neurriak noblezia lurjabearen kontrakoak izaten ziren.

Erregimen politiko hau desagertu zen haren helburuak bete zituenean hots nobleziaren botere ekonomiko, sozial eta politikoa murriztu, nekazari zorpetuei laguntza eman eta artisau eta merkatariei politikan indarra eman zienean.